# 4. #gazteplana#

EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

# # Aurkibidea

1. Sarrera 5

**Aurrekariak eta testuingurua** 7

**Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Plana 2014-2016: ebaluaketarekin ateratako ondorio nagusiak** 10
a. Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planaren hedadura eta egitura estrategiko nagusia 11
b. Emaitzak eta ondorioak 11

**Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuekin bat egitea eta sinergiak** 14
**Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren lanketa-prozesua** 16
**Planaren egitura** 17

2. Euskadiko Gazteria 2017. Egoera eta etorkizuneko erronkak 19
**Joera demografikoak** 21
**Enplegua** 22
**Etxebizitza** 24
**Hezkuntza** 25
**Osasuna** 27
**Gizarte-ekintza eta berdintasuna** 28
**Partaidetza, kontsumoa eta mugikortasuna** 30
**Kultura, aisialdia eta kirola** 32
**Gazteen erronka nagusiak** 34

3. Esparru estrategikoa 35
**Kontzeptu-esparrua** 37
**Printzipio gidariak** 39

4. Ardatzak, arloak, helburuak, ildoak eta lehentasunezko ekimenak 41

**1. ARDATZA. Emantzipazioa eta autonomia** 45
a. Enplegua 45
Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan 45
Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago 46
Gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza 49
Gazte ekintzaile gehiago 50
Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzea 51
b. Etxebizitza 53
Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat 53
c. Hezkuntza 55
Balioetan oinarritutako hezkuntza 56
Euskal gazte eleaniztun gehiago 58
Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman 59
Gazte ikertzaile gehiago 60

**2. ARDATZA. Ongizatea eta bizitza osasungarria** 63
a. Osasuna 63
Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea 63
Haurren gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea 64

Gazteei sexu-bizitza osasungarria izaten laguntzea 65
Gazteen portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea 66

**3. ARDATZA. Berdintasuna eta gizarteratzea 69**
Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea 69
Gizarteratzearen aldeko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak.
Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea 69
Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea 71
Tratu txar mota berriak prebenitzea 72

**4. ARDATZA. Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa 73**
Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea 73
Kontsumo arduratsua egiten duen gazte gehiago 74

**5. ARDATZA. Sozializazioa 75**
Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek
sortutako kultura-jarduerak garatzeko interesa indartzea 75
Kirola maila guztietan sustatzea 76
Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea 77

**5. Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren gobernantza, ebaluazioa eta jarraipena 79**
**Planaren indarraldia 81**
**Sailen arteko kudeaketarako eta koordinaziorako eredua 81**
**2020ko IV. Gazte Planaren ekintza garrantzitsuez arduratzen diren**
**Eusko Jaurlaritzako Sailak eta Zuzendaritzak 82**
**Urteko programazioaren eta ebaluazioaren zikloa 85**
**Amaierako ebaluazioa 85**
**Erakunde arteko koordinazioal 86**

**6. Gazteria-arloko 2020rako euskal estrategiaren adierazleen taulari egindako ekarpena 87**

**Eranskinak 91**
**I. eranskina: Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planak GJHei egindako ekarpena.**
**2030 Agendako xedeekin bat etortzea 93**
**II. eranskina: Eusko Jaurlaritzaren Gazte Planaren eta gainontzeko**
**GOVA 2020 planen eta estrategien arteko sinergien taula 100**
**III. Eranskina: Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planaren (2014-2016) egitura estrategikoa 102**

# #01
## Sarrera



# 1. Sarrera

Gazteak ez dira euskal gizartearen etorkizuna soilik. Horrez gain, eta funtsean, gure oraina dira; izan ere, herrialde gisa aurrera egiteko dugun balio garrantzitsuenetako bat ordezkatzen dute. Haien giza eta gizarte-garapenaren mende dago, neurri handi batean, bizi-proiektuak autonomiaz garatzeko gaitasuna, eta, horretarako, beren etorkizunaren eraikuntzan protagonista eta gure gizartearen atal aktibo eta konprometitu izan behar dute.

Eusko Jaurlaritzaren 2020rako IV. Gazte Planak Eusko Jaurlaritzak gazteekin duen konpromisoa irudikatzen du, eta hori egiteko, administrazio publiko gisa, gazteei babes osoa eman behar zaielako eta bizi-proiektuak askatasunez eta autonomiaz gara ditzaten baldintzak bete behar direlako uste osoa hartu da oinarritzat.

## Aurrekariak eta testuingurua

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.30 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak du gazte-politikan eskumena, eta bertako erakunde erkideei dagokie legegintzarako (araugintzaren arloan), garapenerako eta ekintza zuzenerako gaitasuna, gazte-politikaren arloari dagokionez (Lurralde Historikoen Legearen 6 c artikuluko 2. lerrokada).

Hala, Eusko Jaurlaritzak ibilbide luzea du gazte-politiken garapenean: 1999an lehen gazte-plana indarrean sartu zenetik gaur egun arte, planaren «adin-nagusitasuna» aitortzen da, eta 18 urte horietan, lau plan edo estrategia eta bi neurri iragankor egin dira, jarraian adierazten den bezala:

- I. Gazte Planak, 1999-2001 aldikoak, gazte-politika jorratzeko modu berri bat aurkeztu zuen, eta ekimen aitzindaria izan zen, bai Espainiako estatuan bai Europan. Instituzioen arteko plan gisa garatu zen, etorkizunean euskal instituzioek gazteekin lotutako gaietan jarduteko eredu izan zedin.

- II. Gazte Plana, 2002-2005 aldikoa, euskal gazteei ezin hobeto gizarteratzeko beharrezko diren bideak emateko jarri zen abian, eta haren aurrekaria bezala, erakundearteko plan gisa sortu zen.

- 2006ko abenduan, Eusko Jaurlaritzak hainbat neurri iragankor onetsi zituen, Euskal Gazteria Legea onetsi arte, gazte-politika integrala sustatzen jarraitzeko.

- Gazteriaren arloko 2020rako Euskal Estrategia, Gobernu Kontseiluak 2012ko ekainaren 12an onetsia, gazteei eragiten dieten politiken ikuspuntu integraletik egin da, autonomia-erkidego guztiarentzat erreferentziazko esparru orokor bat izateko asmoz. Estrategia horretan beharrak, lehentasunezko erronkak, helburu estrategikoak eta jarraibideak zehazten dira, epe ertainera (2016) eta luzera (2020), euskal gazteen behar eta eskaerei buruzko diagnostiko adostua harturik oinarri. Esparru-dokumentu horrek honako hau zehazten du: *«Esparru-plana prestatu eta onartu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak plan orokorreko esku-hartze lerroak eta jarraibideak garatuko ditu. Horretarako, plan bat egingo du legegintzaldi bakoitzari dagokion eperako, eta urtean behin eta plan bakoitzaren indarraldia amaitu eta gero ebaluatuko du».*

  Hartara, alde batetik, instituzio bakoitzak behar bezala egokitu ditzake bere konpromisoak epe laburrera, diagnostiko guztia eta jarraibide eta gidalerro guztiak hiru edo lau urtean behin berrikusteko beharrik gabe, unean-unean beharrezko diren egokitzapenak soilik eginez, eta, bestalde, legegintzaldia edo gobernu-epea nahi duen erritmora jarraituz egingo ditu planak eta programak.

- 2014-2016rako III. Gazte Planak Eusko Jaurlaritzaren esparruan aplikatzen du esparru-estrategia hori, zeinaren helburua, nagusiki, gazteen emantzipazioaren alde lan egitea den.

  Planaren aurkezpenaren eta ondorengo jarraipenaren ikuspuntu formaletik, Gazteria eta Kirol Zuzendaritza arduratu da hura lantzeaz, baita dagozkion urteko programazioak lantzeaz ere –hala jarduketa zehatzei nola urteko aurrekontuari dagokionez zehaztu behar dira horiek– eta horiek ondoren ebaluatzeaz ere. Gaur egungo planaren aurrekaria denez, hori amaitzean egindako azken ebaluaziotik ateratako ondorio nagusiak zehazten dira ondorengo atal batean.

- Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren onetsi arteko neurri iragankorrak Gobernu Kontseiluaren bilkuran onetsi ziren 2017ko apirilaren 25ean. Horretarako, eta alde batera utzi gabe arlo horretan eskudundutako organoek gazteriarekin erlazionatutako ekintza positiboak antolatu eta kudeatzea, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak, gazteriarekin lotutako gaietan eskumena duenak, beharrezko informazioa jasotzeko eta aztertzeko funtzioak gauzatu ditu 2017an, Gazteria Zuzendaritzaren bidez, aipatutako Gobernu Kontseiluaren Akordioaren aurreikuspenak bete ahal izateko. Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzako sailek laguntza eta beharrezko babesa ematen diote.

Gaur egun, eta XI. Legegintzaldiaren esparruan, gazte-politikek lehentasuna dute Eusko Jaurlaritzarentzat. Eta lehentasun horren arabera, onarturik lan-merkaturako sarbidea dela gazteen kolektiboak gaur egun duen erronka nagusietako bat, herrialdeko bigarren helburu gisa planteatu da 20.000 gazteri lehen lan-esperientzia izateko bide ematea. Hartara, integratzen lagundu eta egonkortasun handiagoa eman nahi zaie, garapen pertsonalaren eta profesionalaren mesedetan. Horrela, legealdi honetan Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean sartu da Gazteria Zuzendaritza –IV. Gazte Plana lantzeko arduraduna, alegia–, Enplegu eta Gazteria Sailburuordetzaren mende.

Legealdi-programaren egituran, zehazki, hainbat esparrutatik egiten zaio aipamena gazte-kolektiboari:

a. I. zutabea: Enplegua, berraktibazioa eta iraunkortasuna: I.1 ardatzean (Hazkunde sendoa, enplegu gehiago eta hobea dakarrena), eta «enplegu gehiago eta hobea» konpromisoa hartuta, 5. ekimena jasotzen du, gazteen laneratzea sustatzea, alegia.

b. II. zutabea: Giza garapena, integrazio soziala, berdintasuna eta kalitateko zerbitzu publikoak: 4. ardatzean (Integraziorako eta berdintasunerako agenda soziala), «Gazteentzako aukeren etorkizuna» atala eta 125. konpromisoa jasotzen dira. Azken horrek, espresuki, Eusko Jaularitzak gidatutako 2020rako IV. Gazte Plana sustatzeko ekimenarekin du lotura, eta aldundiek, udalek, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta hainbat gizarte-eragilek parte hartu du berau prestatzen, euskal gazteriaren behar nagusiei erantzuna emateko, besteak beste, arlo hauetan: laneratzea, etxebizitzen eskuragarritasuna, balioetan oinarritutako hezkuntza, osasuna, gizarte-ekintza, aisia eta kultura, mugikortasuna eta partaidetza. Ekimen horretarako, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila identifikatzen da arduradun gisa.
   Ardatz horretan bertan, «etxebizitza eta hirien berroneratzea» atalean, 143. ekimena jasotzen da, alokairu-araubidea eta gazteen emantzipazioa lehenesteari buruzkoa.
   V. ardatzean (Kalitatezko zerbitzu publikoak), 158. ekimena jasotzen da, adingabeentzako arreta judiziala garatzekoa.

Legealdi-programak, era berean, hainbat printzipio iradokitzaile jasotzen ditu ardatz bakoitzerako, eta bereziki interesgarritzat jotzen da, puntu honetan, Jaurlaritzak Nazio Batuen Biltzar Orokorrak bereganatutako 2030 Agendarekin duen konpromisoa aipatzea. Agenda horrek aukera ematen die herrialdeei eta gizarteei, inor atzean utzi gabe, guztien bizitza hobetzeko bide berri bat har dezaten. Horretarako, garapen jasangarriko 17 helburu eta 2030ean bete beharreko 169 erronka identifikatzen dira.

Garapen jasangarriko helburuek (GJH), mundu-mailako helburuak izenez ere ezagunak direnek, unibertso osoari dei egiten diote hainbat neurri har daitezen pobreziari amaiera emateko, ingurumena babesteko eta bakea eta pertsona guztien zoriona bermatzeko. Beheko grafikoan ikus daitekeenez, IV. Gazte Planak garapen jasangarriko hamazazpi helburuetako hamarri erantzuten eta laguntzen die, eta horien artean, hauek nabarmentzen dira, bereziki, helburu eta xede asko partekatzen dituztelako: kalitate oneko hezkuntza, lan duina eta hazkunde ekonomikoa eta gizarte-desberdintasunak murriztea.




Hezkuntzaren kasuan, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planak zehaztutako hamar xedeetatik bederatzi partekatzen ditu Nazio Batuekin, kalitate oneko hezkuntza unibertsala, inklusiboa eta ekitatiboa lortze aldera. Xede horien artean, nabarmentzekoak dira Eusko Jaurlaritzarekin dauden sinergiak, egoera kalteberan daudenek hezkuntza maila guztietan jasotzeko aukera berdinak dituztela ziurtatzeko lanean, eta beharrezko gaitasunak lortzen dituztela bermatzeko, bereziki, gaitasun tekniko eta profesionalei dagokienez, enplegura, taxuzko lanera eta ekintzailetzara sarbidea izateko.

Bestalde, eta enpleguaren arloari dagokionez, Nazio Batuek laneko produktibitatea igotzeko, oro har, eta langabezia-tasa murrizteko, gazteen artean bereziki, zehaztu dituzten hamabi xedeetatik sei partekatzen ditu Eusko Jaurlaritzak. Bat datoz, argi eta garbi, kalitate oneko lanpostuak sortzeari, langabezian dauden gazteen proportzioa murrizteari, lan-eskubideak babesteari eta pertsona guztientzako lan-inguru segurua eta arriskurik gabea sustatzeari dagokionez.

Gizarte-desberdintasunak murrizteko borrokari dagokionez, GJHaren hemeretzi helburuetatik hamarri erantzuten die IV. Gazte Planak, eta beraz, bat dator Nazio Batuekin. Horrela, hainbat politika hartu izana nabarmentzen da, soldatei eta gizarte-babesari buruzkoak, bereziki, baita pertsona guztien inklusio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzeko eta sustatzeko apustu argia egin izana ere, pertsonen adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein baldintza aintzat hartu gabe.

Informazio gehiago eskuratzeko eta IV. Gazte Planak garapen jasangarriko hamazazpi helburuetako hamarrekin –eta horien xedeekin– nola bat datorren eta horiei nola laguntzen dien ezagutzeko, II. eranskina kontsulta daiteke, zehaztasun horiek jasotzen baititu.

Estatuz gaindiko estrategien inguruko ikuspuntu hori osatzeko, Europa 2020 Estrategia aipatu behar da, EBko hamarkada honetako hazkundearen eta enpleguaren agenda gisa. Estrategia horrek hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzailea nabarmentzen du, Europako ekonomiaren egiturazko hutsuneak gainditzeko, lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzeko eta gizarte-ekonomia jasangarria bultzatzeko.

IV. Gazte Plana, era berean, bat dator estrategia horrek zehazten dituen helburuekin, eta haiei esker, EBk 2020an izan behar dituen funtsezko parametroen panorama orokorra ikus daiteke. Jarraian, Europa 2020 Estrategiaren xedeak jasotzen dira:




Geuk egina, Europa 2020 Estrategia oinarri hartuta

Hartara, IV. Gazte Planak laguntza emango du Europar Batasunak jada nabarmendu dituen lehentasunezko eremuetan, eta euskal gazteriaren behar nagusiei erantzungo die. Horrela, gazteen engpleguaren arloak duen garrantzi berezia nabarmentzen da, Europak egiten duen bezalaxe. EBko enplegu-politikaren helburu nagusien artean, nabarmentzekoa da alor hori gehiago sustatzen dela, orientazioaren, aholkularitzaren eta enpresetako praktiken bidez.

Bestalde, aipamen esplizitua egiten zaio, hezkuntzaren arlotik, gazteen eskola-uztearen tasa murrizteari, eta hezkuntzaren, enpresaren, ikerketaren eta berrikuntzaren arteko loturak sendotzearen garrantzia azpimarratzen da. Azkenik, aipatu behar da EBk ikasle-mugikortasuna sustatzen duela, emaitzak indartzeko asmoz. Hartara, EBko hezkuntza- eta prestakuntza-maila guztien kalitate orokorra areagotzen da, bikaintasuna, ekitatea eta gazteen lan-egoeraren hobekuntza uztartuz.

Amaitzeko, Europar Batasunaren gazteentzako estrategiak 2010-2018 urteetarako lankidetza-esparrua zehazten du, helburu nagusi hauekin: gazteentzako berdintasun handiagoa ematen duten aukera gehiago sortzea, hezkuntzan zein lan-merkatuan, eta gazteak dinamizatzea, gizartean partaidetza aktiboa izan dezaten. Horretarako, zortzi jardun -eremu identifikatu dira, Eusko Jaurlaritzak finkatu dituenen oso antzekoak, eta horietan oinarrituz, gazteriarekin lotutako jarduera lehenetsiko da: enplegua eta ekimena, gizarteratzea eta partaidetza, hezkuntza eta prestakuntza, osasuna eta ongizatea, boluntariotza-jarduerak, gazteria munduan eta sormena eta kultura.

## Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016rako III. Gazte Plana: ebaluaziotik ateratako ondorio nagusiak

Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016rako III. Gazte Plana indarrean egon zen hiru urteetan, 200 ekimenetik gora abiarazi ziren urtero, 2 ardatz estrategikoren barruan, eta ardatz horien inguruan, 30 helburu eta 91 jarraibide zehaztu ziren[1]. Ekimen horiek guztiak, multzo gisa harturik, Jaurlaritzak gazteriaren arloan gauzatu dituen ekintza bilduma dira (estrategikoa zein operatiboa), eta barne hartzen dituzte bai argi eta garbi gazte-kolektiboa ardatz dituzten ekimenak bai biztanleria orokorrari zuzendutako beste batzuk.

[1] Egitura estrategikoaren hedadura osoa ikusteko, jo eranskinetara.

## a. Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planaren hedadura eta egitura estrategiko nagusia

Ikuspuntu kuantitatibotik aztertuta, III. Gazte Planak 575 milioi euro inbertitu ditu indarraldian egon den hiru urteetan zehar. Horien baitan, Gazteria Zuzendaritzaren eta Jaurlaritzako beste zuzendaritza batzuen baliabideak sartzen dira, Eusko Jaurlaritzaren estrategia eta jarduketek izaera integratzailea baitute arlo horretan. Bestalde, gazterian argi eta garbi ardaztutako gastuaren ehunekoari dagokionez, inbertitutako 575 milioi euroetatik, % 71 dagokio gastu horri, hau da, 411 milioi euro.

Garatu diren jardueren bolumenari dagokionez, 2014 eta 2016 artean, guztira, 686 jarduera abiarazi dira; hau da, urtean 200 jarduera, batez beste, eta horietatik 430 jarduera (% 62) gazte-kolektibora bideratu dira argi eta garbi.

Ardatz estrategikoak

Plana osatzen duten ardatz estrategikoei dagokienez, horietako bakoitzera bideratu den aurrekontuaren eta jarduera kopuruaren banaketak oreka argia erakusten du. 1. ardatzak (Emantzipazioa eta autonomia), 12 helburu estrategikorekin, aurrekontuaren % 51 jaso du, eta abiarazitako jardueren % 48 hartu ditu. Eta, bestalde, 2. ardatzak (Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa), 19 helburu estrategikorekin, aurrekontuaren % 49 jaso eta jarduketen % 52 hartu ditu barnean.

Jarduteko arloak

Plana osatzen duten arloei dagokienez, honako hauek bereizi behar dira: alde batetik, hezkuntza, enplegu eta etxebizitzaren arloak (Emantzipazioa eta autonomia ardatza osatzen dutenak) eta bestetik, osasuna, gizarte-ekintza, kultura, aisialdia, kontsumoa eta mugikortasun iraunkorraren arloak (2. ardatzaren barruan: «Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa»). Aurrekontuaren ikuspegitik, gizarte-ekintzaren eta hezkuntzaren arloek bideratu dute aurrekontu handiena gazteriarentzat, xede horretarako aurrekontuaren % 79 hartu baitute, eta III. Gazte Planean gauzatutako aurrekontu osoaren % 57.

**Helburu estrategiko nagusiak**

III. Gazte Planean gehien nabarmentzen diren helburu estrategikoen ikuspegitik, horietako bost gailentzen dira erabilitako aurrekontuari dagokionez:

- Gizarte-ekintzaren arloan, 247 milioi euro bideratu dira, guztira, arrisku- edo gizarte-bazterketa egoeran dauden gazteen gizarte-arreta hobetzeko, hau da, planaren aurrekontu osoaren % 43.

- Hezkuntzaren arloan, gizarte- eta genero-desberdintasunen eragina murriztearen alde egin da apustu, baita hezkuntza-sisteman horien erreprodukzioa murrizteko ere. Hala, 124 milioi euro erabili dira xede hori duten ekintzetan.

- Enpleguaren arloan, helburu hauek nabarmentzen dira: gazteen laneratzea hobetzea (66 milioi euroko apustu ekonomikoa) eta prestakuntzaren eta lan-merkatuaren artean lotura handiagoa lortzea (29 milioi euro).

- Azkenik, etxebizitzaren arloan 19 milioi euro erabili dira gazteek etxebizitzak eskuratzeko dituzten aukerak hobetzeko asmoz, zailtasun ekonomikoak dituztenean. Horretarako, etxebizitzen eskaintza handitu da eta lehentasun berezia eman zaio alokairuari.

## b. Emaitzak eta ondorioak

Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planaren emaitzen ebaluazioak helburua hau du: jakitea, planaren indarraldia amaitu ondoren, gazte-kolektiboarengan zer eragin izan duen eta zeintzuk diren oraindik ere landu beharreko lan-esparruak. Hala ere, aipatu beharra dago, funtsean, planaren garapen-urteetan jasotako informazioa hartu dela balorazioa egiteko oinarritzat, eta kasu batzuetan ez dela nahikoa informazio eduki balorazio osoagoa egin ahal izateko (ez zegoelako emaitzaren inguruko informazioa ematen duen adierazlerik, edo ebaluaziorako beharrezkoa den bestelako informaziorik).

Jarraian, informazio hori laburbilduko da, III. Gazte Plana osatzen duten bederatzi arloetako bakoitzaren kasuan:

## ENPLEGUA

Enpleguaren arlotik, gazteen laneratzea hobetzeko helburura bideratu zen baliabideen gehiengoa, enplegua sortuz eta mantenduz, eta horretarako, 15.300 gazte baino gehiagori eskaini zaizkie enplegurako prestakuntza eta lanetik kanpoko praktikak, jasotako prestakuntzarekin lotura duten enpresetan, kolektibo horren laneratze-aukerak areagotzeko. Bestalde, eta gazteen artean espiritu ekintzailea sustatzeko, nabarmentzekoa da 37.000 gazterengana heltzea lortu dela, espiritu ekintzaile hori hezkuntzaren arloko lehen etapetatik sustatzeko hainbat ekimenen bidez.

Gaur egungo egoeraren eraginpean (zehaztasun gehiagorako, jo 2. kapitulura) ondorioztatu denez, gazteen laneratzea errazteko, lanean jarraitu behar da hezkuntza-sistema eta lan-merkatua elkarri hurbildu eta ekintzailetza sustatzeko.

## ETXEBIZITZA

III. Gazte Planari dagokionez, azpimarratzekoa da urtean, batez beste, 35 urte baino gutxiago dituzten 1.180 gaztek jaso dituztela etxebizitza hutsen alokairua sustatzeko programen onurak. Hala ere, euskal gazteak nahi baino sei urte beranduago emantzipatzen dira, eta etxebizitzen kostu gero eta altuagoak gazteek independizatzeko duten itxaropena zailtzen du. Etxebizitzaren arloan proposatutako gomendioen artean, bizitoki-eredu berriak garatzeko esfortzuak mantentzeko beharra nabarmentzen da.

## HEZKUNTZA

Hezkuntzaren arlotik, eta aurrekontuari dagokionez, hezkuntza-sisteman gizarte-desberdintasunak murriztearen eta prebenitzearen aldeko apustua egin da. Hala, III. Gazte Planean, unibertsitateko goi-mailako titulua duten 1.254 gazteri eta doktoretza duten 215 gazteri lagundu zaie, behar bereziak dituzten 10.199 ikasle salbuetsi dira unibertsitateko prezio publikoetatik eta irakasleentzako prestakuntza-programak eman zaizkie, kulturartekotasunari buruz, 10.181 onuraduni (irakasleak, ikasleak eta ikastetxeak tarteko).

III. Gazte Planaren ebaluaziotik ateratako gomendioetan honako hauek sartzen dira: hezkuntza-sisteman gizarte-desberdintasunek dituzten eraginak murriztera bideratutako ekimenak mantentzea, euskara hezkuntza-arloan zein aisialdian sustatzea, balioen inguruan etengabeko prestakuntza jasotzea eta teknologiari eta ikerketari lotutako bokazioak bultzatzea.

## OSASUNA

Osasunaren arloan, horretarako aurrekontuaren % 68rekin, osasunari lotutako arrisku-jokabideak murrizteko apustua egin da, gazteei eragiten dieten esparru guztietan. Jokabide horien artean honako hauek bereiz daitezke: alkoholaren, tabakoaren eta drogen kontsumoa, sexu-transmisiozko infekzioak eta nahi gabeko haurdunaldiak, eta jarduera fisikoaren sustapena. Horretarako, 29.500 ikaslerengana heltzea lortu da tabakismoaren prebentziorako programen bidez; 3.780 ikaslerengana, adingabeen artean alkoholaren kontsumoa murrizteko programen bidez; eta 7.000 ikasle baino gehiagorengana, sexu-transmisiozko infekzioak eta nahi gabeko haurdunaldiak prebenitzeko garatu eta banatu diren giden bitartez.

Horiek horrela, komenigarritzat jo da bizitza osasuntsurako ohitura eta jokabideak sustatzeko ildoa lantzen jarraitzea, eta gazteen bizitza afektibo eta emozionalaren testuinguruan lan egiteko neurriak sustatzea.

## GIZARTE-EKINTZA

Gizarte-ekintzaren arloko lanari dagokionez, bereziki nabarmena da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ematen dela. Zentzu horretan, 2016an, laguntza hori jasotzen duten gazteen % 2 zegoen benetako pobrezia- eta bazterkeria-egoeran. Bestalde, genero-berdintasunari dagokionez, areagotu egin da bikotean gerta daitezkeen indarkeria moten larritasunaren inguruko kontzientzia, eta hazten ari dira erantzunkidetasuna eta berdintasunezko banaketa, oso motel bada ere.

Hala, ondorioztatu da mantendu eta indartu egin behar direla baztertuak izateko arriskuan dauden gazteei arreta emateko programak, eta aurrera egin behar dela emakume eta gizon gazteen arteko berdintasuna lortzeko, lanaren nahiz familiaren esparruan.

## KONTSUMOA

Kontsumoaren arloan, Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuak hainbat tailer eta prestakuntza-jarduera egin ditu, eta gogobetetze-maila handia lortu dute (10 puntutik 8,3). Haien bidez, gazteen artean kontsumo jasangarria sustatu da, % 55,8k soilik kontsumitzen baitu modu jasangarrian.

Beharrezkotzat jotzen da hezkuntza-programa horiek kontsumo arrazionalaren arloan mantentzea eta gazteen arteko kontzientzia sozialaren garapenean ardaztutako politikak eta jarduerak sustatzea.

## KULTURA

Okupazio nagusia zein den, irakurtzeko ohiturak behera egiten du; hori dela eta, kulturaren arloko jarduketa-eremu nagusien artean, nabarmentzekoa da udalerriei 150 diru-laguntza baino gehiago eman zaizkiela, haurren eta gazteen artean irakurketa eta liburutegi publikoen erabilera sustatzeko ekintzak egin ditzaten. Era berean, teknologia digitalak hedatzeko lan egin da, kulturaren eskuragarritasuna eta kontsumoa sustatzeko eta gazteek, eskola-esparrutik, kultur edukien garapenean parte har dezaten.

Etorkizunari begira, hainbat gomendio egiten dira gazteek kultura eskuratzeko aukera handiagoak izan ditzaten, eta kulturaren sorkuntza, ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko, arreta berezia jarriz euskararen bultzadari.

## MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Mugikortasun jasangarriaren arloak mugikortasun alternatiboko modu berriak bultzatzen lagundu du, Moveuskadi atariaren bitartez. Hartara, 6.800 bidai partekatu dira 2014 eta 2016 artean; hau da, batez beste lau lagun bidai bakoitzeko. Horrela, beste faktore batzuen artean, garraio jasangarrirako bitartekoen, garraio publikoaren eta bizikleten eguneroko erabilera igo da.

Etorkizunari begira, gazteen artean garraiobide jasangarrien erabilera sustatuz gero, jarduera fisiko osasungarria azpimarratzeko eta indartzeko aukera egongo da.

## AISIALDIA

Aisialdiaren arloak 8.700 ikasle baino gehiago mugiarazi ditu, gazteen artean kirola sustatzeko, Eskolarteko Kirol Jokoak antolatuz eta Unibertsitateko Kirol Jokoak antolatzeko lankidetzaren bitartez. Bestalde, aisialdirako aukera tradizionala teknologia berriekin lotutako jarduera berriekin osatu da.

Modu horretan, III. Gazte Planaren emaitzen ebaluaziotik ateratako gomendioen arabera, gazteen artean kirol-jarduera sustatu behar da, eta gazteentzako jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen eskaintza zabaldu behar da, euskararen erabilerari arreta berezia jarrita.

## Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuekin bat egitea eta sinergiak

Gazte-politikak formulatzean, kontuan hartu behar da gazte-kolektiboaren egoeraren errealitatea eta ezaugarriak jorratzeko helburua, Euskadirako formulatzen diren planteamendu orokorrekiko koherentzia mantentzeko. Zeharkako gazte-plana euskal gazte-kolektiboaren ongizatea hobetzeko tresna eraginkorra izan dadin, hori lantzean, zalantzarik gabe, gazteriarekin erlazio zuzena duten politika guztiak identifikatu behar dira XI. Legealdiko (2016-2020) Gobernu Planetan. Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren helburua da Jaurlaritzaren estrategia horietarako «aterki» izatea, gazte-kolektiboaren inguruko erronkak jasotzen dituzten kasuetan. Ez da ezer asmatu nahi, baizik eta tresna komun eta eraginkor bat finkatu eta sortu.

Era berean, gazteen arloan eragina duten Eusko Jaurlaritzaren politikak aurkitzeko, estrategia guzti horiek koordinatzeko eta erlazionatzeko ahalegina egin behar da, eta gazteriaren ikuspuntutik egin behar da horien jarraipena.

Plan hau Eusko Jaurlaritzaren beste plan eta ekimen batzuekin bat dator, batez ere, jarraian adierazten direnekin [2]:

- XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa (2016-2020)
- 2020rako Enpleguaren Euskal Estrategia
- 2017-2020rako Enplegu Plan Estrategikoa
- 2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Estrategia
- 2017-2020rako Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru-programa
- EAEko 2020rako Ekintzailetzako Erakunde Arteko Plana
- 2018-2020 aldirako Etxebizitza Gidaplana[3]
- Heziberri 2020
- 2015-2018rako IV. Unibertsitate Plana
- Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko 2016-2020rako II. Plana
- 2017-2020rako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza programa osagarria
- 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana
- Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana
- 2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP)
- Mugiment 2020
- 2013-2020rako Euskadirako Osasun-politikak
- 2017-2021rako Adikzioei buruzko VII. Plana
- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen 2016-2019rako Plan Estrategikoa
- Kontsumobideren 2014-2018ko Plan Estrategikoa
- 2020rako Mugikortasun Jasangarriaren Gida Plana

Koadro honetan jaso dira Eusko Jaurlaritzaren planen eta ekimenen artean ematen diren sinergia estrategikoak, zeinak IV. Gazte Plana osatzen duten 11 jarduketa-esparruekin identifikatzen baitira. Kolore sortaren bidez bien arteko sinergiaren maila irudikatu da; zenbat eta estuagoa programaren eta esparruaren arteko erlazioa, orduan eta biziagoa kolorea. Horrela:

- Tonu laranjak erlazio-maila handia adierazten du; hau da, bi planek estrategia berbera partekatzen dute ardatzetatik, eta hartara, IV. Gazte Planak «aterki» estrategiaren funtzioa betetzen du kolektibo gaztearentzat.
- Tonu horiak erdibideko erlazioa adierazten du. Hau da, IV. Gazte Planak eta aztertzen den plan estrategikoak helburu estrategiko komunak dituztela esan nahi du.
- Tonu berdeak erlazio txikiagoa adierazten du, eta, batez ere, ildo estrategiekin eta jarduketekin du zerikusia.
- Zuriz irudikatzen diren hutsuneek adierazten dute ez dagoela erlaziorik edo jarduketa-esparru zehatz batean ez dagoela sinergiarik.

---

[2] IV. Gazte Plan hau egin den bitartean, beste plan batzuk landu dira (2018-2020rako Etxebizitza Gida Plana, 2017-2021erako Gizarteratzeko IV. Euskal Plana, etab.), eta horiek espresuki aipatzen ez diren arren, urteko programazioan kontuan hartu beharko dira, funtsean.

[3] Etxebizitza Gida Planaren aurrerapen batean oinarrituz lan egin da.

| 2017-2020 aldian indarrean dauden EJren planak | 1. ARDATZA: Emantzipazioa eta autonomia | | | 2. ARDATZA: Ongizatea eta bizitza osasungarria | 3. ARDATZA: Berdintasuna eta gizarteratzea | 4. ARDATZA: Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa | | | 5. ARDATZA: Sozializazioa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Enplegua | Etxebizitza | Hezkuntza | Osasuna | Gizarte-ekintza | Partaidetza | Kontsumoa | Mugikortasuna | Kultura | Aisialdia | Kirola |
| XI. Gobernu Programa (2016-2020) | | | | | | | | | | | |
| 2013-2020rako Euskadirako Osasun-politikak | | | | | | | | | | | |
| 2017-2021erako Adikzioei buruzko VII. Plana | | | | | | | | | | | |
| 2018-2020 aldirako Etxebizitza Gidaplana | | | | | | | | | | | |
| Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko 2016-2020rako II. Plana | | | | | | | | | | | |
| 2015-2018rako IV. Unibertsitate Plana | | | | | | | | | | | |
| lHeziberri 2020 | | | | | | | | | | | |
| 2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Estrategia | | | | | | | | | | | |
| 2017-2020rako Enplegu Plan Estrategikoa | | | | | | | | | | | |
| 2020rako Enpleguaren Euskal Estrategia | | | | | | | | | | | |
| EAEko 2020rako Ekintzaileetzako Erakunde Arteko Plana | | | | | | | | | | | |
| 2017-2020rako Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru-programa | | | | | | | | | | | |
| 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana | | | | | | | | | | | |
| Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen 2016-2019rako Plan Estrategikoa | | | | | | | | | | | |
| 2017-2020rako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza programa osagarria | | | | | | | | | | | |
| Kontsumobideren 2014-2018ko Plan Estrategikoa | | | | | | | | | | | |
| 2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) | | | | | | | | | | | |
| 2020rako Mugikortasun Jasangarriaren Gida Plana | | | | | | | | | | | |
| Mugiment 2020 | | | | | | | | | | | |

I. eranskinean, programa eta estrategia horien analisi zehatza aurki daiteke, baita IV. Gazte Planarekin partekatzen dituzten helburuekin eta ildoekin zer erlazio duten ere.

## IV. GAZTE PLANA EGITEKO PROZESUAREN FASEAK

**Gazte Planeko informazioaren analisia**

- ✓ III. Gazte Plana ebaluatzea
- ✓ Gazteriaren diagnostikoa
- ✓ Gazteriaren arloko beste esperientzia batzuk erreferentzia gisa
- ✓ Gobernuaren gainerako Plan Estrategikoen analisia

**Planteamenduaren diseinua eta banaketa**

- ✓ Diagnostiko estrategikoa: abagune-esparruak identifikatzea
- ✓ WOKA motako elkarrizketak eta lan-saioak egitea lehentasunak alderatu eta identifikatzeko

*- Lanerako 4 tailer, 78 parte-hartzaileren parte-hartzearekin*

*- Aldian behingo kontrasteak Gazteriaren Zuzendaritzarekin*

*- Parte hartu duten entitate eta erakundeak:*

- *Sailburuordetzen bilera*
- *Zuzendarien WOKA – tailerra*
- *EGK Euskadiko Gazteria Kontseiluaren WOKA – tailerra*
- *Aldundien, 3 hiriburuetako udalen eta EUDELen bilera*

**IV. Gazte Plana**

- ✓ 2018-2020 aldirako IV. Gazte Planaren azken dokumentua
- ✓ IV. Gazte Plana gizarteratzea

## Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren lanketa-prozesua

Plan hau lantzeko, parte-hartzeko metodologia izan da oinarri, jarraian ikus daitekeen bezala.

Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planaren (2014- 2016) indarraldia amaitzean, haren ebaluazioa egin da, emaitzen teknika kuantitatibo eta kualitatiboen bidez. Ebaluazio-prozesua, funtsean, urteko planen jarraipen- eta ebaluazio-txostenetan oinarritu da, estrategia hedatzeko oinarrizko tresna gisa, baita zuzendaritzekin egin diren bileretan ere, hori kontrastatu eta «baliozko ekarpenak» berrikusteko.

Ebaluazio horretan oinarrituz, gogoetarako aldi bat ireki da gazteriaren arloko estrategiaren oinarrizko ildo berriak zehazteko, gazteriaren arloko euskal estrategiari (2020) jarraituz [4]. Horrekin batera, gazte-kolektiboaren errealitatea eta azken urteetan izan duen bilakaera aztertu dira, eta, horretarako, Euskadiko gazteen egoeraren 2017ko diagnostikoan aztertutako alderdi guztiak berrikusi dira [5]. Horrekin guztiarekin, aurretik zehaztu egiten dira kontzeptu-esparrua eta IV. Gazte Planaren egitura estrategikoa osatuko duten helburu eta ildo estrategiko nagusiak.

---

[4] Gazteriaren arloko Euskal Estrategia (2020) [linean] Hemen eskuragarri: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazte_politikak_emancipacion/eu_gazte/adjuntos/marko_orokorra_gazteplana_2020_e.pdf [Kontsulta: 2017/10/21]

[5] Gazteen Euskal Behatokiak egina

Plana diseinatu bitartean, hainbat kontraste-bilera egin dira Gazteria Zuzendaritzarekin, baita hainbat kontraste-tailer ere, horietako batzuk World Kafe motakoak, Eusko Jaurlaritzako, Sailburuordetzetako, Zuzendaritzetako eta Pertsonal Teknikoko arduradun politiko eta teknikoekin eta Euskadiko gazteria Kontseiluarekin, hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiekin, hiru hiriburuetako udalekin eta Eudelekin. Ikus daitekeen bezala, parte-hartze bidezko metodologia erabili da plan hau garatzeko, eta, haren bidez, gazteen artean ikusi diren erronkak zehaztu eta osatu dituzte tarteko organismoek.

## Planaren egitura

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana sei kapitulutan egituratu da, hainbat eranskinekin:

**a. #01 Sarrera.** Plana testuinguruan kokatzeko helburua du, bai Eusko Jaurlaritzak gazte-politikei emandako babesaren esparru historikoan bai XI. Legealdiaren testuinguruan, ekintza publikoan lehentasuna duen kolektibo gisa kokatzen baitu gazteria. Plan hau lantzeko irizpideen artean, Jaurlaritzako beste plan batzuekin bat etortzea eta sinergiak egotea bilatu da. Hori dela eta, legealdi honetako estrategia eta plan guztiak aztertu dira, euskal gazteriari nolabait zuzenduta dauden horiek identifikatzeko, IV. Gazte Planak Gobernuko beste estrategia batzuen aterki gisa jokatzeko aukera izan dezan, estrategia horiek gazteen inguruko erronkak jaso eta lantzen dituzten kasuetan. Azkenik, plana lantzeko jarraitu den lan- eta partaidetza-prozesua jasotzen da.

**b. #02 Euskadiko Gazteria 2017. Egoera eta etorkizuneko erronkak**. Gazte-kolektiboaren egoeraren egungo panoramika egiten du, hainbat arlo eta gairi dagokionez (enplegua, etxebizitza, hezkuntza, etab.). Oinarri gisa, Gazteen Euskal Behatokiak gazteriaren inguruan 2017rako egin duen azterketa diagnostikoa hartu da. Azterketa horri esker, euskal gazteek gaur egun dituzten erronkak identifikatzen dira, etorkizunari begira.

**c. #03 Estrategia-esparrua.** Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren printzipioak eta kontzeptu-esparrua zehazten ditu. Horien artean, hainbat kontzeptu garatzen dira, plana, helburuak eta ekintzak garatzeko esparru gisa balio dutenak.

**d. #04 Helburuak, ildoak eta lehentasunezko ekimenak**. Plan estrategikoa hedatzen da; helburu eta ildo estrategiko bakoitzaren arrazoiak deskribatzen dira, kasuan-kasuan, eta helburu estrategiko bakoitzari erantzuna emateko zer ekimen edo jarduera egin behar diren identifikatzen da.

**e. #05 Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren gobernantza, ebaluazioa eta jarraipena.** Planean zehazten diren lehentasunezko ekimenen hedapena eta jarraipena egiteko modua zehazten da, baita urteko programazio xehearen prozesua ere. Azken horrek urteko ekimenak zehaztu behar ditu, baita urtero esleitzen den aurrekontua ere.

**f. #06 2020 euskal estrategiaren xede-adierazleen taulari egindako ekarpena.** Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana euskal estrategiaren aterkipean landu denez, kapitulu honetan, estrategia globalaren adierazlea(k) aztertzen dira ardatz eta helburu estrategiko bakoitzarentzat, horren hedapenaren bitartez adierazleei laguntzeko.

**g. #Eranskinak.** Planean aipatzen diren gai interesgarri zehatz batzuen inguruko xehetasunak.

# #02

## Euskadiko Gazteria 2017. Egoera eta etorkizuneko erronkak



# 2. Euskadiko Gazteria 2017. Egoera eta etorkizuneko erronkak

Kapitulu honetan, Euskadiko gazteriaren egungo egoera aztertzen da, gazteriaren egungo profila osatzen duten alderdiak behar bezala identifikatzea ahalbidetzen duen ikuspegia izateko eta, horrenbestez, bizi-proiektuak eraikitzean gainditu behar dituzten erronkak ikustarazteko.

Azterketa honek Gazteen Euskal Behatokiak landutako txostenean jasotzen diren ondorio eta datu nagusiak laburbiltzen ditu, Eusko Jaurlaritzaren 2020rako IV. Gazte Plana lantzeko abiapuntu gisa. Informazio gehiago eskuratzeko, «Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa 2017» argitalpen osora jo behar da.[1]

## Joera demografikoak

**Behera egiten jarraitzen du Euskadiko biztanleria gaztearen proportzioa, biztanleria osoaren aldean**

Faktore hauek barnebiltzen ditu biztanleriaren zahartzeak: jaiotza-tasa txikia, beheranzko joera duen heriotza-tasa, eta, azkenik, bizi-itxaropen gero eta luzeagoa. Fenomeno hori Europa osoan ari da gertatzen, eta luze eta zabal dokumentatu eta aztertu da.

Euskadiko biztanleria osoaren hazkunde-maila egonkorra izan da, baina biztanleria gazteak beherakada handia eta konstantea izan du azken 20 urteotan.

2001etik 2016era, % 37 jaitsi da Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen kopurua. 2016ko urtarrilaren 1ean, 2.171.886 biztanle zeuden Euskadin, eta horietatik 283.517k (% 13) 15 eta 29 urte bitartean zituzten: % 50,9 gizonak ziren, eta % 49,1 emakumeak.

Demografia-joeren ondorioz, gaztetasun-indizea (hau da, gazteen proportzioa, biztanleria osoari dagokionez) etengabe jaitsi da Euskadin azken urteotan: 2001ean % 21,6koa zen, eta 2016an, berriz, % 13,1ekoa. Balio hori dela eta, Europako eskualdeetako baxuenetakoa da Euskadiko gaztetasun-indizea, eta berez kontinente zahartua da Europa: hain zuzen, EB28ko batez besteko gaztetasun-indizea % 17,4 da.

**0.1 grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera, Euskadiko biztanleria osoarenaren aldean (hazkunde- eta gutxitze-ratioak)**




Iturria: Geuk egina, EUSTATek emandako datuak oinarri harturik (Biztanleen Udal Estatistika)

**0.2. grafikoa. Euskadiko 1976ko eta 2016ko biztanle-piramideen arteko konparazioa**




Iturria: Eustat

[1] Gazteen Euskal Behatokia (2017): Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa 2017 [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/presentacion_publicaciones/eu_10717/adjuntos/Diagnostico-2017GP_2017_05_03_eus.pdf [Kontsulta: 2017/11/14]

### Euskadin bizi diren gazte atzerritarren kopuruak behera egin du

Euskadin bizi diren gazteen % 12,7 atzerrian jaiotakoa da. Euskadiko gazte atzerritarren kopurua asko handitu zen 2001-2011 aldian, 3.365 lagun izatetik 45.933 izatera igaro baitzen, baina azken bost urteetan % 21 jaitsi da kopuru hori (35.934 lagun dira orain). Beherakada hori faktore hauen konbinazioak eragin du: batetik, gazte atzerritar gutxiago datoz Euskadira, eta bestetik, Euskadin bizi diren atzerritarrak beste leku batzuetara emigratzen ari dira.

Izan ere, atzerritarren gaztetasun-indizearen bilakaerari erreparatzen badiogu, eta Euskadiko biztanleria osoaren gaztetasun-indizearen bilakaerarekin alderatzen badugu, ikus dezakegu gazteen ehunekoak bietan ala bietan egin duela behera azken 10 urteetan. Atzerritarren artean gazteen proportzioa hamar puntu handiagoa da, biztanleria osoarekin alderatuz gero (% 24,1 eta % 13,1, hurrenez hurren), baina indize horrek beheranzko joera agertzen du bi kasuetan.

### Ama lehen aldiz izateko batez besteko adina 30 urtetik gorakoa izaten jarraitzen du

Euskadin, ia azken 20 urteotan (2000tik, hain zuzen) 30 urtetik gorakoa izan da ama lehen aldiz izateko batez besteko adina. Gainera, adierazle hori bere balio handienera iritsi zen 2015ean: 31,8 urte.

Datu hori are adierazgarriagoa da ama gazteen nazionalitateari erreparatzen badiogu, espainiar nazionalitatea dutenen artean 32,4 urte baita batez besteko adina. Emakume gazte atzerritarren artean, aldiz, 27,7 urte da ama lehen aldiz izateko batez besteko adina.

## Enplegua

### Gazteen jarduera-tasa % 47,7ra arte jaitsi da

Gazteen jarduera-tasak 16 eta 29 urte bitarteko biztanleen taldean lanean ari diren edo lana egiteko prest dauden pertsonen ehunekoa neurtzen du. Tasa horren jaitsierak ikustera ematen du 30 urtetik beherakoen kolektiboaren prestakuntza-aldia luzatu dela.

25 urte bete aurretik ikastea da gazteen okupazio nagusia, eta adin horretatik aurrera, gehienak lanean ari dira.

### Enplegu-tasak zertxobait egin du onera, baina krisiaren aurreko balioetatik urrun dago oraindik

Azken hamarkadan, gazte landunen ehunekoa (hau da, lana dutenen ehunekoa) izugarri jaitsi da. 2006an, gazteen % 54,9 ari zen lanean, baina 2017an (III. hiruhilekoa), gazteen % 39,5ek soilik du lana. 2013an izan zen gazteen enplegu-tasarik txikiena (% 35,5), eta ordutik hona, balio horrek zertxobait egin du hobera.

**0.3 grafikoa. Euskadiko gaztetasun-indizearen bilakaera (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen datuak oinarri harturik (Biztanleen Udal Estatistika)

**0.4 grafikoa. Gaztetasun-indize orokorraren eta atzerriko biztanleen gaztetasun-indizearen bilakaera Euskadin (%)**




Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal-estatistika)

**1.1 grafikoa. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio nagusia, adin taldeen arabera (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskal Gazteria 2016, datuen aurrerapena)

**1.2 grafikoa. 16 eta 29 urte bitarteko biztanle gazteen langabezia-tasaren bilakaera, eta biztanleena, guztira (%)**




| | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | III. hiruhil. 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 16-29 urte | 7,3 | 5,7 | 7,3 | 16,5 | 18,4 | 19,1 | 23 | 29 | 29,5 | 27,9 | 23,7 | 17,2 |
| Biztanleria, guztira | 4,1 | 3,3 | 3,8 | 8,1 | 9,1 | 10,8 | 11,8 | 15,1 | 16,1 | 15,3 | 13,4 | 11,5 |

Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

### Langabezia-tasak behera egin du, % 20tik behera

Azken hamarkadan, gazteen langabezia-tasa biztanleria osoaren langabezia-tasaren bikoitza izatera iritsi da, baina 2015etik, nabarmen murrizten ari da bi tasa horien arteko aldea. 2017ko III. hiruhilekoan, 5,7 puntukoa da alde hori.

2007tik, emakume gazteen langabezia-tasak gizonenak baino txikiagoak dira (2016an, % 21,9 eta % 25,5, hurrenez hurren). Gizonek baino prestakuntza-maila handiagoa duten emakume-belaunaldi bat lan-merkatuan sartu izana izan daiteke diferentzia horren arrazoia; izan ere, adinez nagusiagoa den taldearekin alderatuz gero, talde horretan gizonena baino altuagoa da emakumeen langabezia-tasa. 2017ko III. hiruhilekoan, hala ere, atzera egin du joera horrek, eta gizonezkoena (% 14,5) baino handiagoa da emakumeen langabezia-tasa (% 20,6).

Euskadiko gazteen langabezia-tasa ia hamar puntu txikiagoa da Espainiakoa baino, baina Europako batezbestekoa baino lau puntu handiagoa da oraindik ere.

### Gazte landunen hileko batez besteko soldata 1.000 euro ingurukoa da

Lanaldi osoan jarduten dutenek hilean 1.195 euro kobratzen dituzte batez beste, eta lanaldi partzialean jarduten dutenek, berriz, hilean 605 euro.

Emakumeek, batez beste, gizonek baino gutxiago kobratzen dute (867 euro eta 1.125 euro, hurrenez hurren). Lanaldi partzialaren eragina alde batera uzten badugu –hedatuago dago emakumeen artean– eta lanaldi osoan jarduten dutenak soilik hartzen baditugu kontuan, ikusten da soldata-aldeak ez direla desagertzen: gizonek, batez beste, 1.242 euro kobratzen dituzte, eta emakumeek, berriz, 1.119 euro.

Oro har, soldatek hobera egin dute zertxobait 2013ko datuekin alderatuz, baina gizonen batez besteko soldata igo da soilik; izan ere, emakumeen lanaldi partzialen ondorioz, haien batez besteko soldatak behera egin du aurreko urteekin alderatuz.

### Lan egiten dutenen erdiak soilik du bere prestakuntzarekin lotutako lana

Lan egiten duten gazteen % 52,7k dio bere lanak lotura handia edo nahiko handia duela egin dituen ikasketekin. Aldiz, ia erdiak (% 46,7) adierazten du egiten duen lanak lotura txikia duela edo ez duela loturarik egin dituen ikasketekin.

### Norberaren konturako enplegua urria da, eta autoenplegua baliatzeko jarrera ere minoritarioa da

Lana duten gazte gehienek besteren kontura egiten dute lan (% 93,6). Langile autonomo nahiz enpresaburu, norberaren kontura aritzen direnen ehunekoa txikia da (% 6,2).

1.3 grafikoa. 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, Euskadin, Espainian eta EB28n (%)




| | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 (III. hiruhil.) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskadi | 7,3 | 5,7 | 7,3 | 16,5 | 18,4 | 19,1 | 23 | 29 | 29,5 | 27,9 | 23,7 | 17,2 |
| Espainia | 13,5 | 12,9 | 18,2 | 28,5 | 31,7 | 34,6 | 40,3 | 42,4 | 39,7 | 36,7 | 33,3 | 29,7 |
| EB28 | 13,6 | 12 | 12 | 15,5 | 16,6 | 17 | 18,3 | 18,9 | 17,7 | 16,1 | 14,7 | 13,2 |

Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA) eta EUROSTAT (Gazteen estatistikak)

1.4 grafikoa. 16 eta 29 urte bitarteko gazte landunen batez besteko soldata, sexuaren eta lanaldi motaren arabera (€)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteria eta enplegua 2015)

1.5 grafikoa. Autoenpleguan aritzeko prest dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteria eta enplegua 2015)

Lana duten 20 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, % 6,3k dihardu bere konturako lanean. Ehuneko hori eta EB28ko herrialdeetako batezbestekoa oso antzekoak dira.

Autoenpleguarekiko jarreran ez da aldaketa handirik egon 2011. urteko datuen aldean, eta 2013an soilik izan zuen igoera txiki bat; hain zuzen ere, % 33,8ra iritsi zen urte hartan (hamarkadako datu okerrenak izan ziren lan-egoerari buruzko adierazleetan).

## Etxebizitza

**Euskadiko gazteek beren gurasoekin bizitzeari uzten dioten batez besteko adina Europako altuenetako bat da**

Euskadiko biztanleen batez besteko emantzipazio-adina 30 urtekoa da, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek emantzipatzeko egokitzat jotzen duten adina baino ia sei urte gehiago. Batez besteko emantzipazio-adin hori lau urte handiagoa da Europako batezbestekoa baino (26,1 urte).

**18-34 urteko pertsonen taldean, emantzipazio-tasa % 40,9 da**

25 urte bete aurretik, Euskadiko gazteen % 5,5 baino ez daude emantzipatuta; 25-29 urteko tartean, % 39,5; eta 30-34 urteko tartean, berriz, gehienak emantzipatuta daude (% 75,3). 18-34 urtekoen taldean, gehiago dira emakume emantzipatuak (% 47,0) gizon emantzipatuak baino (% 34,8).

**Etxebizitzaren prezioak behera egin badu ere, gazteentzat, emantzipatzeko arazo nagusia etxebizitza garesti egotea da oraindik ere**

2015ean, batez besteko soldataren parekoa duen soldatapeko pertsona gazte batek soldataren % 53,4 erabili behar zuen hipoteka-mailegu baten lehen kuota berak bakarrik ordaintzeko, etxebizitza libre bat urte horretan adierazitako batez besteko prezio horretan erosi nahi bazuen. Alokatzea hautatuz gero, hileko gastua handiagoa izango litzateke oraindik ere, pertsona horrek soldataren % 63,8 erabili beharko bailuke merkatu libreko pisu baten alokairu-errenta ordaintzeko.

Zifra horiek askoz handiagoak dira finantza-erakundeek kredituak emateko aholkatzen duten gehieneko zorpetze-maila baino (soldataren % 30).

**Bestalde, gehiengoa dira diru-sarrera propioak izateko zailtasuna beren emantzipaziorako oztopoa izan dela dioten pertsona gazteak.**

**Ehun gaztetatik ia batek lortzen du urtean etxebizitza publiko bat**

Etxebiden izena emanda dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 51,5ek alokairuko etxebizitza eskatzen du, eta % 48,5ak, berriz, etxebizitza jabetzan eskuratu nahi du.

**2.1 grafikoa. 18 eta 34 urte bitarteko herritarren emantzipazio-tasa, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak (Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015)

**2.2 grafikoa. 18 eta 34 urte bitarteko soldatadun batek hileroko hipoteka-kuota edo alokairu-errenta bere kabuz ordaintzera bideratu beharko lukeen soldata-ehunekoaren bilakaera (%)**




| | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Erosketa | 98,9 | 94,4 | 71,5 | 64,4 | 70,6 | 66,8 | 64,1 | 60,1 | 53,4 |
| Alokairua | 69,2 | 69,5 | 62,5 | 64,7 | 63,5 | 61,6 | 60,5 | 61,6 | 63,8 |

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak (Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015)

**2.3 grafikoa. 18 eta 34 urte bitarteko pertsonak emantzipatzeko zailtasun nagusiak 2015ean, emantzipazio-egoeraren arabera (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma)

Etxebiden etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa izena emanda dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen kopuruak behera egin du azken urteotan: 66.700 ziren 2009an, eta 46.255, berriz, 2013an. Etxebizitza babestuaren eskatzaile guztien artean zuten proportzioak ere behera egin du (eskatzaile guztien % 59,6 ziren 2009an, eta % 43,8, berriz, 2013an).

Etxebizitza babestu baten esleipendunen kopuru absolutuak ere behera egin du 18-34 urtekoen taldean: 4.968 ziren 2009an, eta 3.184, berriz, 2013an. Hala ere, kontuan izan behar da biztanle gazteen kopuruak behera egin duela azken urteotan; horregatik, etxebizitza babestua esleitu zaien gazteen proportzioa ez da asko aldatu adin-tarte horretako gazte guztiekiko.

Nolanahi ere, bereizi egin behar dira, batetik, urte jakin batean etxebizitza babestua esleitzen zaien pertsonen kopurua, eta, bestetik, etxebizitza babestuan bizi diren gazteen ehunekoa. 2015ean, emantzipatutako 18 eta 34 urte bitarteko hamar lagunetik batek zioen etxebizitza babestu batean bizi zela.

**Emantzipatutako bost pertsona gaztetatik batek gehiegizko ahalegin ekonomikoa egin behar du hipotekaren edo alokairu-errentaren ordainketari aurre egiteko**

2015ean, 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen % 21,3k zioen etxeko diru-sarreretatik % 40 baino gehiago erabiltzen zituela hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko. Hori gehiegizko ahalegin ekonomikoa egin behar izatea da. Gehiegizko ahalegin ekonomikoa egin behar dutenen ehunekoa antzekoa da 2015ean eta 2013an (% 21,4), eta behera egin du 2011ko ehunekoaren aldean (% 25,9).

## Hezkuntza

**Euskadin, eskola-uzte goiztiarraren tasak behera egiten jarraitzen du**

Eskola-uztearen tasa goiztiarra, Euskadin, % 7,5 da, Espainiako batezbestekoa (% 21,9) eta EB28ko batezbestekoa (% 11,1) baino askoz beherago.

**20 eta 24 urte bitartekoen artean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko mailetako graduazio-tasak azken 15 urteetako baliorik gorena izan du 2014an**

Bigarren Hezkuntzako graduazio-tasa egonkorra da, eta azken 10 urteetan, % 80 ingurukoa izan da urtero.

Adierazle hau Espainiakoarekin alderatzen badugu, ikus dezakegu Euskadikoa (% 85,9) Espainiakoa baino 20 puntu altuagoa (% 65,8) dela, baita EB28koa baino zertxobait altuagoa ere (% 82,3).

**2.4 grafikoa. Babestutako etxebizitzen eskatzaile edo esleipendun diren 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoaren bilakaera, adin horretako pertsonen guztizko kopuruari dagokionez (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren (Biztanle gazteak eta etxebizitza-beharrak EAEn 2014) eta EUSTATen biztanleria datuak oinarri hartuta

**2.5 grafikoa. Gehiegizko ahalegin ekonomikoa egin behar duten eta etxebizitzaren gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma)

**3.1 grafikoa. Eskola-uzte goiztiarraren tasaren bilakaera 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)**




| | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | 12 | 12,4 | 13,9 | 12,7 | 10,8 | 9 | 7,8 | 8,5 | 7,5 |
| Gizonak | 15 | 15,2 | 16,6 | 16,6 | 12,5 | 8,7 | 8,2 | 8,8 | 8,2 |
| Emakumeak | 8,5 | 9,3 | 10,9 | 8,6 | 8,9 | 9,3 | 7,2 | 8,2 | 6,8 |

Iturria: EUSTAT, (2020 Europa adierazleak)

**3.2 grafikoa. Goi-mailako hezkuntzako graduazio-tasaren bilakaera 30 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)**




| | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | 37,8 | 38,7 | 38,7 | 41,3 | 43,5 | 43,1 | 44,2 | 42,7 | 47,5 |
| Gizonak | 30,6 | 29 | 29,6 | 32 | 34,6 | 36 | 36,9 | 36,7 | 40,7 |
| Emakumeak | 45,6 | 48,7 | 47,5 | 51,1 | 52,1 | 50,3 | 51,8 | 52,1 | 58 |

Iturria: EUSTAT (Euskadi 28en EBn)

## 30 eta 34 urte bitartekoen taldean, goi-hezkuntzako titulazio-tasa % 50 ingurukoa da

Goi-hezkuntzako graduazio-tasan (unibertsitate-ikasketak edo goi maiako graduko prestakuntza-zikloak), tarte handia dago gizonen eta emakumeen artean, emakumeen alde, eta horrela izan da azken 10 urteetan. 2006an, gizonen graduazio-tasa % 30,6 zen, eta emakumeena, berriz, % 45,6. 2014an, gizonen tasa % 40,7ra iritsi zen, eta emakumeena, berriz, % 58ra.

## Gizon gazteen zientzia eta teknologiako graduazio-tasa emakume gazteena baino altuagoa da

Goi-hezkuntzako titulazio-tasa nesken artean askoz handiagoa bada ere, zientzia eta teknologiako graduazio-tasaren kasuan guztiz kontrakoa gertatzen da. Gainera, joera hori finkatuta dago, eta ez da apenas aldatu azken 10 urteetan. Aldi horretan, tasa horrek erakusten du mutilek neskek baino gehiago jotzen dutela ikasketa zientifiko eta teknikoak egitera.

Adierazle horrek Espainiako estatuan duen balioarekin alderatuz gero, ikusten da Euskadiko tasa askoz handiagoa dela Espainiakoa baino (20-29 urtekoen taldean, 1.000 pertsonako 15,6).

## PISA txostenean, okerrera egin dute Euskadiko 15 urteko neska eta mutil gazteen emaitzek

Grafikoan ikusten denez, 2015eko balioek, 2003tik 2012ra bitartean izan diren lau edizioetako bakoitzean hobera egin ondoren, beherakada izan dute neurtzen diren hiru gaitasunetan.

Jaitsiera horiek direla eta, Euskadi ELGEko batezbestekotik behera dago gaitasun zientifikoan eta irakurmenean. Gaitasun matematikoari dagokionez, ELGEkoa baino zertxobait handiagoa da Euskadiko batezbestekoa.

## Euskararen ezagutzak zertxobait gora egin du 15 eta 29 urte bitarteko gazteen taldean

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 69,3k dio oso ondo edo nahiko ondo egiten duela euskaraz.

Euskararen ezagutzari dagokionez, gora egiten du adinean behera egin ahala. Hain zuzen ere, 15-19 urte arteko gazteen % 81,3k daki «oso ondo» edo «nahiko ondo» euskaraz; 20-24 urte artekoen taldean, % 69,5era jaisten da ehuneko hori; eta 25-29 urte artekoen taldean, berriz, % 59,1era. D ereduko matrikulazio kopurua handitzearen ondorioz igo da euskaraz hitz egiten dakiten gazteen ehunekoa.

## Ingelesez oso ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutela dioten Euskadiko gazteen ehunekoa asko handitu da 10 urtean

**3.3 grafikoa. Zientzia eta teknologiaren alorreko graduazio-tasaren bilakaera 20 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (adin-tarte horretan dauden 1000 gazteko)**




| | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | 27,5 | 27,3 | 27,8 | 26,6 | 29,4 | 31,3 | 28,2 |
| Gizonak | 38 | 38,1 | 38,6 | 36,9 | 41,2 | 45,3 | 38,5 |
| Emakumeak | 16,8 | 15,8 | 16,6 | 15,9 | 17,3 | 16,8 | 17,5 |

Iturria: Hezkuntza Saila, ISEI-IVEI, (Hezkuntza Adierazleen Euskal Sistema)

**3.4 grafikoa. PISA txostenean 15 urterekin zientzia, irakurketa eta matematikako gaitasunean erregistratutako balioen bilakaera (puntuak)**




| | 2003 | 2006 | 2009 | 2012 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Zientzia | 484 | 495 | 495 | 506 | 483 |
| Irakurketa | 497 | 487 | 494 | 498 | 491 |
| Matematika | 502 | 501 | 510 | 505 | 492 |

Iturria: Hezkuntza Saila, ISEI-IVEI, (PISA txostena)

**3.5 grafikoa. Euskararen ezagutzaren bilakaera Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%)**




Iturria: EUSTAT (Bizi-baldintzei buruzko inkesta)

2016an, 15 eta 29 urte bitartekoen taldean, gazteen % 41,5ek hitz egiten zuen ingelesez oso ondo edo nahiko ondo.

**Euskadiko hamar gaztetatik hiru baino gehiago hirueledunak dira**

Euskadiko hirueletasun-tasa kalkulatzeko, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo egiten duten gazteak hartzen dira kontuan.

Euskadin, 2016an, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 34,6k ondo hitz egiten zuen euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, 2004ko zifraren kasik bikoitza.

3.6 grafikoa. Hirueletasunaren bilakaera Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%)




Iturria: EUSTAT (Bizi-baldintzei buruzko inkesta)

## Osasuna

**Gazte gehienek uste dute osasun ona dutela**

Hala ere, bost pertsona gaztetatik batek osasun-arazo kronikoak ditu eta hamar gaztetatik batek antsietatea eta/edo depresioa du.

**Lau gaztetatik hiruk jarduera fisiko osasungarria egiten dute**

15 eta 29 urte bitarteko lau gaztetatik hiruk (% 75,3) diote galdeketaren aurreko astean jarduera fisiko osasungarria egin dutela, neurriz edo intentsitate handiz. Gazteen jarduera fisikoak, kirola egitea baino modu zabalagoan ulertuta, gora egin du 2007tik (% 67,6) 2013ra (% 75,3).

Jarduera fisiko osasungarria egiten duten gizon gazteen ehunekoa handiagoa da emakumeena baino, eta jarduera fisikoa zertxobait hedatuago dago gazteenen adin-taldean.

**Obesitate-tasa txikia da, baina gora egiten ari da azken urteotan**

Neska eta mutil obeso gazteen ehunekoa motel baino etengabe ari da gora egiten: 2002an, % 3,4 ziren; 2007an, % 4,2; eta 2013an, berriz, % 5,4. Nolanahi ere, gazteen artean, obesoen ehunekoa txikiagoa da Euskadiko biztanleria osoaren artean baino (% 13,2).

Behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klaseko pertsona gazteen artean altuagoak dira obesitate-zifrak goi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klaseko pertsona gazteen artean baino (% 7,4 eta % 3,5, hurrenez hurren). Obesitatean eragin handiagoa du gizarte-klaseak sexuak edo adinak baino.

**Lau pertsona gaztetatik batek alkohol gehiegi kontsumitu du edo modu arriskutsuan kontsumitu du galdeketaren aurreko hilabeteko egunen batean**

2012an, alkohol gehiegi kontsumitu zutela edo alkoholaren kontsumo arriskutsua egin zutela zioten gizon gazteen ehunekoa (% 32,6) emakumeen ehunekoaren bikoitza zen (% 16,6).

4.1 grafikoa. Osasun-diferentziak 15 eta 29 urte bitarteko gizon eta emakume gazteen artean (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila
(Euskal Osasun Inkesta 2013)

4.2 grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen arteko desberdintasunak jarduera fisiko osasungarria egiteari dagokionez, sexuaren eta adin taldeen arabera (%)




Fuente: Departamento de Salud del Gobierno Vasco
(Encuesta de Salud de la CAPV 2013)

4.3 grafikoa. Obesitate-tasaren bilakaera 15 eta 29 urte arteko gazteen artean eta biztanleria orokorraren aldean (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila
(Euskal Osasun Inkesta 2013)

**Tabakoaren kontsumoak behera egin du eta, lehen aldiz, 15 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren batez besteko kontsumoaren azpitik dago**

2000tik 2012ra bitartean, hamar puntu baino gehiago jaitsi da ohiko tabako-erretzaileak direla dioten gazteen ehunekoa. Ehuneko hori % 35,4 zen 2000. urtean eta % 23,5, berriz, 2012an. Tabakoa eskuarki kontsumitzen duten mutilak neskak baino gehiago direla ikus daiteke (26,6% eta 20,4%, hurrenez hurren).

**15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 12,2k sexu-harreman arriskutsuren bat izan du azken urtean**

Inkestaren aurreko urtean sexu-harreman arriskutsuren bat izan duten gazteen ehunekoak behera egin du: % 18,4 zen 2012an, eta % 12,2, berriz, 2016an. Jaitsiera hori antzekoa izan da emakume eta gizon gazteen artean.

**15 eta 29 urte bitartekoen taldean, GIBaren infekzio berrien tasa 1/10.000 mugatik gorakoa da oraindik**

GIBaren infekzio berrien tasa handiagoa da gizon gazteen artean (1,9/10.000) emakume gazteen artean baino (0,5/10.000).

**Nerabeen haurdunaldien tasak behera egin du**

Nerabeen haurdunaldien tasa (honela neurtzen da: 15 eta 17 urte bitarteko emakumeen artean urtebetean jaiotako haurren kopurua gehi borondatez eten diren haurdunaldien kopurua, adin-tarte horretan dauden 1.000 emakumeko), 2014an, 7,6/1.000 izan zen. Tasa hori ere jaitsi egin da 2012ko tasarekiko; izan ere, urte hartan 9,7/1.000 izan zen.

2014an, nerabeen haurdunaldien tasa askoz handiagoa izan zen neska atzerritarren artean (34,6/1.000), espainiar nazionalitateko nesken artean baino (5,3/1.000).

## Gizarte-ekintza eta berdintasuna

**16 eta 29 urte bitarteko gazteen herenak soilik ditu 600 euro baino gehiago erabilgarri hilean**

Krisi ekonomikoa hastean gazteen diru-sarrerek behera egin zuten; behea 2013an jo zuten, eta 2015ean zertxobait berreskuratu ziren, 2013-2015 aldian enpleguak hobera egitearekin bat.

Izan daitezkeen diru-sarrerak ez daude erabat lana izatearen mende, baina faktore horrek garrantzi handia du. Hain zuzen, lana dutenen % 70,8k 600 eurotik gora du hilean.

**4.4 grafikoa. Kontsultaren aurreko urtean arriskuzko sexu-harremanen bat eduki duten Euskadiko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko Gazteak seriea)

**4.5 grafikoa. 15 eta 17 urte bitarteko neska nerabeen haurdunaldi-tasaren bilakaera Euskadin, nazionalitatearen arabera (tasa 1000ko)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren (Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa) eta EUSTATen (Biztanleen udal-estatistika) datuak abiapuntu hartuta

**5.1 grafikoa. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen enplegu-tasaren eta hilean 600 euro baino gehiago erabilgarri dituztenen ehunekoaren bilakaera (%)**




| | 2004 | 2008 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Enplegu-tasa | 53,9 | 53,1 | 43,6 | 35,5 | 37,1 |
| Hilean 600 euro baino gehiago dituzte erabilgarri | 31,1 | 36,7 | 32,5 | 25,2 | 32,7 |

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma) eta EUSTAT (BJA)

### Gazte gehienek familiarekiko mendekotasun ekonomikoa dute

2015ean, 16 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen % 55,7 familiaren diru-sarreretatik bizi zen eta % 15,5ek beren diru-sarrerak familiaren diru-sarrerekin osatu behar zituen. Gazteen % 13,8 soilik bizi da bere diru-sarreretatik. Azken talde horri bikotekidearen diru-sarreren zati batetik edo bikotekidearen diru-sarreretatik soilik bizi den % 13a gehituz gero, laurden bat baino zertxobait gehiago dira (% 26,8, zehazki) gurasoen mende bizi ez diren gazteak.

### Pobrezia-tasa handiagoa da gazteen artean Euskadiko populazioaren guztizkoan baino

2016an, pobrezia errealeko egoeran zeuden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa (adin-tarte horretako gazte guztiekiko) % 8,1 zen, eta 2008az geroztik, ehunekoa handituz joan da.

### 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 2k DBE jasotzen du

2017ko urtarrilean Diru-sarrerak Bermatzeko Errentako (DBE) laguntzetan aktibo dauden espedienteei erreparatuz gero, ikusten da 5.375 espediente dagozkiela 16 eta 29 urte bitartekoen adin-taldeko pertsonei; hau da, Euskadiko biztanleria osoaren taldean aktibo dauden espediente guztien % 8,5.

Datu horien arabera, ikusten da 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 2k prestazio hori jasotzen duela (ehuneko hori DBE jasotzen dutenen tasa dela esan daiteke). Emakumeen pobrezia-tasa handiagoarekin lotuta, handiagoa da DBE jasotzen duten emakume gazteen ehunekoa (% 2,4) laguntza hori duten gizon gazteena baino (% 1,7).

### Bikote barruan izan daitezkeen indarkeria-forma guztien larritasunarekiko kontzientziazioa areagotu da

2012-2016 bitartean, gora egin du tratu txar mota hauek oso larritzat jotzen dituzten emakume eta gizonen ehunekoak: sexu-harremanak izatera behartzea, etxetik irtetea debekatzea, mehatxuak egitea, mespretxatzea, erabakiak hartzen ez uztea eta iraintzea.

### Genero-indarkeriagatiko salaketa gehiago dago 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean emakume nagusiagoen artean baino

Emakumeen kontrako indarkeria-tasa 7,5/1.000 da 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen artean, hau da, 1.000 gaztetatik 7,5ek salaketa bat jarri dute 2016an. 30 urte edo gehiago dituzten emakumeen artean, tasa hori 3,5/1.000 da.

**5.2 grafikoa. Benetako pobrezia-egoeran dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera Euskadin (%)**




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta)

**5.3 grafikoa. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen benetako pobrezia-tasaren eta talde horretan Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen dutenen tasaren konparazioa, sexuaren arabera (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren datuak (Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta eta Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko Lanbideren estatistikak) eta EUSTATen populazioari buruzko datuak oinarri harturik

**5.4 grafikoa. Emakumeen aurkako indarkeriaren tasaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen eta 30 urtekoen eta gehiagokoen artean (tasa milako)**




| | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 15-29 urte bitarteko emakumeak | 7,4 | 6,6 | 6,9 | 7,5 | 7,7 | 7,7 | 7,3 | 7,5 |
| >= 30 urteko emakumeak | 3,6 | 4,3 | 4,7 | 3,3 | 3,4 | 2,7 | 3,5 | 3,5 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

Emakume gazteek gehiagotan salatzen dituzte egoera horiek, emakume nagusiagoekin alderatuz.

**Emakume gazteek etxeko lan karga handiagoa jasaten dute gizon gazteek baino**

2016an, bikotekidearekin bizi diren 30 urtetik beherako emakumeen % 22,2k zioen haiek egiten dituztela etxeko lan gehienak edo guztiak; % 59,4k zioen bikotekidearekin erdi bana egiten dituela; eta % 3,2k, berriz, bikotekideak egiten dituela lan horietako gehienak.

Azken urteotan, etxeko lanen baterako erantzukizuna eta berdintasunezko banaketa gora egiten ari dira, baina oraindik ere, emakumeek gizonek baino neurri handiagoan egiten dituzte etxeko lanak.

**Emakumeen artean, 2008ko datuen aldean, areagotu egin da gizonek lanpostu bat eskuratzeko aukera gehiago dituztelako sentsazioa, emakumeek prestakuntza eta esperientzia berdina izanda ere**

Hala ere, gazteen gehiengoak uste du hautagaien sexuak ez lukeela eraginik izango; ideia hori gizonen artean orokortua dago (% 63) emakumeen artean baino (% 58,4).

5.5 grafikoa. Lana eskuratzeko diskriminazioa dagoen sentipenaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia
(Euskadiko Gazteak seriea)

## Partaidetza, kontsumoa eta mugikortasuna

**Gora egiten dute asoziazionismo-tasak eta boluntario-lanek 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean**

Elkarteetan edo asoziazionismoan esku hartzea da gizarte-partaidetzaren funtsezko adierazpideetako bat. Kolektibo horiek helburu asko eta askotarikoak izan ditzakete, politikoak, ludikoak, kulturalak eta abar, baina gizarte batean dagoen partaidetza-mailaren termometro ona dira.

Grafikoan ikusten da Euskadiko gazteen % 46,2 elkarteren bateko kide zirela 2016an. Elkarte mota hauek dira nagusi: kirol- edo mendi-elkarteak (% 23,8), aisialdirako elkarteak (% 12,7), kultura- edo arte-elkarteak (% 8), gazte-elkarteak edo denbora librekoak (% 7,8), musika-bandak edo -taldeak (% 5,3) eta elkarte politikoak (% 4,1).

Boluntario-lanak egiteari dagokionez, 2012tik 2016ra bitarteko aldian asko handitu da horrelako lanak egiten dituzten gazteen ehunekoa, % 6,5etik % 11,5era hain zuzen ere. Alderdi honetan, handiagoa da emakumeen presentzia gizonena baino (% 15,1 eta % 8, hurrenez hurren).

**2016an, gazteen % 37,1ek baliatu zituen sare sozialak eztabaidak edo salaketak sustatzeko edo zabaltzeko**

Adinean gora egin ahala, ziberaktibismoa ere handitu egiten da. Ziberaktibismotzat hartzen da sare sozialak erabiltzea, eztabaida edo salaketak sustatzeko nahiz zerbait babestu,

6.1 grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen asoziazionismo-tasaren eta boluntario-lanen bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia
(Euskadiko Gazteak seriea)

birbidali edo horri buruzko iritzia emateko. Iaz, honako hauek jardun zuten ziberaktibismoan: 15-19 urteko gazteen % 33,2k, 20-24 urteko taldekoen % 37,3k, eta 25-29 urteko pertsonen % 40k.

### Euskal gazteen % 55,8k era arrazionalean kontsumitzen du

Erosketaren prozesu logikoa dela eta, % 68,8k aurretik pentsatuta izaten du zer erosi nahi duen; % 53,5ek erabakita izaten du zenbat gastatu nahi duen; % 55,8k, produktua erosi aurretik, zenbait establezimendutako prezioak alderatzen ditu; % 47,7k produktuaren bermea egiaztatzen du; % 67,4k erosketaren faktura edo tiketa egiaztatzen du; eta % 81,4k erreklamazioa aurkezten du, arazorik izanez gero.

### Gutxiengoa dira ohiko kontsumoan irizpide etikoei jarraitzen dietenak

Kontsumo etikoari dagokionez, ez dago alde handirik gizon eta emakumeen artean (% 12,0 eta % 13,7, hurrenez hurren). Mutilek neskek baino neurri handiagoan hartzen dute aintzat ea produktua benetan behar duten, baina neskek neurri handiagoan hartzen dute kontuan ea ekoizpen-prozesuan bidegabekeria sozialik izan den.

### Euskal gazteen % 43,3k kontsumo jasangarria egiten du

Egunerokoan kontsumo-jarraibide hori betetzen duten gazteen ehunekoak gora egin zuen 2010-2013 aldian, ur-kontsumoan izan ezik, zertxobait behera egin baitzuen. Hondakinak birziklatzeko gaika bereiztea izan da gora gehien egin duen portaera (2010ean, % 76,3, eta 2013an, % 84,2).

### Gorabidean daude beste kontsumo mota alternatibo batzuk

Kontsumo alternatiboaren indizea eratzeko, lau erosketa-modu hauetatik gutxienez bat askotan erabili dituztenak hartzen dira kontuan: erosketa arruntak egitea, bigarren eskuko produktuak erostea, bidezko merkataritzako produktuak erostea, edo truke-merkatuetan parte hartzea. Definizio horren arabera, esan daiteke kontsumo alternatiboaren indizea % 28,1 izan zela 2013an, eta gora egin duela 2010eko indizearekiko (% 21,7 zen urte horretan).

### Garraiobide jasangarrien (garraio publiko kolektiboa eta bizikleta) eguneroko erabilerak gora egin du

2016an, 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen % 39,8k zioen garraio publiko kolektiboa (autobusa, trena, metroa, tranbia…) egunero edo ia egunero erabiltzen zuela. Ehuneko hori handiagoa da bai 2012koa baino (% 37,2) bai 2008koa baino (% 33,4).

**6.2 grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kontsumo arrazionalaren indizea, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia
(Kontsumo arduratsuaren ohituren bilakaera EAEko gazteen artean 2010-2013)

**6.3 grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kontsumo jasangarriko indizearen bilakaera, sexuaren arabera (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia
(Kontsumo arduratsuaren ohituren bilakaera EAEko gazteen artean 2010-2013)

**6.4 grafikoa. Hainbatetan kontsumo alternatiboa erabiltzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia
(Kontsumo arduratsuaren ohituren bilakaera EAEko gazteen artean 2010-2013)

**6.5 grafikoa. Garraio publiko kolektiboa eta bizikleta egunero edo ia egunero erabiltzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia
(Euskadiko Gazteak seriea)

Halaber, gazteen artean, gora egin du ohiko lekualdatzeetarako bizikleta egunero edo ia egunero erabiltzen dutenen ehunekoa. Ehuneko hori % 5,3 zen 2008an; % 9,6, 2012an; eta % 13,4, berriz, 2016an.

## Kultura, aisialdia eta kirola

**Hamar gaztetatik zortzi baino gehiago joan dira kultura- edo kirol-ikuskizunen batera azken hiru hilabeteetan**

Kultura-gertaerei dagokienez, zinemara doaz gazteak maizen.

Zinemara joaten direnen ehunekoak asko egin du gora 2012-2016 aldian, eta kontzertuetara, museoetara eta antzokietara joaten direnen ehunekoa egonkorra da. Sexuen arteko alde esanguratsu bakarra kirol-ekitaldietara joatearekin lotutakoa da: mutilen % 58,3 joan da horrelako ekitaldiren batera azken hiru hilabeteetan; nesken artean, berriz, % 34,6 da ehuneko hori.

**15 eta 29 urte bitarteko pertsonen aisialdiko jarduera nagusiak teknologia berriekin lotuta daude**

Musika entzutea da 15 eta 29 urte bitarteko gazte gehienek (% 81,9) egunero edo ia egunero aisialdian egiten duten jarduera.

Gizonen eta emakumeen arteko alde handienak teknologia berriekin lotuta Internet bidez egiten diren aisialdi-jardueretan daude: YouTuben, Vimeon eta antzeko plataformetan bideoak ikustea (% 47,1 mutilen artean, eta % 38,9 nesken artean), bideokontsolekin jokatzea, ordenagailuko jokoekin aritzea (% 18,2 mutilen artean, eta % 11,3 nesken artean), Internetera bideoak igotzea (% 2,6 mutilen artean, eta % 1,8 nesken artean), eta blogetan idaztea (% 2,4 mutilen artean, eta % 1,1 nesken artean).

Mutil gazteek neskek baino gehiago aipatzen dituzte beste jarduera batzuk; esaterako, kirola egitea, lonjetan egotea eta kalean egotea.

**15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiak baino gehiagok dio azken hilabetean libururen bat irakurri duela aisiagatik**

Euskadiko gazteen artean, irakurtzeko ohiturak gora egin du 2008tik 2016ra (hamar puntu): 2008an, gazteen % 44,6k zioen libururen bat irakurri zuela azken hilabetean aisialdian, eta 2016an, % 54,4k zioen hori. Irakurtzeko ohiturari dagokionez, neska gazteek mutilek baino gehiago irakurtzen dute.

Euskaraz irakurtzeko ohitura gero eta txikiagoa da ikasketak amaitu ahala.

7.1 grafikoa. Kultura-ekitaldietara doazen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak bilduma) eta Kulturaren Euskal Behatokia (Euskal Herriko kultura-ohiturei,-praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008)

7.2 grafikoa. Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek egunero edo ia egunero egiten dituzten aisialdi-jarduerak (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskal Gazteria 2016, datuen aurrerapena)

7.3 grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen irakurketa-ohituraren bilakaera, sexuaren arabera (%)




| | 2008 | 2012 | 2016 |
|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 44,6 | 53,7 | 54,4 |
| Gizonak | 40,2 | 42,8 | 48,7 |
| Emakumeak | 49,4 | 65,1 | 60,4 |

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak bilduma) eta Kulturaren Euskal Behatokia (Euskal Herriko kultura-ohiturei,-praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008)

**Lagunen arteko euskararen erabilerak behera egin du 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean**

Lagunekin euskara erabiltzearen ohiturak beheranzko joera izaten jarraitzen du gazte euskaldunen artean: lagunekin euskara batik bat edo bi hizkuntzak neurri berean erabiltzen dituzten Euskadiko gazteen ehunekoak 10 puntutik gorako jaitsiera metatua izan du 2004ko eta 2016ko ehunekoen artean (% 48,5etik % 38,1era).

Adierazle horretan sartzen dira dena edo ia dena euskaraz egiten dutela diotenak, euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenak, eta bi hizkuntzak berdin erabiltzen dituztenak.

**Euskadiko gazteen ia erdiak kirolen bat egiten du, modu erregularrean**

Euskadiko gazteen % 49,0k kirolen bat egiten du astean 3 aldiz edo gehiagotan. Ehuneko horrek gorakada handia izan du 2012-2016 aldian, % 40,2tik aipatutako % 49,0 horretara arte.

Hala ere, gizonek askoz maizago egiten dute kirola modu erregularrean, neskekin alderatuz.

Beste adierazle batzuetan gertatzen den moduan, prestakuntza-aldiaren amaierak ohitura-aldaketak dakartza berekin, eta horren barruan, kirol-praktika erregularra alde batera uzten da apurka-apurka.

7.4 grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagunarteko euskara-erabileraren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia
(Euskadiko Gazteak seriea)

7.5 grafikoa. Kirolean erregulartasunez aritzen diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, adin taldeen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia
(Euskadiko Gazteak seriea)

## Gazteen erronka nagusiak

Euskal gazteriaren inguruko diagnostikoa kontuan hartuta, baita proiektu honen esparruan garatutako partaidetza-prozesuan hainbat partaidek egin duten bateratze-lana ere, oinarriak finkatu egin dira gazteen gaur egungo erronka nagusiak definitzeko, 2020rako IV. Gazte Planak erantzuna eman behar baitie horiei.

Hala ere, eta erronka guztiak gateentzako garrantzitsuak diren arren, enpleguarekin lotura dutenek sortzen dituzte kezka nagusiak gazteengan, «Gazteen argazkiak 2016» argitalpenak erakusten duen moduan[2]. Bertan, gazteei beren kezka nagusiak zeintzuk diren galdegin zitzaien, eta horietako % 61en iritziz, gaur egungo erronka nagusia lan-merkatuan eta horren hobekuntzan dago. Jarraian, arazo ekonomikoak (% 14), hezkuntza (% 14) eta etxebizitza (% 10) datoz.

Eta, azkenik, osasuna, azpiegiturak eta garraioa, hizkuntza-egoera, gizarte-desberdintasunak, ingurumena eta beste alderdi batzuk bigarren planoan geratzen dira, gazteen kezka nagusien baitan, % 4 eta % 1 bitarteko ehunekoekin.

Jarraian, IV. Gazte Planeko erronkak jasotzen dira, hainbat alorren arabera:

| ARLOA | ERRONKAK |
|---|---|
| Enplegua | • Gazteentzako lan aukerak handitzea, eta 20.000 euskal gazteri lehenbiziko lan-esperientzia ematea |
| Etxebizitza | • Etxebizitza, ahal dela alokairuan, eskuratzeko bide ematea, benetako emantzipazio-adina euskal gazteek nahi dutenera hurbiltzeko |
| Hezkuntza | • Balioen hezkuntzaren alorra lantzen jarraitzea<br>• Gazteen artean eleaniztasuna zabaltzea |
| Osasuna | • Gazteen egoera emozionala hobetzea<br>• Elikadura osasungarria hobetzea eta jarduera fisikoa sustatzea<br>• Sexu-transmisiozko gaixotasunetarako arreta eta prebentzioa<br>• Adikzioen eta gazteen osasunerako arriskutsuak diren jokabideen prebentzioa |
| Gizarte-ekintza eta berdintasuna | • Gazte guztien gizarteratzea sustatzea, bereziki, enpleguarekin eta garapen pertsonalarekin loturan<br>• Gazteen artean berdintasun erreala eta eraginkorra lortzea, sexua, arraza, erlijioa eta sexu-orientazioa aintzat hartu gabe, eta genero-indarkeriaren aurkako borrokari garrantzi berezia emanez |
| Partaidetza | • Gero eta partaidetza eta ekimen handiagoa duen gazteria sustatu eta babestea |
| Kontsumoa | • Gazteen artean kontsumo arduratsua sustatzea eta horri buruzko hezkuntza ematea |
| Mugikortasuna | • Garraio publikoko aukerak gazteen behar eta itxaropenetara egokitzea |
| Kultura | • Aktiboki jarduera kulturalak gauzatzen dituzten gazteen kopurua handitzea<br>• Gazteei kultura-eskaintza eskuratzeko aukera ematea |
| Aisialdia | • Aisiazko jardueretan euskararen erabilera sustatzea |
| Kirola | • Gazteen kirol-jarduerak sustatzea |

[2] Eusko Jaurlaritzaren Azterlan Kabinetearen Zuzendaritza (2016): Gazteen argazkiak 2016 [linean] Hemen eskuragarri: http://www.euskadi.eus/gazteen-argazkiak/web01-s1lehike/eu/ [Kontsulta: 2017/11/14]

# #03

## Esparru estrategikoa



# 3. Esparru estrategikoa

## Kontzeptu-esparrua

Euskal gazteen garapen pertsonal eta profesionalak behar eta erronka ugari aurkezten ditu, aurreko atalean xehetasunez jaso den bezala. Horietako batzuk lehentasunezkoak dira etorkizunaren eraikuntza-prozesuan (oinarria dira), eta beste batzuk, beharrezkoak dira prozesu horrek gazteei gure gizartean erabat integratzen eta parte hartzen utz diezaien eta etorkizunaren eraikuntzan konpromisoa har dezaten.

Kontuan hartuta IV. Gazte Planaren identifikazioak, ezarpenak eta lehenespen estrategikoak gidatu dituela gogoeta horiek, hurrengo grafikoak planaren oinarria osatzen duen kontzeptu-esparruaren ikuspuntua jasotzen du:




Horrela, IV. Gazte Planaren ardatz estrategikoek ikuspuntu horri erantzuten diote, eta, lehenik, gazteen lehentasunezko beharrei eta erronkei erantzuna emateko egituratzen dira, honako hauei, alegia: enplegua, etxebizitza eta hezkuntza. Horiek, gazteen bizi-zuhaitzaren sustrai gisa, aukera emango dute beste ardatz estrategiko eta esparru batzuen gainean lan egiteko, gazteek gizartean berdintasunez, arduraz eta konpromisoz parte har dezaten. Nolanahi ere, gazteen ardura nagusiak argiak dira, eta, horrenbestez, IV. Gazte Planak gazteen lekukotza hartzen du eta, 1. ARDATZEAN (Emantzipazioa eta autonomia) jasotzen diren alorretara bideratuko ditu esfortzuak, funtsean. Osasuna 2. ARDATZEAN Ongizatea eta bizitza osasungarria) jorratzen da. Horrek ere lehentasuna du, eta aurreko ardatzarekin batera, planaren nukleo nagusia osatzen du.

Puntu honetan, «gazteria» kontzeptua testuinguruan kokatzen duen gogoeta jaso behar da, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren kasurako. Hala, eta Gazteria-arloko 2020rako euskal estrategian jasotzen den definizioari jarraituz, gaztetzat jotzen da 12 eta 30 urte bitarteko pertsona oro. Hala ere, estrategiak irekita uzten du definizio operatibo hori, politika edo programa zehatz bakoitzaren baitan defini daitezen esku-hartze bakoitzaren beharrei gehien egokitzen zaizkion adin-tarteak.

Bestalde, «gazteria» kontzeptuaren definizio zabala dela-eta, zenbait arlo eta helbururen ardatz estrategiko bakoitzaren baitako planteamenduak modu zuzenagoan eragingo die adin-tarte zehatz batzuei.

### 1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

Lan-egoera gure gizarteko eremurik garrantzitsuena edo garrantzitsuenetako bat da, eragin handia baitu gizarte-nortasunak eratzeko prozesuaren eta gazteen emantzipazio-ibilbidearen gainean. Euskal gazteriaren langabezia-tasa handia da, gaur egun % 17,2koa, populazio orokorrarena baino handiagoa.

Hala, gazte-plan honen oinarrian dago baldintzak hobetzea, gero eta gazte gehiagok sarbidea eta aukerak izan ditzaten lan-merkatuan. Ardatz estrategiko hau Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen ekimenekin osatzen da, emantzipatzeko adin erreala gazteen nahietara ahalik eta gehien hurbiltzeko. Horretarako, ikuspuntu eta egoitza-eredu desberdinak aintzat hartuz lan egiten da.

Baina ezin da ahaztu hezkuntzak betetzen duen funtzio kritikoa, gazteen garapen pertsonal eta profesionalerako oinarri gisa. Hori dela-eta, ardatz estrategiko honek, era berean, hezkuntzari dagokionez, aldi honetan zehar hedatzen jarraitu behar diren esfortzuak eta ekimenak jasotzen ditu.

### 2. ARDATZA: ONGIZATEA ETA BIZITZA OSASUNGARRIA

Osasuna da baliorik preziatuenetako bat; izan ere, osasuna da pertsona guztiei euren asmoak eta bizi-helburuak energia osoz betetzeko eta euren aukerak arrakastaz gauzatzeko aukera ematen diena (Osasun Plana 2013-2020). Era berean, osasunik gabe, guztiz aktibo egoteko eta guztiz aktiboak izateko gaitasunak mugatu eta murriztu egiten dira.

Horrenbestez, lehentasunezkoa da euskal gazteriak bizitza osasungarria izan dezan lan egitea, eta osasuna neurtzen duten parametroei zuzenean edo zeharka eragiten dieten alderdi guztietan esku hartzea. Neurtutako osasun-adierazle nagusiek egoera kezkagarria erakusten dute, eta egoera hori, hain zuzen, gazte-planean neurriak eta ekimenak identifikatzeko eta finkatzeko oinarria izan da (sustantzien kontsumo-portaera berrien inplikazioak, sexu-transmisiozko infekzioen tasa nahiko altuak, obesitatearen murrizketa txikiegia, osasun mentaleko arazoak areagotzen direla adierazten duten aztarnak, eta abar).

Hala ere, osasunean ez dute kausa proximalek soilik eragiten (horietarako, hainbat esku-hartze eta programa garatzen dira ardatz honetatik, informazioan, prestakuntzan eta urrats osasungarriagoen aldeko gazteen kontzientziazioan oinarritutakoak). Horiez gain, kausa distalek ere eragiten dute; hau da, OMEren arabera, gazteen baldintza sozioekonomikoek (bizitzeko, ikasteko, lan egiteko, erlazionatzek eta euren aisialdirako espazioak eta denbora edukitzeko) osasunari eragiten diote. Osasun-adierazle horien ekintza IV. Gazte Plana osatzen duten gainontzeko ardatzetan garatzen da.

### 3. ARDATZA: BERDINTASUNA ETA GIZARTERATZEA

Desberdintasun-egoeren zuzenketari, horien kausak edozein direla ere (ekonomikoak, identitateari edo jatorriari lotutakoak, etab.), gazte-kolektiboaren ikuspuntutik heldu behar zaio espresuki. Hala, ardatz estrategiko hori gazte guztien inklusioa sustatzera bideratzen da, enpleguari eta garapen pertsonalari loturik; izan ere, pobrezia-egoeran dauden pertsonen ehunekoak gora egin du ekonomia-krisiaren eraginez, eta gazteen pobrezia errealaren tasa, oro har, altuagoa da Euskadiko populazio guztiarena baino.

Horrez gain, gazteen artean berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko ekimenak jasotzen dira, sexua, arraza, erlijioa eta sexu-orientazioa aintzat hartu gabe, eta genero-indarkeriaren aurkako borrokari garrantzi berezia emanez. Hori guztia gazteria gero eta erantzunkideagoa, toleranteagoa eta inklusiboagoa izateko.

### 4. ARDATZA: GIZARTE-PARTAIDETZA ETA -KONPROMISOA

Irizpide propioa, autonomia, ekimena, partaidetza, elkartasuna eta garapen sozial eta ekonomikoarekiko konpromisoa erakusten dituen gazteria du eta behar du Euskadik[1] . Bereziki garrantzitsua da gazteen artean balio horiek sustatzea; izan ere, gazteak (beste edozein adineko pertsonek bezala) gizartearen zati sentitzen direnean, horretan nahasten dira eta parte hartu nahi dute, hau da, loturak sortu eta konpromisoa hartzen dute, eta, hala, komunitatearen garapenean protagonismoa hartzen dute, eta aldaketarako eragile bilakatzen dira.

[1] Enpleguko eta Gizarte Gaietako Sailburuaren XI. Legealdiko inbestidura-ekitaldia.

Ardatz hau, horrenbestez, euskal gazteriak gero eta partaidetza eta ekimen gehiago izateko beharraren gainean eraikitzen da, eta horretarako, beharrezkoa da komunikazioa eta elkarren ezagutza modu argian lantzea. Zentzu horretan, erronkak bi norabide ditu, administrazioak komunikazio-motak gazte-kolektiboaren dinamika eta espazioetara egokitu behar baititu.

**5. ARDATZA: SOZIALIZAZIOA**

Gazte-kolektiboaren elementu bereizgarrietako bat, populazio orokorrarekin alderatuz, denbora librea eta aisialdia nola kudeatzen duten da, baita denbora horretan garatzen diren ekintzen osotasuna ere. Inguru horietan kulturarekin, aisialdiarekin, kirolarekin eta euskararen erabilerarekin lotura duten ohituretan jartzen du fokua ardatz honek, ikuspuntu holistikotik, gazteen hazkunde pertsonalari laguntzen dioten alderdi guztiak osatzeko.

## Printzipio gidariak

IV. Gazte Planaren printzipio gidariek planaren nortasuna zehazten dute, eta plan osoaren irizpide iradokitzaile gisa jokatzen dute. Horiek definitzeko, Gazteriaren arloko 2020rako euskal estrategian[2] identifikatzen diren esparru-printzipioak hartu dira kontuan, eta plan honetara egokitu dira, edukia horietan oinarritzeko.

### KONPROMISOA

Ekintza publikoa gazteen beharrei eta erronkei erantzuna emateko bideratzea, herrialdearen garapena bermatzeko. Horretarako, gazteen errealitatearen bilakaera etengabe aztertu behar da, euskal gazte-kolektiboaren beharretara eta erronketara egokitzeko. Era berean, administrazioen barneko eta arteko lankidetza beharrezkoa da, kasu bakoitzean erantzunik hoberenak emateko.

### LEHENESPENA ETA FOKUA

Gazteen arloan gobernuak garatzen duen ekintzak arlo eta ekimen ugari barne hartzen dituela aintzat hartuz, euskal gazteriaren erronka nagusiei erantzun ahalik eta zuzenena ematen dioten jardueretan jarri behar du fokua planak.

### GAZTEEN PARTAIDETZA

Gazteen partaidetza plana diseinatzeko eta abiarazteko unean, ekintza publikoa eta kolektiboaren behar eta eskaerak ahalik eta gehien bat etortzen direla bermatzeko.

### BERRIKUNTZA

Ekimen berriak edo ikuspuntu berritzaileak jada abian dauden ekimenetan txertatzeko ikuspegitik ulertu behar da, gazteen behar eta eskaerei erantzun hobea eman ahal izateko.

### ZEHARKAKOTASUNA

Gazte-kolektiboa populazioaren segmentu bat denez eta horri hainbat neurri zuzentzen zaizkionez gobernuko hainbat esparrutatik, lan egin behar da horietatik guztietatik gazte-kolektiboa ikustarazteko, eta lehentasunezko kolektibotzat jotzen den kasuetan, zeharkako ekintzak garatu ahal izateko, sinergiak aprobetxatuz.

### EKITATEA

Gazte-kolektibo guztiaren aukera-berdintasunaren aldeko lana, genero-ikuspuntua horren hedapen guztian txertatuz. Hartara, gazteen arteko desberdintasun-egoerak gainditzeko lan egin behar da, bai sexuen arteko erlazioen esparruan bai beste desabantaila-egoera batzuei dagokienez.

[2] Zeharkakotasuna, osotasuna, gazte-ikuspuntuaren integrazioa, lankidetza eta koordinazioa eta partaidetza dira printzipio gidari horiek.

# #04

## Ardatzak, arloak, helburuak, ildoak eta lehentasunezko ekimenak



# Ardatzak, arloak, helburuak, ildoak eta lehentasunezko ekimenak

IV. Gazte Planaren ikuspegi globala 5 ardatz estrategikotan, 23 helburutan eta 65 jarduketa-ildotan egituratzen da, guztira.

| Ardatza | *Arloa* | Helburua | Ildoa |
|---|---|---|---|
| Emantzipazioa eta autonomia | *Enplegua* | Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan | Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea |
| | | | Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala |
| | | | Enplegurako prestakuntzaren berrikuntza: Enplegatzaileen sentsibilizazioa eta konpromisoa |
| | | Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago | Lehenengo lan-esperientziak ematea |
| | | | Esperientzia duten gazteen kontratazioa bultzatzea |
| | | | Gazteen enplegu-aukerak hobetzea |
| | | | Enplegagarritasun-baldintzak hobetzera bideratutako gaikuntza |
| | | | Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa |
| | | | Gazteentzako lan-aukerak sustatzea EAEko sektore estrategikoetan |
| | | | Aktibaziorako prestakuntza |
| | | Gazteriaren lan-baldintzak hobetzea | Informazioa eta komunikazioa |
| | | | Ezbeharren kopurua murriztea |
| | | | Osasuna zaintzea |
| | | Gazte ekintzaile gehiago | Bokazio ekintzailea sustatzea |
| | | | Ekintzaileen ekimenak babestea |
| | | | Ekintzailetza eta gizarte-ekonomia |
| | | Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteak laneratzea | Prestakuntza / gaikuntza hobetzea |
| | | | Orientazio eta laguntza espezifikoa |
| | *Etxebizitza* | Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat | Gazte-kolektiboei etxebizitza babestuak lortzeko lehentasuna ematea |
| | | | Gazte-alokairua hobetzeko formula eta neurri berriak garatzea |
| | *Hezkuntza* | Balioetan oinarritutako hezkuntza | Bakea eta bizikidetza |
| | | | Berdintasuna, errespetua eta genero-indarkeriaren prebentzioa |
| | | | Arrisku-egoerak prebenitzeko prestakuntza |
| | | | Ingurumen-hezkuntza eta ekonomia zirkularrarekin duen erlazioa |
| | | Euskal gazte eleaniztun gehiago | Hezkuntzaren eremu formalean euskara sustatu eta indartzea |
| | | | Hizkuntza-gaitasunak garatzea beste hizkuntza batzuetan, mundura gehiago irekitzeko oinarri gisa |
| | | Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman | Erraztasunak ematea ikasketetan sartzeko, mantentzeko eta horiek amaitzeko, batez ere, derrigorrezko eskolaldiaren ondorengoetan |
| | | | Eskola inklusiboa |
| | | Gazte ikertzaile gehiago | Hasierako etapetatik bokazioak sustatzea |
| | | | Gazte ikertzaile eta teknologoentzako laguntza |
| | | | Emakume gazteak ikerketari lotutako karreran |

| Ardatza | *Arloa* | Helburua | Ildoa |
|---|---|---|---|
| Ongizatea eta bizitza osasungarria | *Osasuna* | Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea | Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza |
| | | | Aisialdiko jarduera osasungarriak sustatzea |
| | | | Arreta eta prebentzioa antsietate- eta depresio-egoeretarako |
| | | Haurren gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea | Elikadura osasungarria sustatzea |
| | | | Gazteen artean jarduera eta ariketa fisikoa sustatzea |
| | | Gazteei sexu-bizitza osasungarria izaten laguntzea | Heziketa afektiboa eta sexuala |
| | | | Sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzea |
| | | Gazteen portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea | Tabako eta alkoholaren kontsumoa murriztea |
| | | | Jokoari eta sare sozialei lotutako arriskuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa |
| | | | Trafiko-istripuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa |
| Berdintasuna eta gizarteratzea | *Gizarte-ekintza eta berdintasuna* | Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea | Oinarrizko beharrak estaltzea |
| | | Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea | Berdintasuna etxean eta familian (kontziliazio erantzunkidea) |
| | | | Kolektiboen arteko berdintasuna |
| | | Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea | Sentsibilizazioa eta prebentzioa (zero tolerantzia) |
| | | | Arreta integrala |
| | | Tratu txar mota berriak prebenitzea | Gurasoen aurkako indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta |
| | | | Eskolako jazarpenaren (bullying eta ziberbullying) detekzioa, prebentzioa eta arreta |
| Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa | *Partaidetza* | Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea | Gazte asoziazionismoaren ekimenak babestea |
| | | | Gazte-boluntariotzaren bultzada |
| | | | Partaidetzaren kultura eta eztabaidarako guneak |
| | | | EGKren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetza |
| | *Kontsumoa* | Kontsumo arduratsua egiten duen gazte gehiago | Baliabideen kontsumo eta erabilera jasangarria egiteko heziketa eta prestakuntza |
| | | | Komunikazio mota berrietara egokitutako tresna teknologikoen garapena |
| Sozializazioa | *Kultura* | Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak garatzeko interesa indartzea | Gazteentzako kultura-jarduerak sustatzea |
| | | | Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak |
| | | | Irakurtzeko ohitura sustatzea |
| | *Kirola* | Kirola maila guztietan sustatzea | Kirola sustatzea |
| | | | Kiroleko talentu gazteak aintzat hartzea |
| | *Aisialdia* | Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea | Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera bultzatzea |

Kapitulu honetan zehar, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren hedapena aurkezten da. Definitutako ardatz estrategikoetan oinarrituz egituratzen da hori, eta hainbat mailatan hedatzen:

- Helburu estrategikoak. Ardatz bakoitzean definitzen dira, gazte-kolektiboarentzat identifikatu diren erronkei erantzun zehatza emateko.
- Ildo estrategikoak. Horien bidez, gauzatu behar diren planteamenduak zehazten dira, identifikatutako helburuei erantzuna emateko.
- Definitutako estrategia-ildo bakoitzaren esparruan garatu beharreko lehentasunezko ekimenak. Horretarako, jada abian dauden ekimenak hartuko dira kontuan, eta datozen urteetan garatu beharreko jarduera berriak identifikatuko dira.
- Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen proposamena, helburu estrategikoei dagokienez. Helburu horiek estrategietan edo jatorri-planetan zehaztutakoekin bat etorri behar dute (sailen edo Jaurlaritzaren planek gazteriarentzat lehentasunezkoak diren gaiak jorratzen dituztenean).

## 1. ARDATZA. Emantzipazioa eta autonomia

### a. Enplegua

Gazte-kolektiboaren emantzipazioak eta autonomiak lotura estua dute erabateko laneratzearekin. Gazte-enpleguaren sustapena, beraz, IV. Gazte Planaren erdigunean kokatzen da, eta horren bidez, lehen lan-aukerak eskuratzeko beharrei erantzuna ematea bilatzen da. Horrez gain, gazteei hainbat eskumen eta gaitasun erraztea du helburu, garapen profesionaleko proiektuetan aurrera egin dezaten. Definitutako lehentasunezko ekimenek, hain zuzen, helburu hauek dituzte:

- **Gazteei prestakuntza-etapatik lan-merkatuan sartzeko etapara igarotzen** laguntzea

- **Enplegurako eta prestakuntzarako aukerak erraztea,** gazte-kolektiboak autonomia gehiago lor dezan laneko etorkizuna kudeatzeko, eta, horrenbestez, laneratzea bermatzeko, bai epe laburrera bai epe ertain eta luzera.

- **Laguntza-tresna publikoak ahal den neurrian bilakatzea,** pixkanaka-pixkanaka, lan-kontratuak gehiago sustatuz lan egin dadin, eta ez hainbeste beken bidez, nahiz eta aitortu beharra dagoen azken horiek beharrezko direla prestakuntza-etaparekin lotura estuagoa duten zenbait eremu espezifikotan.

Hala, IV. Gazte Planak, enpleguaren arloan, sei helburu estrategiko egituratzen ditu, 2017-2020 aldirako enplegu-plan estrategikoarekin bete-betean bat egiten dutenak, osaerari zein garapenari dagokienez:

**Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan**

Prestakuntzaren alorraren eta lan-merkatuaren artean gero eta lotura handiagoa lortzeko bideratzen da helburu hau. Hartara, alde batetik, jasotako prestakuntzaren eta enplegu-aukeren arteko egokitzapen hobea lortzeko lan egin ahalko da, eta bestetik, gazteen laguntza eta orientazio egokitua sendotuko da, gazteek beharrezko informazioa izan dezaten lan-merkatuan errazago sartzeko.

Horretarako, hiru ildo estrategiko identifikatu dira, elkarren artean independenteak:

1. **Prestakuntzaren egokitzapena lan-merkatuaren eskaerari:** Lerro hau gazteen enplegagarritasuna hobetzera bideratzen da, horiek jasotzen duten prestakuntza gero eta hobeto moldatuz lan-merkatuak eskaintzen dituen enplegu-aukeretara.

   Aurreikusten diren lehentasunezko ekimenek tipologia hirukoitza dute:

   a. Prestakuntza espezifikorako ekimenak, unibertsitatearen eta lanbide-heziketako zentroen lankidetzarekin: aurreko ekimenek emandako esperientziatik –besteak beste, EHUrekin Makina Erremintako eta Aeronautikako Gelak garatzeko indarrean dauden lankidetza-hitzarmenek–, ikasleen prestakuntza espezifikoa erraztera bideratutako esperientzia eta/edo programa berriak garatzeko lan egingo da, ezagutzari eta lanbide-heziketari lotutako zenbait adarretan, ikasleak lan-merkatuan sartu behar diren unera ahalik eta gehien hurbilduz.

   b. Ezagutza-antena: lan-merkatuko eskaeren bilakaeraren jarraipena eta analisia egingo da, euskal gazteen laneratze-mailen jarraipen eta analisiarekin batera. Ezagutza horrek gogoetarako oinarri izan behar du, euskal ikasleek lan-merkaturako etorkizuneko sarreraren inguruan jasotzen duten prestakuntza osoaren benetako egokitzapenean aurrera egiteko.

c. Lan-orientazio goiztiarraren sustapena: ikasleek lan-aukerei buruzko ezagutza eskuratuko dute hezkuntza-ibilbidearen hainbat unetan (alde batetik, goi hezkuntza hasi aurretik, lanbide-heziketa zein unibertsitatea, eta bestetik, hezkuntza horren hasierako urteetan, STEAM eskumenak txertatuz [1]). Jarduketa horiek unibertsitate-kanpusetako enplegu-zentroen bidez bideratuko dira, baita beste eragile batzuekin batera egindako elkarlanaren bitartez ere.

2. **Prestakuntza-sistema dualaren garapen integrala: Prestakuntza dualak ikasleei erraztasunak ematen dizkie enpresek lan-inguru errealetan neurri handian eskatzen dituzten eskumenak eskuratzeko. Hala, era berean, ikasleek kualifikazioa hobetzen dute, eta kontaktu horri esker, enplegura sartzeko bideak ematen zaizkie.**

   Lerro honi erantzuna emateko, lehentasuna emango zaie ekimen hauei:

   a. Prestakuntza dualaren eredua lanbide-heziketaren arloan finkatzea eta hedatzea: egungo eredua industriari lotutako prestakuntza-adarren esparruan finkatzea, eta eredu hori, era berean, zerbitzuen arloko prestakuntza-adarretarako garatzea.

   b. Prestakuntza duala unibertsitate-sistemara hedatzea, unibertsitateko eskaintzari gradu eta master dualak pixkanaka-pixkanaka txertatu ahal izateko moduan.

3. **Enplegurako prestakuntzaren berrikuntza:** Pertsona eta entitate enplegatzaileen sentsibilizazioa eta konpromisoa: Enpresek, enplegu-emaile gisa, funtzio garrantzitsua betetzen dute prestakuntza-prozesuan, eta testuinguru horretan, lehentasunezko ekimen gisa, horien sentsibilizazioa planteatzen da, gazteei lehen lan-esperientzietan sartzeko erraztasunak emateko. Esperientzia hori laguntza-programekin osatu ahal izango da, enpresek gazte-enplegurako prestakuntzaren eremuan ekintza berritzaileak gara ditzaten.

**Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago**

Diagnostikoan egiaztatu ahal izan denez, pertsona gazteak dira azken urteetako krisiak gehien zigortu dituen kolektiboetako bat, eta horren ondorio nagusien artean, lan-merkaturako sarrera atzeratu egiten da, asko hobe daitezkeen lan-baldintza batzuetan.

Testuinguru horretan, zazpi ildo estrategiko planteatzen dira, datozen urteetan landu beharreko arlo nagusiekin bat datozenak, EAEk euskal gazteei ematen dizkien lan-aukerak areagotzeko eta erakargarriago bilakatzeko:

1. **Lehen lan-esperientzia izateko bide ematea (aurretik lan-esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten pertsonei):** Lehen lan-esperientziarako sarbidea ematea da ildo estrategiko honen funtsezko helburua, gazteen prestakuntza edo titulazioarekin loturiko enpleguetan; izan ere, lan-esperientzia lortuz gero, gazteek beren enplegagarritasuna hobetu ahal izango dute, eta, aldi berean, etorkizuneko garapen profesionala kudeatzen hasiko dira. Lehentasunezko ekimen hauek aurreikusten dira:

   a. Lehen Aukera programa: tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak kontratatzeko bideratzen da. Praktikaldiko

[1] Berrikuntzaren aldeko apustua egiten ari diren herrialdeak ikasleen interesa handitzen saiatzen ari dira zientzia eta teknologiaren arloan, eta STEAM (Science, Technology, Engineering, Arts and Maths) estrategiak txertatzen ari dira beren agendetan.

kontratua edo lan-kontratu mugagabea egiten da eta, horrela, gazteen enplegagarritasuna bultzatu nahi da, baita gazte horien laneratzea ere.

b. Global Training bekak: atzerriko enpresetan eta organismoetan praktikak egiteko finkatu dira. Bekaren bidez, EAEko gazteak atzerrira irten daitezen bultzatu nahi da, beren ezaugarri akademikoekin eta profesionalekin lotutako jarduerak eta proiektuak egin ditzaten atzerriko enpresa eta erakundeetan, aldez aurretik planifikatutako prestakuntza praktikoko plan baten barruan.

c. Nazioartekotzeko bekak: nazioartekotzearen alorrean prestatzeko bekak; enpresetan praktikak egitea ere sartzen da.

d. Unibertsitateko edo lanbide-heziketako titulua duten eta langabezian dauden gazteen kontratazioa hobetzeko bekak, atzerrian zentroak dituzten enpresetan. Langabezian dauden eta aurretik lan-esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazteak laneratzeko laguntzak: haien tituluekin lotutako lanpostuen bidez egiten da, atzerrian lantegiak dituzten euskal enpresetan kontratatuz. Kontratuak barne hartzen du aipatutako lantegietan ikaskuntza-aldiak egitea, enpresen premietara egokitutako prestakuntza eta esperientzia profesionala lortzea errazteko eta EAEko enpresa-ehuna laguntzeko neurri gisa, enpresa horiek nazioartekotzeko ahalegin handia egiten ari baitira.

2. **Esperientzia duten gazteen kontratazioari bultzada:** Modu espezifikoan, lehentasunezko hainbat ekimen aurreikusten dira, nolabaiteko esperientzia duten gazteei laguntza emateko, langabezian badaude edo, lan-merkatuaren barruan egonda ere, egoera hori aldatu nahi badute (EAEra itzultzea, Euskaditik kanpo lan egiten dutelako; sektorez aldatzea; lanpostuz aldatzea; etab.). Lehentasunezko ekimen hauek aurreikusten dira:

    a. Gazteen itzulerarako programak: Lehentasunezko ekimen honek itzultzeko bidea erraztu nahi die EAEtik kanpo esperientzia eskuratu duten gazteei, karrera profesionala hemen jarraitzeko itzuli nahi duten kasuetan. Hala, hainbat bide landuko dira:

        i. Horietako bat atzerrian lan egiten duten eta itzuli nahi duten gazteen kolektiboa ezagutzera eta ezaugarritzera bideratzen da, baita kolektibo horrekin kontaktu etengabea izateko dinamikak sortzera ere.
        ii. Bestea, aldiz, laguntza-zerbitzu sorta integrala diseinatzera bideratzen da. Zerbitzu horien artean, gazteen itzulerarako laguntzen programa berritzailea nabarmentzen da, EAEko lantegietan gazteak kontratatzeko helburua duena, baita Landhome programa ere (kualifikazio handiko profilak EAEra erakartzeko bideratua).

    b. Birziklapena eta bigarren aukerak: egokitzapen profesionalera eta enplegurako birziklapenera bideratutako prestakuntza-programa edo -ekintzak, fokua gazte-kolektiboan jarrita, gazteak enpresaren lan-eskaeretara azkar egokitu daitezen.

    c. Tokiko zein eskualdeko enplegu-planak: tresna gisa, enplegua sortzeko proiektu zehatzei laguntza eman nahi diete, udalen, udalez gaindiko erakundeen eta tokiko zein eskualdeko garapen-agentzien lankidetzan oinarrituz. Horrez gain, kolektibo ahulenei arreta berezia ematen diete. Gazte-kolektiboa horietako bat denez, lehentasunezko ekimen honek bertan jartzen du fokua. Hala, hitzarmen eta akordio horietan klausula berriak ezartzeko lan egingo da, eskaintzen diren lanpostuen zati bat euskal gazteei gordetzeko.

3. **Gazteen lan-aukeren hobekuntza:** oro har, Eusko Jaurlaritzatik, hainbat ekimen planteatzen dira euskal gazteek inguruan aukerak izan ditzaten lan-merkatura sartzeko. Horien artean hauek nabarmentzen dira:

    a. **Belaunaldi-erreleboaren beharra aprobetxatzea, plantillen berriztatzea bultzatzeko eta gazte-kolektibo espezifikoaren enplegua sustatzeko.** Hautagai potentzialen kolektiboa osatzen dute gazteek, eta plantillen etengabeko zahartzeak sortzen dituen beharrei erantzun egokia eman diezaiokete. Ekimen hauek, alde batetik, gazteen erreleborako kontratuak babestuko dituzte (erretreta hartu duten langileak ordezkatzeko edo enpresaren barruan nagusienaren lanpostua hartuko duen profesionala ordezkatzeko), eta, bestetik, lanpostuak epe labur zein ertainera betetzeko beharren planifikazio eta kudeaketa egokia egingo dute, Administrazio Publikoaren ikuspuntutik.

4. **Enplegagarritasun-baldintzen hobekuntzara bideratutako gaikuntza: Gazteen prestakuntza sustatzeko beharretik, kualifikazio txikiagoa edo egiaztatu gabeko zein enpresen beharretara egokitu gabeko eskumenak dituzten gazteen kasuan**, ildo espezifiko hau planteatzen da, gazteen prestakuntza eta gaikuntza babeste aldera, ibilbide profesional egingarriak garatzeko aukera izan dezaten. Hala, oro har, ekimenak hedatzen jarraituko da, bi bidetan, ikuspuntu orokorragoa duten honako zerbitzu hauetan gazteak espresuki monitorizatzeko:

    a. Kualifikazio profesionala sustatzeko prestakuntza propioa, enplegagarritasun-maila handiagoa izateko, enplegurako lanbide-prestakuntzaren azpisistemari loturik.

    b. Eskumen profesionalen aitorpena eta egiaztapena, informazio- eta orientazio-zerbitzuaren bidez eta lan-esperientziari esker eskuratutako eskumen profesionalak egiaztatzeko deialdien bidez.

5. **Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa:** Lerro estrategiko honek gazte-kolektiboak behar duen babesa eta laguntza ematea du helburu, lan-merkatuan sartzeko prozesuari dagokionez. Horretarako, funtsean, gazteentzako lehentasunezko ekimen zehatz baten bidez landuko da enplegurako orientazio- eta laguntza-zerbitzua, ibilbide egokituen garapenaren bidez. Zerbitzu hori orientaziorako deialdi bakarraren zati da. Horren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik kanpoko entitateen laguntza behar duten orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak zehazten dira, eta horiek finantzatzeko deialdia egiten da. Gainera, espazio fisiko egonkorrak diren enplegu-zentroak diruz laguntzen dira. Horietan, kanpoko erakunde laguntzaileek erabiltzailearen edo eskatzailearen eskura jartzen dituzte enplegua bilatzeko hainbat baliabide, hark bere kasa kontsulta ditzan, baita orientatzaile bat ere, lan-munduan sartzeko eta horretarako tresnak erabiltzeko laguntza pertsonalizatua emango diona.

6. **Pertsona gazteentzako lan-aukeren sustapena EAEko sektore estrategikoetan:** lan-merkatuan sartzeko programak ezartzera bideratzen da, babeserako eta sustapenerako neurri zehatzen bidez, EAErentzat estrategikotzat jotzen diren sektore zehatzetan, bereziki, merkataritza-sektorean, aisialdian eta turismoan, sormen- eta kultura-industrietan, pertsonen zaintzan eta arretan eta ingurumenaren birsorkuntzan. Lerro honen baitan, ekimen hauek biltzen dira:

    a. **Merkataritza-sektorearen inguruko ezagutza hobetzeko bekak:** bekadun pertsonak urte oso baterako bidaltzen dira merkataritza-banaketaren arloan lan egiten duten entitateetara. Bertan, eguneroko jardueran parte hartzen dute, tutore baten zaintzapean, beka amaitzean, lana modu autonomoan egiteko prestakuntza lortzeko.

b. **Sormen- eta kultura-industriekin lotura duten laguntza-programak:** kultura-sorkuntza sustatzera bideratuta daude, gazteei laguntza espezifikoa ematen zaien bitartean, beren proiektu profesionalak kulturaren arloan gara ditzaten (adibidez, Sormen Fabrikak, arte eszenikoetan profesionalak prestatzeko laguntzak edo laburmetraiak egiteko laguntzak).

c. **Zientziaren eta teknologiaren arloko ikerketari lotutako prestakuntza-programa espezifikoen garapena,** besteak beste, nekazaritza, arrantza eta elikadurako sektorearen garapen teknologikoko eta enpresa-berrikuntzako arloetan ikertzaile eta teknologoak prestatzeko programaren garapena. Horretarako, bi eta lau urte bitarteko bekak emango dira ikerketa-zentroetan eta enpresa pribatuetan.

d. **Enplegu berdearen sustapena EAEko gazteen artean.** Horretarako, ingurumen-sektoreko enpresetan praktika profesionalak egingo dira.

**7. Aktibaziorako prestakuntza:** Lerro honek euskal gazteen % 5,9k bizi duen egoerari erantzuna ematen dio, ikasten eta lan egiten ez dutenez, hurbilketa berezia behar baitute, pertsona horien motibazioak errekuperatzeko eta, horrela, prestakuntzatik aktiba daitezela lortzeko. Horrenbestez, lehentasunezko ekimen gisa aurreikusten da prestakuntza-mailan hainbat ekimen garatzea (kolektibo horri berariaz zuzendutako prestakuntza-unitateak, iraupen luzeagoko prestakuntza-ibilbideak, etab.), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskutik.

**Gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza**

Helburu estrategiko honen asmoa da orokorrean esperientzia gutxi edo esperientziarik ez duten gazteen kolektiboaren behar espezifikoei erantzutea, lan-baldintzei eta lan-arriskuen prebentzioari dagokienez, aintzat hartuz ezbehar gehienak lan-esperientziaren lehen hilabetetan gertatzen direla.

Hala, hiru lan-ildo hedatuko dira (2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Estrategiaren arabera [2]), euskal gazteen kolektiboan ardazturik:

1. **Informazioa eta komunikazioa:** Funtsean, laneko segurtasunari eta osasunari buruzko ezagutza sortzera eta hedatzera bideratuta dago, beharrezko informazioa errazte aldera, laneko arriskuen prebentziorako kultura sortzeko eta lan-inguruan portaera seguru eta osasungarriak sustatzeko. Modu zehatzean lan egingo da teknologia berrien, komunikazio-kanalen eta sare sozialen erabilera aztertu eta sustatzeko, eta, hartara, gazteen kolektibora heltzeko. Horretarako, hainbat eduki sortuko dira sarean argitaratzeko, eta gazte-kolektiboaren elkarrekintza sustatu eta kudeatuko da, sare sozialen eta telefono mugikorren bidez (Gaztepreben webgunearen arabera).

2. **Ezbeharren kopurua murriztea:** Langile gazteak laneko kalteak jasateko arriskuaren batez bestekoaren gainetik daude, lan-istripuen tasa altuagoa baita lan-esperientziaren lehen urteetan, eta, beraz, gazteen artean. Ondorioz, eta egungo ezbeharrak minimizatzeko eta murrizteko neurriak hartze aldera, gazteen ikuspegitik, honako neurri honi eman zaio lehentasuna:

    a. Gazteen prestakuntza laneko segurtasun eta osasunean, gazteei beharrezko ezagutza emateko oinarrizko elementu gisa, eta ezagutza horren bidez, laneko segurtasuna bermatzeko. Prestakuntzak ikuspegi bikoitza du:

---

[2] Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila: 2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Estrategia [linean] Hemen eskuragarri: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/6075/laneko_segurtasun_osasun_euskal_estrategia.pdf?1426596503 [Kontsulta: 2017/11/03]

i. Lan-merkatuan sartu aurreko etapetan, lanbide-heziketako zentroen loturaren bidez, hainbat jarduera eta bisita garatuko dituzte OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundean, baina baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez ere, lehen enplegua eskatu dutenei laneko arriskuen prebentzioaren arloan oinarrizko prestakuntza eskaintzeko.

ii. Lana duten gazteei dagokienez, prestakuntza-jardueren garapenari lagunduko zaio, lan-zentroetan bertan.

3. **Osasunaren zainketa:** Lerro honen helburu nagusia da orientazio egokia eta hainbat tresna eskaintzea, langile gazteen osasun-zainketa espezifikoa jarduera-sektoreetan behar bezala txertatzeko (arrisku gehien duten sektoreei garrantzi handiagoa emango zaie). Horretarako, babes eraginkorrerako eskubidea bermatuko da, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloari dagokionez. Horrela, osasunaren zainketa espezifikorako gidak eta protokoloak eguneratu, sustatu eta hedatuko dira, eta gazte-kolektiboa berariaz monitorizatuko da, hartzaile gisa. Horrez gain, hainbat ekintza garatuko dira, lana pertsonetara moldatzeko beharrei ekiteko, langile gazteei berariaz zuzendutako esku-hartzeen bidez.

**Gazte ekintzaile gehiago**

Ekimenaren sustapena, aukera interesgarri eta erakargarri gisa, helburu bat da bai eskualde-maila globalean, EAEko 2020rako Ekintzailetzako Erakunde Arteko Planean jasotzen den bezala, bai modu espezifikoan eta gazte-kolektiboaren ikuspegitik, etorkizuneko haien proiektu profesionalak garatzeko aukera erakargarri gisa.

Hala, eta zehazki gazteei zuzendurik, hiru ildo estrategikoren inguruan lan egingo da:

1. **Bokazio ekintzailearen sustapena:** Funtsean, gazteengan kultura ekintzailea sortzeko beharrarekin du lotura, hezkuntza-zikloaren hasierako etapetatik. Hartara, balio horien transmisioarekin espiritu ekintzailea bultzatuko da, oinarrizko osagai gisa, gazte-kolektiboan ekiteko ardura piztu dadin. Lehentasunezko ekimena da hezkuntza-sistematik ekintzailetzarako eskumenetan sentsibilizatzea eta trebatzea. Horretarako, hainbat ekimen gauzatuko dira prestakuntza-zikloetan (lanbide-heziketa, erdi maila eta goi maila), ekimenaren prozesu osoa modu praktikoan hurbiltzeko (ideia izatea-umotzea-enpresa sortzea-kudeatzea):

   a. Modu zehatzean, Urrats Bat programak laguntza profesionala eskaintzen du (prestakuntza eta aholkularitza) lanbide-heziketako ikasleek enpresak sortzeko planteatzen dituzten ekimenentzat. Programaren ikuspuntuak, era berean, heziketa-zentroetan ere enpresak hazi eta sor daitezkeela hartzen du kontuan.

   b. Beste adibide bat Ikasenpresa programa da. Hezkuntza-programa hori Teknika (Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa) bidez kudeatzen da, kultura ekintzailea sustatzeko. Programa horrek hezkuntza-testuinguru berritzailea sortzen du, ikasketa-metodologia guztiz praktikoa erabiliz. Horren bidez, euren erosotasun-esparrutik irtetera eta lan-merkatuan etorkizunean topatuko dituzten egoera eta arazoei aurre egitera bultzatzen dira ikasleak.

   c. Unibertsitateari dagokionez, gaikuntzarako eta ekimenerako programen bidez egingo da lan, graduondoko programak eta doktoretzak ekimenari lotuko zaizkio, enpresa-ehunaren sorrera sustatzeko azpiegiturak jarriko dira eskuragarri eta abian dauden beste programa batzuekin (Zitek, Inizia, Entrepenar) elkarlanean arituko da, besteak beste.

   d. Oro har, hitzarmen berriak zehazteko lan egingo da, lanbide-heziketako zentroekin eta unibertsitateekin elkarlanean, enpresa-tailerrak garatzeko eta lanbide-heziketako zentroetan eta unibertsitateetan bertan sortutako enpresa berriak garatzeko.

2. **Ekimen ekintzaileen babesa:** Gazte ekintzaileek babes integrala behar dute enpresak sortzeko prozesua abian jartzeko eta horretan zehar laguntza jasotzeko (ideia zehazteko, bideragarritasun-analisiak egiteko, negozio-planak lantzeko eta enpresa sortzeko laguntza, besteak beste). Hala, lehentasunezko e kimen gisa, hainbat programa aurreikusten dira, adibidez, Gazteria Zuzendaritzaren gazte-ekimenerako programa, Gazteenpresa edo Lanbidek sustatzen duen pertsona ekintzaileentzako laguntza-programa.

3. **Ekintzailetza eta gizarte-ekonomia:** Gizarte-ekonomiak, enpresak sortzeko modu gisa, eta horrek barne hartzen dituen kontzeptuen ondorioz (gizarte-bilakaera, partaidetza, demokrazia eta elkartasuna, besteak beste), gazte-kolektibora heltzeko gaitasun egokia du. Gainera, eredu horrek enpleguaren sorrera eta, oro har, beste alor batzuetan baino kalitate handiagoko lan-baldintzak sustatzen ditu, eta oso erroturik dago EAEn. Hala, interesgarria litzateke ildo estrategiko bat hedatzea, gizarte-ekintzaile gazteei bideratutako laguntza bultzatzeko eta indartzeko:

   a. Gizarte-ekonomian prestakuntza espezifikoa eta bereizia eskaintzeko jardueren garapenaren bidez.

   b. Junior Kooperatiba programen eta antzeko beste programa batzuen bidez. Hezkuntzaren arloarekin lotura handiagoa du horrek, eta jarduketaren baitan, unibertsitate-ikasleek osatutako kooperatiba-sozietateen sorrera diruz laguntzen da. Ikasle horiek, prestakuntza akademikoaren baitan, enpresa bat garatu behar dute unibertsitatearen zaintzapean.

   c. Beste programa edo laguntza batzuen bidez, ekimen berriak garatzeko, abiarazteko eta sendotzeko.

**Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzea**

Ahultasun-egoeran, baztertuta geratzeko arriskuan edo baztertuta dauden gazteen kolektiboari foku espezifiko batetik eman behar zaio arreta; izan ere, behar zehatzak dituenez, ekimen espezifikoak diseinatu behar dira horietarako. Horrenbestez, bi ildo estrategiko nagusiren inguruan egingo da lan:

1. **Prestakuntzaren eta kualifikazioaren hobekuntza:** kualifikazioaren eta laneratzearen arloko ekintzen konbinazioaren ikuspegitik:

   a. Enplegurako prestakuntza-jarduerak garatuko dira, egoera horretan dauden gazteei modu espezifikoan zuzendutakoak, lan-orientazioaren ereduaren esparru komunean.

   b. Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak garatuko dira, gizarte-bazterkeriaren egoera larrian dauden pertsonei bideratuak, fokua gazteetan jarriz. Ibilbide horiek oinarrizko hainbat eskumen lortzeko aukera eman behar dute, lan-merkatuarekin, hasierako tutorizazioarekin eta lanpostuaren mantentzearekin lotura dutenak, eta finean, gizarte-bazterkeriaren egoera larrian dauden pertsonen enplegagarritasunaren hobekuntzarekin. Sendotu izeneko programa, besteak beste, ekimen horri erantzuna emateko bideratzen da, baina foku zabalago batetik.

2. **Orientazioa eta laguntza espezifikoa:** jarduera integralen garapena sustatzeko helburua du, EAEko gazte-kolektibo hauen laneratze-prozesuan laguntza emateko. Horien barnean sartzen da, besteak beste, atzerritar gazteei orientazioa eta laguntza ematen dien HEMEN programa, adin-nagusitasuna betetzean, emantzipazio-programetara sartu ezin izan direnez, ahultasun- eta babesgabezia-egoeran dauden kasuetan.

**Enpleguaren arloko jarraipenerako eta ebaluaziorako adierazleen proposamena**

| HELBURU ESTRATEGIKOA | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan | - Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programetan parte hartzen duten ikasleen kopurua (lanbide-heziketa eta unibertsitatekoak).<br>- Lanbide-heziketa dualeko eta unibertsitateko ikasleen kopurua eta kasu bakoitzeko ehunekoa, ikasleen guztizkoari dagokionez. |
| Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago | - Kontratatutako gazteen kopurua (esperientziarik gabe edo esperientziarekin), sustatutako programen bidez (Lehen Aukera + Gazteen itzulera + Landhome + tokiko enplegu planak + erreleborako programa).<br>- Bekaren bat lortu duten gazteen kopurua (atzerrian esperientzia lortzeko programak).<br>- Sustatutako programen bidez EAEra bueltatu diren gazteen kopurua. |
| Gazteriaren lan-baldintzen hobekuntza | - Prestakuntza jaso duten gazteen kopurua (lanbide-heziketako zikloetan eta lan-zentroetan).<br>- Gogobetetze-maila jasotako prestakuntzarekin eta prestakuntzaren aplikagarritasun-maila lanpostuan.<br>- Informazio-jardunaldiak antolatu dituzten enpresen eta lan-zentroen kopurua. |
| Gazte ekintzaile gehiago | - Gazteek sortutako enpresen kopurua<br>- Atxikitako lanpostuen kopurua |
| Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen laneratzea | - Aholkularitza jaso duten eta ibilbideak osatu dituzten gazteen kopurua<br>- Enplegurako prestakuntza-motaren bat jaso duten gazteen kopurua<br>- Bazterkeria-egoeran dauden gazte kontratatuen kopurua |

## b. Etxebizitza

Helburu hau lortzeko, bi ildo estrategiko hedatu behar dira, elkarren artean independenteak:

- **Etxebizitzen eskuragarritasuna erraztea,** gazteen bizi-proiektu independenteen garapenerako bide gisa. Hartara, gero eta gazte gehiagok izango ditu hainbat hautabide eskura, nahi duen adinetik gertu emantzipatu ahal izateko.

- **Lehentasuna emango zaio alokairuari,** hori baita gazte-kolektiboaren gehiengoak modu argian hautatzen duen aukera, etxebizitza erosteko aukeraren aurrean.

- **Hainbat formaturen bidez egingo da,** etxebizitzak eskuratzeko modu tradizionalak osatzeko eta ekimen berritzaileagoak hedatzen jarraitzeko, ekimen pilotu gisa plantea daitezkeenak, aurrez arrakastatsuak izan diren beste batzuekin konbinatuz.

Horretarako, ahaleginak helburu estrategiko argi batean ardaztuko dira:

### Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat

Helburu hau lortzeko, bi ildo estrategiko hedatu behar dira, elkarren artean independenteak:

**1. Gazte-kolektiboei etxebizitza babestuak lortzeko lehentasuna ematea:** Gaur egun etxebizitzak (modalitate ezberdinetan) esleitzeko indarrean dauden irizpideen analisiak hainbat eskakizun eta baremazio aurreikusten ditu, praktikan asko zailtzen dutenak EAEko gazteek etxebizitza babestu bat eskura dezatela. Zehazki, alokairuan dauden etxebizitzak esleitzeko Etxebideren egungo sistemaren arabera, etxebizitzak lortutako puntuazio-ordenaren arabera esleituko dira. Horretarako, hainbat baremazteko irizpide aplikatuko dira, lehentasun-ordenaren arabera jasotakoak, besteak beste: antzinatasuna (Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan etxebizitza alokairuan eskatu zenetik zenbatuta), bizikidetza-unitateko kide kopurua edo etxebizitza-premia bereziko kolektiboren baten kide izatea. Horrenbestez, errealitateak erakusten du gaur egun oso gazte gutxi daudela Etxebideren erregistroan izena emanda, nahiz eta hori izan etxebizitza-politika gauzatzeko tresna nagusia.

Horregatik, eta Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen arau-garapenaren testuinguruan, zeinak etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzen baitu, Eusko Jaurlaritzak lehentasunezko bi ekimen planteatzen ditu:

a. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa erregulatzen duen Arau Dekretua garatzea, non gazte-kolektiboari lehentasuna emango baitzaio.

b. 2012ko urriaren 15eko Agindua berrikustea, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa (2012ko abenduaren 12ko Agindua ere barne hartuko da, aipatutako agindu juridikoaren akatsak zuzentzeko dena), bereziki, III. Kapitulua, bertan erregulatzen baita Etxebideko etxebizitza babestuaren araubidea eta esleitzeko baremazioa. Modu horretan, kupo batzuk ezartzea planteatzen da, hainbat kolektiboren arabera definitu eta zehaztu beharrekoak, besteak beste, gazte-kolektiboaren arabera. Hortik abiatuta, kasu bakoitzerako baremazio-irizpideak berrikusi eta berriz definitu beharko dira.

**2. Gazte-alokairua hobetzeko formula eta neurri berriak garatzea:** Alokairua denez gazte-kolektiboaren lehen aukera, ildo horretan lehentasunezko hainbat ekimen aurreikusi dira, gazteei hainbat aukera eskaini eta, horrenbestez, etapa ezberdinetan zehar dituzten beharrei erantzuna eman ahal diezaieten:

a. Zuzkidurazko bizitokien garapenari laguntzea. Bizitoki-mota honen kontzeptua, Etxebideren parametroen arabera, honako honetan oinarritzen da: bizileku-eraikina, titulartasun publikokoa, etxebizitza babestuaren arloan aurreikusitako laguntzen laguntzarekin eta erabiltzaileek aldi baterako okupatuta, zuzenbidean onartutako edozein formularen bidez (errentamendua, logela-eskubidea, usufruktoa...) eta, zuzkidurakoa izaki, ezin izango da saldu inolaz ere.

Tresna eraginkorra dela frogatu da, eta txandaka alokatzeko modalitatearen arabera, etxebizitza bost urteko epean eskura daitekeenez, horren sustapena bultzatuko da. Hartara, instituzioen arteko lankidetzarako ekimen honek aukera emango du gazte-kolektiboari soilik zuzendutako etxebizitzen eskaintza handitzeko, honako abantaila nagusi hauekin:

i. Prezio murriztua dute, diru-sarrera txikia duten kolektiboek errazago eskuratu ahal izateko.

ii. Legeak ekipamendu komunitario gisa definitzen dituenez, zuzkidura publiko gisa kalifikatutako espazioetan eraiki daitezke.

iii. Aldi baterako esleitzen dira, gehienez ere bost urterako, eta horrela, txandakatu egiten dira, pertsona gehiagok izan dezan horiek eskuratzeko aukera.

iv. Era berean, aldi baterako direnez, emantzipazioa nahi baino sei urte geroago lortzen duten pertsonek osatutako kolektiboari babesa ematen zaio egonkortasun handiagoa lor dezan.

v. Hainbat zerbitzu partekatu behar dituzte, besteak beste, arropa lehortzeko gunea, bilgunea, etab. Hartara, bizikidetza eta hiriko inguruneen suspertzea sustatzen eta bultzatzen dira.

vi. Etxebizitzen diseinuek eta materialek kalitatearekin, erosotasunarekin eta jasangarritasunarekin (eskaera energetikoaren murrizketa, uraren erabileraren arrazionalizazioa, etab.) loturiko estandar altuak bermatzen dituzte.

b. Partekatutako pisuen programa berrikustea. Horretarako, aurreko programei dagokienez, bilakaera nagusi gisa, gazteak taldean aurkezteko aukera aurreikusiko da, programara pisua partekatu nahi duten hautagai-multzo gisa aurkezteko aukera, alegia, baldin eta programaren irizpideak betetzen badituzte. Modu horretan, aurreko programetan erregistratutako problema nagusietako bat konpondu nahi da, pertsona ezezagunen arteko bizikidetzak eta ohitura ezberdinek zaitasunak sortzen baitzituzten.

c. Belaunaldien arteko bizikidetzarako ekimenak. Emantzipazioa errazteaz gain, beste hainbat gizarte-onura ekarriko dituzte, batez besteko adin altua duten populazio-guneak suspertzeko bultzadari esker.

d. Hiri-apartzeriako proiektu aurreratu bat zehaztea. Etxebizitzen, birgaitzearen eta enpleguaren arteko loturak sortzea du helburu, eta zehazteko elementu hauek hartuko dira kontuan:

i. Etxebizitza-parkea birgaitzeko beharra

ii. Birgaitzea, jarduera ekonomiko gisa

iii. Gazte-kolektiboarentzako etxebizitzen eskaintza

**Etxebizitzaren arloko jarraipenerako eta ebaluaziorako adierazleen proposamena**

| HELBURU ESTRATEGIKOA | ADIERAZLEAK |
| --- | --- |
| Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat | - Etxebiden izena eman duten gazteak<br>- Gazteentzako alokairu-etxebizitzen eskaintza, egungo parkeari dagokionez<br>- Gazte-kolektiboari esleitutako etxebizitzen kopurua, dekretu berrien aplikazioaren ondoren, eta esleipen horien ehunekoa, guztizkoari dagokionez<br>- Gazte onuradunen guztizko kopurua |

## c. Hezkuntza

Pertsonen bizialdiko etapak barne hartzen dituen etengabeko prozesua da hezkuntza. Horren helburua da gizakiaren gaitasunen garapen gorena lortzea dimentsio guztietan, banako subjektua eta pertsona aktiboa dela eta garapen sozialarekin eta ingurumenaren garapen jasangarriaren garapenarekin konprometituta dagoela aintzat hartuta. Horren funtzioa ezagutzak eta trebetasunak transmititzea baino gehiago da. Jarreren eraldaketa barne hartzen du, batez ere, gazteen artean; balioak transmititzeko eta konpartitzeko kanala da, eta indar integratzaile izugarria. Ikasleei etorkizuneko karrera profesionaletarako prestakuntza emateaz gain, gizartean erabat garatu ahal izateko tresnak ematen dizkie. Horregatik, gizarte gero eta aurreratuagoa eduki nahi bada, beharrezkoa da, era berean, hezkuntza-sistema aurreratua edukitzea.

Hala, zeharkakotasun handienetarikoa duen arloa da hezkuntza, eta beraz, hainbat esparrutatik ekin behar zaio. Zentzu horretan, hezkuntzari dagozkion helburuen, ildoen eta ekimenen hedapen estrategikoa garatzeko, irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Ez dira hartzen eredu pedagogikoarekin loturiko ekimentzat; dagoeneko estrategia bat existitzen da, hainbat dokumentutan hedaturik: Heziberri 2020 . Estrategia horrek, hain zuzen, helburuak, curriculumeko edukiak eta ikasleen ikasketaren ebaluazioa garatzen ditu bere eremu guztian. Era berean, unibertsitate-eremuan jarri da arreta, plan propioa baitu: 2015-2018rako Unibertsitate Plana[3].

[3] Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila: 2015-2018ko Unibertsitate Plana [linean] Hemen eskuragarri: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/uni_planes_universitarios/eu_def/adjuntos/plan_uni_2015_2018_e.pdf [Kontsulta: 2017/10/13]

- Zeharkakotzat jo diren gaiak, eta helburu gisa IV. Gazte Plan honetan aztertutako beste eremu batzuk dituztenak, azken xedearen arabera jaso dira (besteak beste, osasuna, enplegua eta berdintasuna), eta horregatik, Hezkuntzako arduradunekin batera landu behar diren arren, plan honetako beste puntu batzuetan aztertzen dira.
- Eremu honetan, **beraz, hezkuntzatik hedatu behar diren ekimenak aurreikusten dira. Horien helburu nagusia garapen pertsonala da, eta beraz, balioetan oinarritutako hezkuntza. Era berean, berdintasunaren eta ekitatearen ikuspegitik gaitasun zehatzak eskuratzera bideratutako ekimen guztiak barne hartzen dira.**

**Balioetan oinarritutako hezkuntza**

Balioak gure portaeraren baitako jokabideak eta jarrerak dira, eta zuzentzat jotzen dugun horrekin bat datoz. Balioek bizi-ikuspegia, izaera eta nortasuna erakusten dute, eta gizarte osoaren bizigarria dira. Horregatik, balioetan oinarritutako hezkuntza eman behar diegu gazteei, eta EAEren kasuan, balio gisa identifikatu dira honakoak: bizikidetzaren sustapena, bakea, kontziliazioa, elkartasuna, aukera-berdintasuna, tolerantzia, ahalegina eta erantzunkidetasuna [4].

IV. Gazte Planaren esparruan, lehentasunezko bost ildo identifikatu dira helburu estrategiko horri dagokionez:

**1.Bakea eta bizikidetza:** 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren gomendioek adierazten dutenez[5], bizikidetzaren arloko hezkuntza modu positibo eta zabalean landu behar da, enpatiarekin erlazionatutako elementuak eta pertsonen errekonozimendua zein haien aniztasunarena gehituz. Gomendio horiei jarraituz, ildo honek giza eskubideen araberako hezkuntza sendotzeko beharra jasotzen du (aipatutako planaren helburu espezifikoetako bat), giza duintasunaren fundamentu pedagogikoan oinarrituz eta bakearekiko, aniztasunarekiko eta elkartasunarekiko konpromisora bideratuz, enpatiaren aldeko aukeratik abiatuta. Horretarako, lehentasunezko hainbat ekimen landuko dira, hezkuntzarako tresnak sortzeko eta gizarte- eta hezkuntza-arloko elkarrekintza sendotzeko, bizikidetzaren eta giza eskubideen esparruan egiteke dauden eta sortzen ari diren erronken aurrean, batez ere, Gogora-Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren bidez eta hezkuntza-eragileen adostasunaren eta lankidetzaren bitartez. Honako ekimenak zehazten dira:

a. Ikastetxeen Bizikidetza Planak, besteak beste, jarduera hauek jasotzen ditu: Adi-adian biktima hezitzaileen lekukotzaren inguruko proiektua, edo Eskolabakegune web orria eta materialak. Gizalege akordioaren esparruan egiten du hori, eta Elkarrekin programaz baliatzen da planak baliabideekin hornitzeko.

b. Bakegintza eta bizikidetzarako hezkuntzarekin eta hezkidetzarekin lotura duten prestakuntza-jarduerak, irakasleek hainbat estrategia eta ezagutza beregana ditzaten, bakegintza eta bizikidetzarako hezkuntzarekin lan egiteko.

---

[4] Hezkuntza Sailburuaren aurkezpena http://www.euskadi.eus/saludo-de-la-consejera-cristina-uriarte/web01-s2hhome/es/

[5] Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia (2017): 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana [linean] Hemen eskuragarri: http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9390/Bizikidetzaren_eta_Giza_Eskubideen_Plana.pdf [Kontsulta: 2017/10/19]

2. **Berdintasuna, errespetua eta genero-indarkeriaren prebentzioa:** Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planak hezkidetza-eredua sustatzea du helburu. Horretarako. sexuaren araberako estereotipoak eta rolak alde batera utzita, pertsonen garapen integralean oinarrituko da; ikasleak era guztietako bazterkeria eta genero-indarkeriaren gaitzespenean heziko ditu, eta orientazio akademiko eta profesionala eskainiko du, generoa kontuan hartu gabe, hezkuntza-komunitateko pertsona guztien partaidetzarekin eta inplikazioarekin. Hala, gazteen ikuspuntutik, hauek dira lehentasunezko ekimenak:

   a. Irakasleak eta hezkuntza-komunitatea gaitzeko ekimenak. Horien bidez, prestakuntza eta baliabideak eskainiko dira hezkidetzaren, aniztasun afektibo eta sexualaren eta genero-indarkeriaren arloan. Nahiko edo Berdindu Eskolak programak ildo honetako bi adibide dira.

   b. Unibertsitateen lankidetza sendotuko da, unibertsitate-sistematik ere berdintasun-ikasketak susta daitezen (adibidez, EHUren Emakume eta Gizonen berdintasunaren gaineko Masterra).c. Curriculuma genero-ikuspegitik garatuko da. Horretarako, gidak eta materialak egingo dira; laguntzetarako deialdiak egingo dira, zentroek beren hezkidetza-proiektuak diseina ditzaten; edo hainbat ekimen hedatuko dira, hezkidetzaren arloan ezagutza-trukea sendotzeko.

   d. Tutoretzetan genero-ikuspegia txertatzeko ekimenak.

   e. Genero-indarkeriaren eta emakumeen aurkako beste indarkeria- eta abusu-mota batzuen sozializazio prebentibora bideratutako ekimenak. Horretarako, materiala, prestakuntza eta laguntza erraztuko zaie ikastetxe eta irakasleei, arreta eta detekzio goiztiarraren ikuspuntua barne hartuz.

   f. Familien parte hartzearekin erlazionatutako ekimenak. Izan ere, eskolan rolak eta estereotipoak desager daitezen eta generorik gabeko prestakuntza akademikoa eta profesionala lor dadin, irakasleen lanaz gain, familien parte-hartzea ere behar da.

   g. Ikasleen arretarekin lotura duten ekimenak.

3. **Arrisku-egoerak prebenitzeko prestakuntza:** Egungo gizartean gazteek arriskua ekar dezaketen hainbat egoera bizi dituztenez, funtsean teknologia berriei dagokienez, ildo honetatik hainbat ekimen hedatu nahi dira, ikastetxeei lan horretan laguntzeko:

   a. Bizikasi ekimena abian jarriko da, eskola-jazarpenaren aurkako ekimena, euskal hezkuntza sistemako bizikidetza positiboaren alde. Bestalde, lanbide-heziketako zentroetan eta unibertsitateetan, hainbat programa, proiektu eta jarduera garatzen dira, eskola-jazarpena eta ziberbullying-a genero-ikuspegitik landu ahal izateko. Lerro honetan, Euskadiko Ziber-segurtasun Zentroarekin lankidetzan aritzea balioetsiko da.

4. **Ingurumen-hezkuntza eta horren erlazioa ekonomia zirkularrarekin:** Ingurumena errespetatzeko balioetan oinarritutako hezkuntzak garrantzi handia du, horren edukiak erlazioa baitu funtsezko gai hauekin: kutsadura, espezieen suntsipena, ur edangarria amaitzea, biodibertsitatearekiko errespetua, etab. Eskolako Agenda 21 funtsezko ekimena da arlo honetan, curriculumean jasangarritasun irizpideak txertatzeko helburua baitu. Tresna eraginkorra da Heziberri 2020ren oinarrizko eskumenak garatzeko eta, ondorioz, XXI. mendeko herritar arduratsuak eta konprometituak hezteko. Gainera, 2002-2020rako

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian jasotzen diren xedeak lortzen laguntzeko bitarteko ezin hobea izan daiteke [6].

**Euskal gazte eleaniztun gehiago**

XXI. mendeko euskal gizartea eleaniztuna da. Beraz, ikastetxeek eleaniztun izateko prestatu behar dituzte herritarrak. Egungo gizarte globalaren testuinguruan, gainera, bi hizkuntza ofizialetan hitz egiten jakiteaz gain, beharrezkoa da hizkuntza globalen bat ezagutzea, euskal gazteei mundura irekitzen lagundu eta ideien trukeari eta kulturen arteko ulermenari bide emateko. Hori guztia egitean, arreta jarri behar zaio euskararen babesari, EAEk duen altxor baliotsuenetakoa baita, eta hezkuntzaren arloan indartu egin beharko da, bi hizkuntza ofizialen arteko desoreka (gaur egun, euskararen kaltetan) gainditzeko, eta bi hizkuntzen gizarte-berdintasuna eta ikasleen aukera-berdintasuna sustatzeko.

Horrez gain, eta Eusko Jaurlaritzarentzat euskararen bultzadak zeharkako izaera duela aintzat hartuz, horren sustapena plan honetako beste helburu batzuetan agertzen dela nabarmendu behar da. Hala, IV. Gazte Planaren testuinguruan, Eusko Jaurlaritzaren jarduera ildo estrategiko hauetan antolatzen da:

1. **Euskara sustatu eta sendotzea hezkuntza formalaren arloan:** gazteen euskarazko hizkuntza-gaitasuna hobetzeko eta euskararen erabilera hezkuntzaren hainbat arlotan sendotzeko, lehentasunezko ekimen hauek identifikatu dira:

    a. Hizkuntzaren normalizaziorako programak, euskara eskolako irakasgaian soilik erabiltzera mugatzen ez direnak: Ulibarri programa. Eskolan eta horren inguruan jarduten du programak, eta helburu hauek ditu: eskoletan hizkuntza normalizatzeko proiektuak diseinatzea eta gauzatzea eta euskararen ezagutza eta erabilera areagotzen laguntzea, eskoletako gizarte-talde guztien artean (ikasleak, irakasleak, administrazio-langileak eta gurasoak).

    b. Ikastetxe publiko eta kontzertatuentzako laguntza, gela barruan zein kanpoan hainbat ekintza hedatzeko, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan: Nolega laguntza.

2. **Hizkuntza-gaitasunen garapena beste hizkuntza batzuetan, mundura gehiago irekitzeko oinarri gisa:** Mundu global batean bizi gara, eta beraz, hizkuntza-gaitasunez gain, beste inguru batzuetan modu autonomoan moldatzeko gaitasunak behar ditugu. Hori dela-eta, lehentasunezko ekimen hauek planteatzen dira:

    a. Ikasleei zuzendutako ekimenak, beste hizkuntza batzuetan hizkuntza-gaitasunen garapen handiagoa eta sakonagoa sustatzeko: Ekimen garrantzitsuenen artean hauek aipa daitezke:

        i. Atzerrian hizkuntza-ikastaroak egiteko laguntza. Bekak hainbat herrialdetan mantenduko dira (Alemania, Frantzia eta Erresuma Batua), eta gaur egun, DBH 3. eta 4. mailetara eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetara zuzentzen dira.

        ii. Erasmus bekak, Erasmus + programa europarra. Ikastetxeetan gizarte-eredu europarraren balioei eta oinarriei buruzko ezagutza eta hausnarketa sustatzea du helburu, eta gazteak Europa eraikitzeko prozesuetara hurbiltzea.

[6] Eusko Jaurlaritza (2002) EAEko Ingurumen Esparru Programa [linean] Hemen eskuragarri: http://www.euskadi.eus/contenidos/plan/eavds_pma/eu_9688/adjuntos/pma0206.pdf [Kontsulta: 2017/11/02]

iii. EAEko gazteei bizitzako etapetan zehar hizkuntza-gaitasunak bereganatzea ahalbidetzeko beste ekimen batzuk.

iv. Ikasle-trukeak adin gazteagoetan bultzatzeko ekimenak, hizkuntzari lotutako helburuekin, baina baita helburu sozialekin ere.

b. Ikastetxeei edo hezkuntza ez-formalarekin lotura duten beste eragile batzuei zuzendutako ekimenak.

i. Atzerriko-hizkuntza sendotzeko programaren laguntzak, lanbide-heziketako zikloak eskaintzen dituzten ikastetxe pribatu kontzertatuetan.

ii. Diru-laguntzen deialdia, mugikortasuna edo gazteen arteko trukea helburu duten ekintzak garatzeko, EAEko eta beste eskualde batzuetako eta Europar Batasuneko Estatu kideetako gazte-taldeen artean, eta era horretan, gazteen gizarteratzea sustatzeko, mugikortasun-ekintzek errazten dituzten trebetasunak, gaitasunak eta eskumenak barneratuz.

**Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman**

Euskal hezkuntza-sisteman sartzeko eta bertan mantentzeko, aukera-berdintasunen printzipioa bermatzen da, besteak beste. Hala, gazte guztiek hezkuntza-sisteman sartzeko eta mantentzeko aukera berdinak izan ditzaten lan egin da eta egiten da.

Testuinguru horretan, bi ildo estrategiko identifikatu dira, gizarte-desberdintasunen eragina murrizte aldera:

1. **Erraztasunak ematea ikasketetan sartzeko, mantentzeko eta horiek amaitzeko**, batez ere, derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketetan; hartara, ikasle guztiak hezkuntza-sisteman mantendu daitezela eta aurrera egin dezatela bultzatu eta erraztuko da. Modu horretan, lehentasunezko ekimen hauek garatuko dira:

    a. Zailtasun bereziko egoeran dauden ikasleei erantzuna emateko ekimenak. Besteak beste, unibertsitateko prezio publikoak salbuetsiko dira hainbat egoeratan. Unibertsitate-matrikularen ordainketa murriztu edo salbuetsiko da, ikasleek unibertsitateko prezio publikoak erregulatzen dituen aginduak jasotzen duen egoeraren bat bizi badute: guraso bakarreko familia, terrorismoaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak, senide desgaituak.

    b. Unibertsitate-beka orokorraren, bikaintasun akademikoko bekaren eta mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleentzako bekaren deialdia. Unibertsitateko eta goi-mailako beste ikasketa batzuetako ikasleei zuzendutako bekak, eta mugitzeko zailtasun bereziak dituzten EAEko ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko diru-laguntzak, unibertsitateko zein goi-mailako beste ikasketa batzuetako ikasleei zuzenduak. Bikaintasunarekin loturiko laguntzek etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatestea eta saritzea dute helburu.

2. **Eskola inklusiboa**: haur eta gazte guztiek hezkuntza jasoko dutela bermatzen du eskola inklusiboak; ez, ordea, edozein hezkuntza, kalitatezko hezkuntza baizik, guztiei aukera berdinak emango dizkiena, modu justu eta ekitatiboan. Hala, aldaketaren motortzat jotzen dira ikastetxeak, espazio horretan benetako eraldaketak gertatzen direlakoan, eta horrenbestez, eszenatoki horretan bilatu behar dira ikasle guztiak barne hartzen dituzten bitartekoak, inolako bazterkeriarik gabe. Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza Sailaren bitartez, edozein motako aniztasunari erantzuna emango dion hezkuntza

inklusiboa garatzeko lan egiten du. Inklusioaren printzipioa testuinguruak eraldatzeko beharretik abiatzen da, pertsona bakoitzari erantzunik hoberena emateko, eta ez alderantziz. Paradigma-aldaketa horrek, hezkuntza-sistemaren estamentu guztiez gain, gizartea ere barne hartzen du, oro har. Zentzu horretan, hainbat ekimen garatuko dira, kulturartekotasuna sustatzeko, ikasle guztiei hezkuntzaren arloko arreta emateko eta, orokorrean, EAEko ikasleak ezaugarritzen dituen aniztasunari erantzuteko.

**Gazte ikertzaile gehiago**

EAEk funtsezko funtzioa bete nahi du ezagutzaren gizartean, ZTBP Euskadi 2020[7] Espezializazio adimentsuko estrategiak jasotzen duen bezala, baina hori ez da posible ikerketaren eta teknologiaren munduan karrera profesionala garatzeko talentua, gaitasunak eta motibazioa duen pertsonarik gabe. Horrela, ikertzaile gazteen prestakuntza eta kualifikazioaren hobekuntza funtsezkoa da euskal sistemak jakintza zientifikoa eta teknologikoa sortzeko gaitasuna izan dezan. Eta bultzada horretan, genero-ikuspegiak erdigunean egon behar du, karrera zientifikoak berdintasunaren arabera garatu daitezela sustatzeko.

Helburu hau IV. Gazte Planaren ikuspegitik landuko da, eta hiru ildo estrategiko hedatuko dira:

1. **Bokaziorako bultzada gaztetatik, bokazio zientifiko goiztiarra sustatzeko,** ekimen hauek hedatuko dira, besteak beste:

    a. Euskal zientzialariekin topaketak egingo dira ikastetxeetan, ikerketa-ikasketak ikasgeletara gerturatzeko, trebetasun zientifikoak azaltzeko, EAEko ikertzaileen eta ikasleen arteko harremanak sustatzeko eta batxilergoan edo goi-mailako ikasketetan ibilbideak hautatzeko orduan informazioa emateko. Jakiunde akademiaren Jakin-Mina programa, Donostia International Physics Center-en Topaketak programa edo Basque Centre for Climate Change zentroarekin lankidetzan egindako Training Caravan programa, batzuk aipatzearren, beste kasu batzuetara heda daitezkeen adibideak dira.

    b. Teknologia- eta ikerketa-zentroetara eta Zientziaren Museora bisitak egingo dira; izan ere, azpiegitura zientifiko eta teknologiko horiek zientziari eta ikerketari ateak ireki diezazkiekete eta horienganako benetako hurbilketa erraztu dezakete, ikasketak amaitu ondoren aukera eta lan-irteera sorta zabala dagoela erakusten baitiote ikasleei. Era berean, bokazio zientifikoa sustatuko da.

2. **Gazte ikertzaile eta teknologoentzako laguntza:** ildo honen helburua da ikerketa-ikasketak hautatu dituzten gazteei laguntzeko ekimen guztiak biltzea, eta ikasketetan zehar laguntzea. Hala, lehentasunezko ekimen hauek nabarmentzen dira:

    a. Ikasiker lankidetza-bekak, ikerketa-lanetan hasi nahi duten unibertsitateko ikasleentzat.

    b. Berrikertu programa. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileetan eta

[7] Eusko Jaurlaritza (2014): ZTBP EUSKADI 2020 Espezializazio adimentsuko estrategia [linean] Hemen eskuragarri: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/5585/PCTI_Euskadi_2020.pdf [Kontsulta: 2017/10/04]

enpresetan giza kapital ikertzailea sartzeko helburua du, itzuli behar ez diren diru-laguntzen bitartez ikerlariak kontratatzeko.

c. Doktoreak ez diren ikerlariak prestatzeko Doktoratu Aurreko Programa, doktoreak ez diren ikerlariek doktorego-tesia egitera bideratutako ikerketa finantzatzeko laguntzak ematen dituena, doktorego-programa baten bidez, kalitatezko zientzia-ikerketari lotutako gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko.

d. Ikerlari Doktoreentzako Hobekuntzarako doktoretza-ondoko Programa, EAEko ezarpen-zentroetan hobekuntza programetan izango diren ikertzaile-doktoreentzako eta atzerrira joango diren ikertzaile-doktoreentzako laguntzak ematen dituena.

3. **Emakume gazteak ikerketari lotutako karreran:** diagnostikoan gizonen eta emakumeen arteko desoreka handia nabarmentzen denez –ez hainbeste ikerketari lotutako karreraren hasieran, baizik eta horren garapenean–, honako ekimen hauek identifikatzen dira, horien garapenarekin emakumezko ikertzaile gazteen karrerak sendotzen laguntzeko:

   a. Emakumea erdigunean kokatzen duten aitorpen edo sari zientifikoak baloratzea. Era berean, erraztasunak jarriko zaizkie epaimahaikide gisa parte har dezaten, eta EAEko emakume ikertzaile gazteen hautagaitza bultzatuko da, nazioarteko sari eta aitorpenetan.

   b. EAEko ikastetxeei edo hezkuntza- eta zientzia-sistemaren beste azpiegitura batzuei euskal emakume zientzialari ezagunen izena jartzeko aukera baloratzea.

   c. Emakumeen karrera zientziaren arloan babestea, ardura eta ospe handieneko kategoria akademikoetan hazi eta irmotu daitezen, besteak beste, katedra eta zuzendaritza zientifikoetan.

[8] Gobierno Vasco (2014): PCTI Euskadi 2020 Una estrategia de especialización inteligente [en línea] Disponible en: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/5585/PCTI_Euskadi_2020.pdf [Consulta: 4/10/2017]

**Hezkuntzaren arloko jarraipenerako eta ebaluaziorako adierazleen proposamena**

| HELBURU ESTRATEGIKOA | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| Balioetan oinarritutako hezkuntza | - Bizikasi ekimena garatu duten zentroen kopurua, guztizko kopuruaren gainean<br>- Bizikasi ekimenaren esparruan prestakuntza jaso duten irakasleen kopurua<br>- Oinarrizko sentsibilizazioa jaso duten irakasleen ehunekoa (10 orduko modulua)<br>- Hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren arloan prestakuntza jaso duten pertsonen ehunekoa, kolektiboen arabera bereizita (ikuskatzaileak, ebaluazio- eta berrikuntza-zerbitzuak)<br>- Hezkidetzari eta genero-indarkeriari buruz prestakuntza jaso duten ikastetxeetako zuzendaritza-kargudunen ehunekoa |
| Euskal gazte eleaniztunak | - Euskara bultzatzeko eta babesteko programetan parte hartu duten ikasleen kopurua<br>- Atzerriko esperientziekin lotura duten ekimenetan parte hartu duten ikasleen kopurua (atzerriko bekak+erasmus plus bekak+bestelakoak)<br>- Parte hartzaileen gogobetetze-maila, esperientziari dagokionez |
| Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman | - Bekak jaso dituzten ikasleen kopurua, beka-motaren arabera bereizita<br>- Bekadun ikasleen ehunekoa, matrikulatutako ikasleen aldean, beka-motaren arabera bereizita |
| Gazte ikertzaile gehiago | - Urtero programatzen diren ekimenetan parte hartzen duten ikasleen kopurua<br>- Ikerketa laguntzeko beken onuradunen kopurua (Ikasiker+berrikertu+doktoratu aurrekoa+doktoratu ondorengoa) |

## 2. ARDATZA. Ongizatea eta bizitza osasungarria

### a. Osasuna

Osasunak, bizitzako lehen etapetan, lotura estua gordetzen du helduaroko bizitzaren osasunarekin. Euskal gazteen osasun-egoeraren analisiak hainbat zantzu kezkagarri erakusten ditu: obesitatearen murrizketa txikiegia, osasun mentaleko arazo gero eta gehiago, sexu-transmisiozko infekzioen tasa nahiko altuak edo sustantzien-kontsumoari lotutako portaera berrien inplikazioak, besteak beste [8]. Osasun-egoera egokian egon ezean, lan- eta bizitza-proiektuak erabat garatzea ezinezkoa dela aintzat hartuz, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak bultzatutako estrategia globalaren arabera hedatu da ardatz hau, eta honako gogoeta hauek hartu dira kontuan:

- Zenbait kausek pertsonen ongizate-egoerari eragiten diote, oro har, eta gazte-kolektiboaren egoerari, zehazki, eta hori zehaztu eta baldintzatzen dute, neurri handi batean. Norberaren autonomia eta eguneroko beste ekintza batzuen oreka (osasun mentala) ahalbidetzen duten enplegagarritasun-baldintzek, ingurumen-baldintzek (OMEren arabera, heriotzen % 23 ingurumenarekin du lotura), edo bizitzeko erabiltzen diren espazioen lurralde-planifikazioak eragina dute populazioaren osasunean, batez ere, elikaduran, jarduera fisikoan, etxebizitzan, garraioan eta hiriko konexioetan edo kohesio eta konektibitate sozialean. Horietako zenbait plan honen beste ardatz batzuetan jorratzen dira, eta beste batzuk, ordea, planetik harago doaz; hala ere, beharrezkotzat jo da gogoeta hori jasotzea, gazte-kolektiboaren osasun-eragileen irudi osoa eskaintzen baitu [9].
- Bestalde, gazteen jokaera-ereduek eragin argia dute haien ongizate eta osasun-egoeran. Hori dela-eta, informaziora, prestakuntzara eta ohitura osasungarriagoen aldeko gazteen kontzientziaziora bideratutako ekimenak aurreikusten dira, eta horien gainean garatzen dira IV. Gazte Planaren 2. ardatz honetako ekimenak. Gaztaroa eta nerabezaroa bizitzako etapa funtsezkoak dira jarrera eta portaera osasungarriak ezartzeko, honako hauen eraginpean: berdinkideak, familia, eskola, hezkuntza-aukerak, sare sozialak eta harremanak.
- Jasotako ekimenek, era berean, «estimu-parekotasunaren» inguruko diskurtsoari erantzun nahi diote. Printzipio horren arabera, osasun mentalari osasun fisikoari bezain besteko lehentasuna eman behar zaio.

IV. Gazte Planak, hain zuzen, osasunaren arloko Eusko Jaurlaritzaren jarduera hedatuko du, gazte-kolektiboari dagokionez, lau helburu estrategikoren bidez:

**Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea**

Agerikoa da haurren eta gazteen osasun mental eta emozionalaren sustapenean inbertitzen bada, etorkizunean osasun- eta gizarte-arazoak saihestu daitezkeela. Hori dela-eta, hiru ildo estrategiko planteatu dira, helburu honen baitan garatu behar diren estrategiak erdiratzen dituztenak eta IV. Gazte Planean jasotzen direnak:

1. **Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza:** Lerro estrategiko gisa, gazteengan ongizate mental osasungarria sustatzera bideratutako ekimenak garatzeko helburua du, eta, horretarako, hainbat ekimen garatu behar dira osasunerako hezkuntzaren arloan. Horrenbestez, kontuan hartzen du «alfabetatze sanitarioa» hobetzera bideratutako ikasketa-aukeren garapena, eta horren barnean sartzen dira gazteen ezagutzaren hobekuntza eta osasuna hobetzeko baliagarri diren trebetasun pertsonalen garapena.

[8] Euskadiko Osasun Inkesta, Osasun Planaren emaitzei buruzko urteroko txostenak, Euskadi eta drogak

[9] Marmot reviews. Adierazleak

Hori dela-eta, ildo honetako lehentasunezko ekimenak bi eremuren inguruan garatu behar dira:

a. Prestaketaz arduratzen direnekin (gurasoak, irakasleak) garatu beharreko ekimenak, besteak beste, arrisku-jokabideen prebentzioarekin eta osasun mentalaren sustapenarekin lotutako prestakuntza-ikastaroen eta giden lanketa (emozioen kudeaketa, autoestimua, etab.).

b. Gazteekin landu beharreko ekimenak, eskumen sozial eta emozionalen garapenari ekiteko, hezkuntzaren esparruan (hezkuntza sozio-emozionala).

**2. Aisialdiko ekintza osasungarrien sustapena:** aisialdia prebentziorako espazioa dela aintzat hartuz, eta, beraz, espazio horrek osasun mental egokia mantentzeko eta, ikuspuntu osasungarritik, aisiaz gozatzeko baliabideak eta jarraibideak eskaintzeko balio duela, ildo honetan planteatzen diren ekimenak aisialdi aktibo eta osasungarria sustatzera bideratzen dira (eskola-ordutegitik kanpo). Ekimenen artean sartzen dira, besteak beste, jarduera komunitariorako programen garapena, aisialdirako aukerei buruzko programen garapena sustatuz, adibidez. Ekimen horiek beste administrazio publiko batzuekin elkarlanean gara daitezke, elkarteen-ehunaren inplikazioaren eta partaidetzaren bultzadatik, gazteen protagonismoarekin.

**3. Arreta eta prebentzioa antsietate-** eta depresio-egoeren aurrean: Lerro honen barnean sartzen dira arreta-zerbitzua ematera bideratutako ekimenak, gazteengan arrisku-egoerak detektatzeko eta, arriskua erakusten duten kasuetan, arreta emateko eta, beharrezko bada, horiek bideratzeko. Hain zuzen ere, honako ekimenak identifikatu dira:

a. Jateko ohiturekin sortutako arazoei tratamendu espezifikoa emateko programa.

b. Oro har, koordinazio sozio-sanitarioa eta familien babesa hobetzera bideratutako ekimenak, haurtzaroko eta nerabezaroko gaixotasun mentalen arretari dagokionez, hezkuntza-arloarekin koordinatuz.

**Haurren gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea**

Elikadura desegoki baten eta jarduera fisikorik ez egitearen ondorio ikusgarriena eta berehalakoena da obesitatea. Diagnostikoaren atalean aztertu denez, euskal gazteriaren artean tasa baxua du obesitateak, baina egia da, era berean, hamarkada bat baino gehiago igaro dela goranzko joera iraunkorra erakusten hasi zenetik. Beraz, helburu hau ez da soilik IV. Gazte Planean jasotzen, baizik eta erabat lantzen da Eusko jaurlaritzaren tresna estrategikoetan.

Hala, beharrezko eremuan oinarritzen dira jarraian jasotzen diren ildo eta lehentasunezko ekimenak, hau da, Euskadiko elikadura osasungarriaren estrategiaren lanketa gidatzen ari diren orientazioetan, estrategia horrek esparru orokorra osatuko baitu, jarraian Haur Obesitatearen Prebentziorako Plan espezifikoa garatzeko.

**1. Elikadura osasungarriaren sustapena:** Hiru arlotan bideratutako ekimenak barne hartzen ditu:

a. Elikadura-ohitura osasungarriak sortzea eta sustatzea. «Elikadura osasungarriaren liga» aplikazioaren garapena: komunikazio-kanal bat da, gamifikazioaren bitartez pedagogia lana egiteko; estrategia baliotsu bat, gazteak motibatu eta haiengan eragina izateko orduan, bizi-ohitura osasungarrien sustapenari dagokionez.

b. Eskoletako jantokietan esku hartzea. Eusko Jaurlaritzaren Elikadura Osasungarrirako Programan jasotzen den bezala, «Hezkuntza Ekosistema Osasungarria» ekimenak eragin positiboa izango

duen ekosistema koherentea sortzeko asmoa du, haurretan zein gazteetan arreta jarrita, elikadura-ohitura osasungarriagoak sustatuko dituzten neurrien garapenari dagokionez (faktore baldintzatzaile nagusiak identifikatzea, aldaketaren motor izatea eta eraldaketarako ideiak sortzea).

c. Lankidetzarako hitzarmenak adostea, elikagaigintza eta ostalaritzarekin elkarlanean, elikagai prestatuen azukreak, gantz aseak eta gatza murrizteko. Eusko Jaurlaritzaren Elikadura Osasungarrirako Programaren barruan, sukalde zentralak kontratatzeko orrien eta jarraipen programen eguneratzea nabarmentzen da. Modu horretan, inguru horietan gertatzen den kontsumoan eragiten da, eta Euskadiko elikadura-ohiturak hobetzen laguntzen da, nabarmenki.

**2. Jarduera fisikoaren eta ariketaren sustapena populazio gaztearen artean:** fisikoki aktibo dauden gazteen kolektiboa handitzeko asmoz, eta ekintza fisikoa areagotzen bada, bizi-kalitatea eta -baldintzak hobetzen direla kontuan hartuz, ildo honek lehentasunezko hainbat ekimen aurreikusten eta jasotzen ditu. Gehienak Mugiment 2020 estrategiaren baitan biltzen dira [10]:

a. Mugikasi-ren helburua da heziketa fisikoa ikasgaiari astean eskola-ordu gehiago eskaintzea, hezkuntza-maila guztietan, baita ikasleen sedentarismoa saihestea ere.

b. Mugibili-k oinez ibiltzeko jarduera sustatzeko ekimen-multzoa jasotzen du, biztanleria osoari zuzendutakoak.

c. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteei eta ikastetxeon titular diren irakaskuntza-kooperatibei zuzendutako diru-laguntzak, ikasleen artean mugikortasun aktiboa sustatzeko jarduerak egin ditzaten.

d. Jarduera fisikoa sustatzeko laguntzak, tokiko erakundeentzako eta ikastetxeentzako.

**Gazteei sexu-bizitza osasungarria izaten laguntzea**

Euskal gazteriaren diagnostikoan aztertutako datuen arabera, 17 urtetik aurrera gazte gehienek izan dituzte sexu-harremanak, eta sexu-esperientzia duten gazteen % 15,2k onartu egiten du azken urtean sexu-harreman arriskutsuren bat mantendu duela. Horregatik, bereziki beharrezkoa da gazteen artean sexualitate arduratsua sustatzeko neurriak hedatzea, hau da, autonomia pertsonala garatzearen ondorioz, pertsona arduratsuak diren horiek praktikatzen dutena. Modu horretan, beren praktiken inguruan eta horien balizko arriskuen inguruan (neurri egokirik hartu ezean) hausnartu da, baita arrisku horiek hirugarren pertsonengan izan ditzaketen eraginen inguruan ere. Hala, helburu hau lantzeko, bi ildo hedatuko dira:

**1. Hezkuntza afektibo-sexuala:** Gazteak heztera bideratua, sexualitatea modu osasungarrian bizi dezaten. Norbere burua ezagutzen eta onartzen ikastea, eta gozatzen ikastea, besteak errespetatuz. Baldintza hauetan, bereziki garrantzitsua da adingabekoen egoeraz arduratzea, prestakuntza-aldian dauden pertsonak baitira, etorkizuna eraikiko duten hiritarrak. Horrela, ildo honen baitan garatu beharreko lehentasunezko ekimenak hauek dira, nagusiki:

a. Sexu-osasunerako informazio eta hezkuntzaren gaineko programak diseinatzea, genero-berdintasunean eta sexu-aniztasunaren errespetuan oinarrituta, eskolaren esparruan arreta berezia jarrita.

b. Nerabeen eta gazteen artean heziketa afektibo eta sexuala sustatzea, osasun-, hezkuntza- eta gazteria-sektoreen baterako partaidetzarekin eta komunitate-ikuspegitik.

---

[10] Eusko Jaurlaritza: Mugiment Basque Country [linean] Hemen eskuragarri: http://www.euskadi.eus/contenidos/normativa/mugiment/eu_10198/adjuntos/MUGIMENT_PROIEKTUA_EUSK_ALDAKETAK.pdf [Kontsulta: 2017/11/10]

2. **Sexu-transmisiozko gaixotasunen prebentzioa[11]:** Berariaz bideratuko da sexu segurua praktikatzeko heziketan egindako ahalegina mantentzera, gazteen artean sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzeko eta nahi ez diren haurdunaldiak murrizteko. Hala, lehentasunezko ekimen hauek identifikatu dira:

    a. Biztanleentzako –batez ere gazteentzako, oro har– eta gizonekin sexua duten gizonentzako prebentzio-programak garatzea eta emakumeen jabekuntza sustatzea, beren autonomian, sexualitateari buruzko erabakiak hartzean, norbere zaintzarako praktikak garatzean eta arrisku-praktikak murriztean.

    b. Zehazki, nerabeentzako esku-hartze komunitariorako programak, eta GIB/hiesaren, sexu-transmisiozko infekzioen eta nahi gabeko haurdunaldien prebentziorako programak, eskolatutako nerabeei zuzenduak, gelan esku-hartzeko.

    c. Profesionalentzako prestakuntza: osasunaren arloko langileentzako prestakuntza-programa, nerabeengan sexu-transmisiozko infekzioak eta nahi ez diren haurdunaldiak prebenitzeko.

    d. Oro har, kontrazepzioaren eskuragarritasuna hobetzera bideratutako ekimenak.

**Gazteen portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea**

Helburu hau adikzio-jokabideen (alkohola, tabakoa, beste sustantzia batzuk, sustantziarik gabeko menpekotasunak) prebentziora bideratuta dago. Era berean, tabakoaren, alkoholaren eta beste sustantzia batzuen kontsumoa murriztu eta horiek kontsumitzen hasteko garaia atzeratu nahi da, eta adikzioek eta/edo arrisku-portaerek eragindako kaltea murriztu. Horrez gain, sustantziarik gabeko adikzioen prebentzioa barne hartzen da, hala nola, jokoa, apustuak, etab. Adikzioei buruzko Eusko Jaurlaritzaren VII. Planaren[12] printzipioetan jasotzen denez, adikzioen fenomenoa diziplina anitzeko ikuspegi integralarekin landu behar da, babes-faktoreak indartzeko eta arrisku-faktoreak murrizteko. Hala, hiru ildo estrategiko identifikatu dira, gazte-kolektiboak arlo honetan dituen erronkei erantzuna emateko:

1. **Tabako eta alkoholaren kontsumoa murriztea [13]:** Lerro honen helburua da populazio orokorraren artean eta, zehazki, gazte-kolektiboaren artean ohikoenak diren sustantzien kontsumoa jorratzea. Horretarako, lehentasunezko ekimen hauen inguruan lan egingo da:

    a. Gehien kontsumitzen diren eta gizartean gehien onartzen diren sustantzien normalizazioarekin amaitzeko ekimenak. Adibidez, «Kerik gabeko ikasgelak» programa, DBHko ikasleen artean tabakismoaren prebentzioa sustatu eta, horrenbestez, adingabeak tabakoarekin kontaktuan sartzen diren unea atzeratzeko, edo «Adingabeak eta alkohola» programa, adingabeen alkohol-kontsumoa murriztu, gazteen osasunaren aldeko esku-hartzeak koordinatu, eta alkohola kontsumitzen hasten deneko adina atzeratzeko.

    b. Adikzioek osasunean eta bizi-kalitatean duten eraginaren inguruko komunikazioari, sentsibilizazioari eta kontzientziazioari buruzko ekimenak. Arreta berezia eskainiko zaie alkoholak eta bestelako sustantziek eragindako kalteei, gizartean onarpen zabalagoa baitute eta gazte-populazioari eragiten baitiote. Ekimen hauek sare sozialetako komunikazio-estrategiekin batera garatu daitezke; izan ere, komunikazio-kanal horiek oso zabalduta daude gazte-kolektiboaren artean.

[11] HIESaren programa
[12] Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (2017): Adikzioen VII. Plana, Euskadi 2017 – 2021 [linean] Hemen eskuragarri: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/acicciones_plan/es_def/adjuntos/VII_plan_adicciones_eu.pdf [Kontsulta: 2017/11/03]
[13] Osasun Saileko adikzioen ataleko edukiak, legez kanpoko drogak eta sustantziarik gabeko adikzioak barne hartuta.

c. Beste sustantzia batzuen kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko ekimenak. Horretarako, arrisku-kontsumoa eta gazteek atsegin hartzeko hartzen dituzten drogen kontsumoari lotutako arriskuak murriztea helburu duten programak definituko dira. Horiek, era berean, adikzio-sustantzien kontsumoari lotutako arriskuaren pertzepzioa handitzeko sentsibilizazioa izango dute helburu, kalamuaren kasuan arreta berezia jarriz.

2. **Jokoari eta sare sozialei lotutako arriskuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa:** Lerro honek hainbat neurri hedatzea du helburu, teknologia berrien eskuragarritasunak, oro har, eta online baliabideen eta sare sozialen eskuragarritasunak, zehazki, gazte-kolektiboari dakarzkion arriskuak prebenitzeko. Ludopatiei, online jokoei eta apustuei ere arreta berezia ematen die; izan ere, teknologia berriekin, askoz gertuago dituzte gazteek. Prebentzio horrek kontuan hartu behar ditu hainbat gazteren kasuak, erabilera adikzio bilakatzen denean, eta horiek murriztu; izan ere, gazteen ardurak arriskuan jar daitezke (ikasketak, lana), baita harreman sozialak ere.  Hala, lehentasunezko ekimen hauek identifikatu dira:

    a. Hezkuntza-curriculumetik, osasuna eta babesa sortzen duten faktoreen garapena sustatzea adikzioen aurrean, teknologia berriei arreta berezia eskainiz.

    b. Prebentziorako hainbat programa eta jarduera garatzea, jokoaren eta teknologia digitalen eta horien aplikazio berrien erabilera desegokiari lotutako arriskuak murrizteko.

    c. Informazioa eta sare sozialetan heda daitezkeen baliabide dokumentalak komunikatzeko eta hedatzeko ekimenak, eduki desegokien, jazarpenaren eta intimitate-galeraren inguruan hezteko.

    3. Trafiko-istripuen inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa, prebentziorako ekimenak manten daitezen, errepideetako ezbehar kopurua eta trafiko-istripuen ondoriozko hilkortasun-tasa gazteen artean murrizteko. Hala, errepideko jokabide arriskutsuei eta horien ondorioei buruzko kanpainak dira ekimenik garrantzitsuenak. Errepideko jokabide arriskutsuen inguruan kontzientziatzeko eta horiek prebenitzeko helburua dute, eta hainbat kolektibori zuzentzen zaizkien arren, etorkizuneko gidarietan jartzen dute arreta («Zuri ere gerta dakizuke» eta «Road show» jardueren bidez eta Norabide guztiak antzerki-forumaren programaren bidez, besteak beste).

**Osasunaren arloko jarraipenerako eta ebaluaziorako adierazleen proposamena**

| HELBURU ESTRATEGIKOA | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea | - Planifikatutako jardueren bidez prestakuntza jaso duten pertsonen (irakasleak eta gurasoak) kopurua.<br>- Jarduera horien irismena gazte-kolektiboan (prestakuntza-jarduera horietara gerturatu direnen menpeko ikasleen edo seme-alaben kopurua). |
| Haurren gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea | - Eskolako jantokietan egin diren esku-hartzeetan parte hartu duten ikasleen kopurua.<br>- Mugiment estrategiaren jardueren bidez ariketa fisikoa egiten duten gazteen kopurua. |
| Gazteen sexu-bizitza osasungarria | - Hezkuntza afektibo-sexualaren arloko prestakuntza jaso duten gazteak.<br>- Prestakuntza-jarduera horiei dagokienez, gogobetetze- eta erabilera-maila.<br>- Sexu ez-seguruaren praktikari lotutako arriskuaren pertzepzioaren areagotzea. |
| Portaera arriskutsuen eta/edo adikzioen prebentzioa gazteengan | - Prebentzio-jardueretan parte hartu duten gazteen kopurua, guztira eta kontsumo-motaren/prebentzio-eremuaren arabera bereizita.<br>- Prestakuntza-jarduera horiei dagokienez, gogobetetze- eta erabilera-maila.<br>- Portaera arriskutsuei eta/edo kontsumoari lotutako arriskuen pertzepzioaren areagotzea. |

## 3. ARDATZA. Berdintasuna eta gizarteratzea

Gaur egun, EAEko gazteen pobrezia-tasa populazio orokorrarena baino altuagoa da. Krisiak neurri handiagoan eragin dio kolektibo horri, 2008tik aurrera hasi baitziren gazteriaren pobrezia-tasak populazio orokorrarenak gainditzen. Gazteen Euskal Behatokiak «Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa 2017» txostenean egindako analisian erakusten du gizarte-laguntzek lagundu egin dutela, neurri batean, pobrezia-egoeran dauden gazteen beharrak arintzen. Hala ere, agerikoa da gizarte-laguntzek ez dituztela gazteen behar guztiak asetzen eta familia dela gazte askok gainditu behar dituzten zailtasunak leuntzen dituen koltxoi ekonomikoa. Horrenbestez, gazteen egoera hobetzeko lan egitea da ardatz honen helburuetako bat, hartara, euskal gazteen kolektiboan baztertuta geratzeko arrisku-egoerak, ahal den neurrian, prebenitzeko.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren arloan eta gazte-kolektiboaren ikuspuntutik egiten duen ahaleginari jarraipena eman behar zaio, gizartearen mentalitatea aldatuko duten ekimenak hedatzeko, eta horien bidez, berdintasunak eta beste balio batzuek bizi-kalitatea hobetzen dutela eta gizarte bidezkoago, askeago eta jasangarriago batera eramaten gaituztenaren uste osoa nagusitzeko [14]. Egoeren larritasuna dela-eta, indarkeria matxista deuseztatzeko borrokak garrantzi berezia du. Horren baitan, gizartean, oro har, eta gazte-kolektiboan, zehazki, gizarte-kontzientzia argia sendotu behar da, indarkeria ukatuko duena. Horrez gain, azpimarratzekoa da Eusko Jaurlaritzatik berdintasuna oso-osorik, zeharka eta ikuspuntu zabaletik lantzen dela, gure gizarte-aniztasuna osatzen duten kolektibo guztiak aintzat hartuz.

**Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea**

Helburu hau definitzeko, gazte ahulenen beharren arretan jarri da fokua [15]. Hori hedatzeko, oinarrizko ildo estrategiko baten bidez lan egitea proposatzen da:

1. **Oinarrizko beharrak estaltzea;** beharrezko laguntza ematera bideratzen da (gazteei zuzenean edo hirugarren pertsonei), pobrezia jasateko eta/edo baztertuak izateko arrisku-egoeran dauden gazteen beharrak arintzeko. Hala, bi jarduera-motek dute lehentasuna:

    a. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, 30 urte baino gutxiagoko gazteak gizartetik baztertuak izan daitezela saihesteko helburu nagusiarekin. DBEren prestazioak pobrezia-tasak eta onuradunen bazterkeria-mailak murrizten laguntzen du bete-betean.

**Gizarteratzearen aldeko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak. Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea**

Gazteen artean berdintasun erreala eta eraginkorra lortzera bideratzen da helburu hau, sexu-orientazioa aintzat hartu gabe, eta genero-indarkeriaren aurkako borrokari garrantzi berezia emanez. Hala, bi ildo estrategiko proposatu dira, hurrengo urteetan gauzatu beharreko ekimenak egituratzen dituztenak:

1. **Berdintasuna etxean eta familian:** Kontziliazio erantzunkidea: Ildo honek Eusko Jaurlaritzak bultzatzen dituen ekimenak barne hartzen ditu, erantzunkidetasunean aurrera egiteko. Erantzunkidetasuna ulertzeko modu honen arabera, **«gizarteko pertsona guztiek hartu behar dute ugalketa eta ekoizpena, etxeko arloa eta arlo publikoa, zainketa eta sostengua neurri berean eta balio berarekin zaintzeko eta beren gain hartzeko konpromisoa. Horrela soilik eraldatu ahalko dira balioak, bi espazioak aintzatetsiz eta balioetsiz, eta horrela soilik lortu ahalko da emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra.»** Ekimen hauek lehentasuna dute:

[14] Emakunderen VI. Planetik ateratako aipamena. Plan hau egin den bitartean, Emakunderen VII. Plana landu da.
[15] Plan hau egin den bitartean, Inklusiorako Plana ere landu da.

a. Kontziliazio erantzunkidearen programa, Bateratu+ web orriaren bitartez, eta erantzunkidetasunaren dibulgazioa hainbat esperientzia pilotu, ponentzia eta jarduketa publikotan. Funtsezko helburutzat du gizarte-eragile guztien ardura sustatzea, langileek (gizonek zein emakumeek) lan- eta familia-bizitza eta bizitza pertsonala uztartu dezaten. Eta, zehazki, familien barrenean, gizonen eta emakumeen erantzunkidetasuna sustatzea du helburu, pertsonen zaintzari eta arretari lotutako lanetan eta etxeko lanetan.

b. Lana eta familia uztartzeko familientzako laguntzak; hiru laguntza-mota biltzen dituzte (lana eta familia uztartzeko laguntzak, seme alaba adingabeak zaintzeko; lana eta familia uztartzeko laguntzak, mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko, eta seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak). Laguntza hauek familia eta lana uztartzeko sortu dira, baita gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko ere, bai lanean sartzean eta mantentzean bai seme-alaben edo mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoen zaintzan bete-betean aritzeko aukeretan.

2. **Kolektiboen arteko berdintasuna:** LGBT kolektiboan benetako berdintasunean aurrera egiteko ekimenak hedatzen jarraitzeko helburua du. Horretarako, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailek 2017an egindako «Lesbofobia, Homofobia eta Transfobia hezkuntza-sisteman [16]» azterlanean zehazten den bezala, kontuan hartzen da euskal nerabeen populazioak aniztasun afektibo-sexuala eta familia- zein genero-aniztasuna onartzen dituela eta errespetua erakusten duela LGTB kolektiboekiko. Nolanahi ere, hainbat ekimen hedatuko dira ildo honetan lanean jarraitzeko, eremu horretan hobetuko diren ekimenak hedatuz. Honakoek dute lehentasuna:

a. Zeuk Esan, haur eta nerabeen laguntzarako zerbitzu telefoniko eta telematikoa. Haur eta nerabeentzako laguntza-zerbitzua eskaintzen du, orientazioaren, aholkularitzaren eta informazioaren bitartez. Haurren ustezko babesgabezia-egoerak detektatzen eta babes-sistemara bideratzen ditu, eta haurrentzako eta nerabeentzako komunikazio-kanal irekia eskaintzen du.

b. LGBT kolektiboarentzako «Berdindu Pertsonak» arreta-zerbitzu telefoniko, telematiko eta aurrez aurrekoa, LGBT kolektiboari eta horren inguruari laguntza eta arreta emateko. LGBT kolektiboko pertsonei eta ingurukoei laguntza emateko helburua du, laguntza edo orientazioa behar dutenean, baita gizartea sexu-aniztasunaren inguruan sentsibilizatzeko helburua ere. Transexualen kolektiboari laguntza espezifikoa emateko talde ibiltari bat dauka, baita web orri hau ere: euskadi.net/berdindu.

c. Gazte-kolektiboaren sentsibilizazioari eta kontzientziazioari zuzendutako ekimenak, sexu-aniztasunaren inguruan. Era berean, hainbat tresna, gako metodologiko, jardun-protokolo, baliabide eta material eskainiko dituzte, LGBT neska-mutilen eredu inklusiborako.

d. Eusko Jaurlaritzaren arlo desberdinetako beste ekimen batzuk.

[16] Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (2016): Lesbofobia, homofobia eta transfobia hezkuntza sisteman [linean] Hemen eskuragarri: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/28junio_diainternacional/eu_documen/adjuntos/LGTBfobia_TXOSTENA_EU.pdf [Kontsulta: 2017/10/27]

**Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea**

Emakunderen estrategian jasotzen denez, emakumeen kontrako indarkeria gero eta nabarmenago ukatzen dute instituzio publiko eta pribatuek, erakundeek eta hiritarren mugimendu zibilak (III. Ardatza Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea). Genero-desberdintasun eta -bazterkeriaren adierazpen larrienetako bat da emakumeen kontrako indarkeria, eta kontu hori lantzeko ildo nagusiak jasotzen dira helburu estrategiko honetan, gazte-kolektiboaren ikuspegitik:

1. **Sentsibilizazioa eta prebentzioa**: Zero tolerantzia: gizarte-kontzientziazioa areagotzera bideratutako ildoa, emakumeen kontrako indarkeriaren ukapenari dagokionez. Horretarako, lehentasunezko ekimen hauek landuko dira:

    a. «Beldur Barik» urteko programa, Eusko Jaurlaritzaren hezkidetza-planaren esparruan diseinatua eta abiarazia. Gazteen artean hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak sortzea du helburu, emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko estrategien inguruan. Horrez gain, gazteen artean ematen den indarkeria sexistaren alderdiak identifikatzeko asmoa du. Era berean, gazteekin batera jarrera eta portaera indibidual eta kolektiboak eraldatzea eta sortzea bilatzen du, desberdintasunari eta emakumeen kontrako indarkeriari lotutako egoerak gainditu ahal izateko. Bestalde, emakumeenganako indarkeria prebenitzea du helburu, bere agerpen guztietan eta, bereziki, neska gazteek jasaten duten indarkeria. Horretarako, behar diren tresnak eta baliabideak eman nahi zaizkie neska horiei, indarkeria sexista ezagutu eta aintzat hartu ahal izan dezaten, eta mutilekin, berriz, jarrera sexistei aurre egiteko neurriak landu nahi dira, baita eraso sexisten aurrean zeregin aktiboa izateko animatu ere. Jardueren artean, besteak beste, programak 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketa bat barne hartzen du. Horren bidez, neska-mutilek egungo desberdintasun-egoerari nola aurre egiten dioten erakusten duten adierazpenak aitortu, baloratu eta sustatu nahi dira, errespetua, berdintasuna, askatasuna, erantzunkidetasuna eta indarkeriari zorrotz uko egitea oinarri duten jarrera eta jokabideen bidez. Era berean, lila koloreko puntua sustatuko da, emakumeen kontrako indarkeriaren ukapena adierazten duen sinbolo bezala, eta udalerriei zein instituzioei laguntza eskainiko zaie.

    b. Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko masterra (Deustuko Unibertsitatea) eta Emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko masterra (EHU) egiteko laguntzak kudeatzea.

    c. Emakumeen aurkako indarkeriaren magnitudea, ondorioak eta horri aurre egiteko moduak ezagutarazteko jardunaldiak antolatzea.

    d. Sare sozialen bidez bikotekideek gauza dezaketen kontrolaren inguruan gazteak sentsibilizatzeko ekimenak.

2. **Arreta integrala:** Lerro honek kalitatezko arreta-zerbitzua eman nahi die genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei, baina, horrez gain, ustezko genero-indarkeriaren detekzio goiztiarrean laguntzeko helburua du, ahal den neurrian:

    a. Prestaketaz arduratuko direnen prestakuntza eta orientazioa, batez ere, hezkuntzaren alorrean, emakumeen kontrako indarkeriaren detekzio goiztiarrean modu proaktiboan eta protokoloen arabera parte har dezaten.

    b. Telefono bidezko 24 orduko informazio- eta arreta-zerbitzua genero-indarkeriaren biktimentzat. Zerbitzu hau, oro har, genero-indarkeriaren edozein agerpenen biktima diren emakumeei

[17] Departamento de Empleo y Políticas Sociales de Gobierno Vasco (2016): Lesbofobia, Homofobia y Transfobia en el sistema educativo [en línea] Disponible en: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/28junio_diainternacional/es_documen/adjuntos/InformeLGTBfobia.pdf [Consulta: 27/10/2017]

zuzentzen zaie, urteko egun guztietan eta eguneko 24 orduetan ematen den berehalako arreta anonimoaren bidez.

c. Gazteei arreta emateko beste kanal eta bitarteko batzuen analisia, telefono-zerbitzutik harago.

d. Genero-indarkeriaren emakume biktimei zuzendutako diru-laguntza, baldin eta errenta-maila jakin bat badute eta lana lortzeko zailtasun bereziak izango dituztela susmatzen bada, adina, prestakuntza orokorra edo bereziaren falta eta beste gorabehera sozial batzuk direla eta.

**Tratu txar mota berriak prebenitzea**

Azken urteotan tratu txar mota berriek igoera handia izan dutela egiaztatu da (gurasoen aurkako indarkeria, ziberjazarpena, etab.). Horregatik, eta arazo konplexua dela jakinda (kasu gero eta ugariagoen kausak eta arrazoiak, horiei ekiteko moduak, familien esku-hartzea edo tratamenduari eta prebentzioari ekiteko moduak direla eta), beharrezkotzat jotzen da IV. Gazte Plan honetan berariaz sartzea, gazte-kolektiboaren ikuspegitik jorratzeko.

**1. Gurasoen aurkako indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta:** «Gurasotasun positiboa» kontzeptua garatzeko lan egitea du helburu. Tresna horren bidez, haurrak autoestimu onarekin garatuko dira pertsona gisa, eta, hartara, era osasuntsu eta zoriontsuan haziko dira gizartean. Hala, garatu beharreko ekimen hauek planteatzen dira:

a. Familiekin kontaktuan lan egiten duten profesionalen komunitateari bideratutako ekimenak (hezkuntza- eta osasun-arloan, arlo sozial eta judizialean, etab.). Horiek, Gurasotasuna web orriaren bitartez, Eusko Jaurlaritzan egituratzen dira.

b. Familia-bitartekotzarako zerbitzua: Prozedura honen bitartez, familiaren barnean planteatzen diren gatazkak epaitegitik kanpo ebazten dira, eta bitartekotza-lanak egitea du helburu, familian planteatzen diren gatazkak bide judizialaz baliatu gabe ebazteko.

**2. Eskolako jazarpenaren (bullying eta ziberbullying) detekzioa, prebentzioa eta arreta:** Hainbat ekimen identifikatuko dira, helburu zehatz hauek lortzeko: kasu hauek prebenitzea (gazteen heziketa eta sentsibilizaziotik), detektatzea (eskolako eta familiako esparruan ekimenak garatuz) eta eskola-jazarpeneko kasuak jasan dituzten gazteei arreta ematea.

**Gizarte-ekintzaren eta berdintasunaren arloko jarraipenerako eta ebaluaziorako adierazleen proposamena**

| HELBURU ESTRATEGIKOA | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| Baztertuta geratzeko arrisku-egoeren prebentzioa | - DBE jaso duten gazteen kopurua |
| Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea | - Uztartze-programetan parte hartu duten pertsonen kopurua<br>- Zeuk Esan programaren bidez arreta jaso duten 14-18 urteko gazteen kopurua |
| Genero-indarkeria errotik kentzea | - Beldur Barik edo antzeko ekimenetan parte hartu duten gazteen kopurua |
| Tratu txar mota berrien prebentzioa | - Hedatutako ekimenen kopurua<br>- Prestatutako/sentsibilizatutako pertsonen kopurua |

## 4. ARDATZA. Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa

Gaur egun, adostasun orokortua dago gizarte-partaidetza sustatzeko eta bultzatzeko komenigarritasunaren eta beharraren inguruan, finean, hiritar aktiboak izateko beharraren inguruan. Gazte-kolektiboari dagokionez, jarduera horrek garrantzi handia du heldutasunera modu positiboan igarotzeko, bai egungo gazteentzat bai datozen belaunaldientzat. Irizpide propioa, autonomia, partaidetza, elkartasuna eta garapen sozial eta ekonomikoarekiko konpromisoa erakusten dituen gazteria du eta behar du Euskadik [17].

Hori dela-eta, IV. Gazte Planak estrategikotzat jotzen du Eusko Jaurlaritzak arlo honetan jarduera publikoa indartzen jarraitzea. Horretarako, helburu estrategiko hauek planteatzen dira:

**Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea**

Datozen urteetan gazte-kolektiboan hedatu beharreko jarduerak jasotzen ditu helburu honek, orientazio hirukoitzarekin: partaidetza bultzatzea, eskuragarri dauden tresnak ezagutaraztea eta harremanak eta elkarren ezagutza sustatzea, hainbat interes-esparru eta mailatan. Hala, helburu hau lantzeko hiru ildo estrategiko hedatuko dira:

1. **Gazte-elkarteen ekimenak babestea:** gizarte-partaidetza kolektiboa garatzeko espazioak dira elkarteak, gazteei aukera ematen dietenak hiritar-egoera modu aktiboan erabiltzeko eta gizartean, ekonomian eta kulturan esku hartzeko. Hala, IV. Gazte Plan honetan jasotzen diren lehentasunezko ekimenek gazteriaren arloko euskal elkarteak babesteko helburua dute, gazteen arloko programak eta ekintzak garatze aldera. Hartara, eta, besteak beste, diru-laguntzen deialdien bidez, gazte-elkarte horien jarduera sendotuko da.

2. **Gazte-boluntariotzaren bultzada:** Boluntariotza gizarte-partaidetza mota bat da, non pertsonek euren denbora, eskarmentua, ezagutza eta gaitasunak eskaintzen baitituzte lan solidario bat egiteko, inolako ordain ekonomikorik gabe eta aukera pertsonal, aske eta altruista gisa. Irabazi asmorik gabeko gizarte-erakundeen lankidetzaren bitartez gauzatzen denez, hirugarren sektoreak ezinbesteko funtzioa betetzen du. Hori dela-eta, IV. Gazte Planak lehentasuna ematen dio boluntarioekin lan egiten duten EAEko erakundeen babesari, jarduera boluntarioari eta elkarteen partaidetzari esker indartu dadin.

   Horrez gain, eta gazte boluntarioen ikuspegitik, IV. Gazte Planean jasotzen diren ekimenek hainbat programa hedatzea aurreikusten dute, gazteek boluntariotza-arloan partaidetza handiagoa izan dezatela sustatzeko eta bultzatzeko (Auzolandegi edo Euskadiko Gazteak Lankidetzan programak, besteak beste).

3. **Partaidetzaren kultura eta eztabaidarako guneak:** Gazte-kolektiboa sentsibilizatzeko eta gazteen partaidetzarako EAEn eskuragarri dauden tresnak eta erremintak ezagutarazteko helburua du. Hala, ezagutzan oinarrituz, gazteen partaidetza sustatu nahi da, eta horretarako, hainbat ekimen hedatuko dira Gazteaukera.euskadi.net ataritik (Euskadiko gazteriaren leiho gisa), Irekia ataritik eta horiek sare sozialetan dituzten profiletatik. Hedatu beharreko lan-ildoetako batek edukiak sare sozialei lotzea du helburu, baita internet edo beste bitarteko batzuen bidez gazteei eskaintzen zaizkien zerbitzu eta jardueren eskaintza hobetzea eta handitzea ere, finean, gazteen partaidetza sustatzea atariaren bidez.

   Horrez gain, eta parte hartzeko moduak aldatzen ari direla aintzat hartuz (parte hartzeko modu berriak identifikatu dira, besteak beste, mikro-partaidetza eta crowd-feelinga), gazteen kolektiboaren sentimenduei modu aktiboan entzutea planteatzen da, politika publiko orokorren helburuei dagokienez.

[17] Enpleguko eta Gizarte Gaietako Sailburuaren XI. Legealdiko inbestidura-ekitaldia.

**4. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetza:** Euskadiko gazteriarekin lotura duten gaiak lantzen dituzten elkarte ugariren topagunea da EGK, eta gazteen eta gazte-elkarteen parte-hartzea sustatzeko lan egiten du, administrazioen eta gazteen zein gazte elkarteen arteko zubi-lana egiteko. Hala, IV. Gazte Planaren esparruan, etengabeko koordinazioa egongo da Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzaren eta EGKren artean, ekimen interesgarriak identifikatu ahal izateko, sinergiak sustatzeko eta EGK-ko elkarteen jarduerak babestu eta sustatzeko, besteak beste.

**Kontsumo arduratsua egiten duen gazte gehiago**

Sistema ekonomikoak, gaur egun, pertsonen eskura jartzen du kontsumorako produktu- eta ondasun-mota oro, eta ondorioz, «kontsumoaren gizarte» deiturikoaren garapenari laguntzen dio. Kontsumoaren inguruko kontzientzia barnera dezaten sentsibilizatu eta hezi behar dira gazteak, eta Gazteria-arloko 2020rako euskal estrategian jasotzen den bezala, zera ulertu behar dute: «beharrak asetzea baino gehiago da kontsumoa eta, beraz, kontsumo-ohiturak benetako beharretara egokitu behar ditugu, eta ingurumena zaintzen eta gizarte-berdintasuna lortzen lagunduko duten aukeren alde egin behar dugu merkatuan».

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzatik, bi ildo estrategiko nagusiren inguruan egingo da lan:

**1. Baliabideen kontsumo eta erabilera jasangarria egiteko heziketa eta prestakuntza:** Lehentasunezko hainbat ekimen hedatuko dira, gazteei kontsumitzaile gisa dituzten eskubideen berri emateko eta, era berean, kontsumo arduratsu eta arrazionala egin ahal izateko ezagutzak, jarraibideak eta gidalerroak emateko [18]. Agenda 21 bera nabarmentzen da, ikastetxeetan hedatzen dena, baita Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institututik antolatzen eta babesten diren tailer, jardunaldi eta ikastaroak ere.

**2. Komunikazio-mota berrietara egokitutako tresna teknologikoen garapena:** mundu gero eta digitalago batean, kontsumitzaileekin izaten den harremanak inguru digitalean ere garatu behar du, batez ere, gazte-kolektiboari dagokionez, bitarteko hori asko erabiltzen baitu. Testuinguru horretan, Kontsumobide online kanala garatzen ari da, kontsumitzaileek erreklamazioak azkarrago eta errazago egin ditzaten, besteak beste.

**Kontsumoaren eta partaidetzaren arloko jarraipenerako eta ebaluaziorako adierazleen proposamena**

| HELBURU ESTRATEGIKOA | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea** | - Laguntza jaso duten elkarteen eta erakundeen kopurua<br>- Elkarteen eta/edo boluntariotzaren bidez parte hartu duten gazteen kopurua<br>- Lankidetzarako jarduera-mota |
| **Kontsumo arduratsua egiten duten gazteak** | - Ikastaroetan/tailerretan prestakuntza jaso duten gazteen kopurua |

[18] Kontsumo arduratsuaren kontzeptua, benetako beharrei egokitzen diren kontsumo-ohiturekin lotuta dago, eta ingurumena zaintzen eta gizarte-berdintasuna lortzen laguntzen dute. Kontsumo arrazionalak esan nahi du produktu edo zerbitzu bat modu kontzientean eta hausnarketaren ondorioz eskuratzen dela. Ondokoak barne hartzen ditu: erosketa aurreko unea (zer erosi, zenbat gastatu, non erosi, noiz erosi), eta nahi ez diren ondorioak sortuz gero (matxurak, egoera txarrean dauden produktuak, funtzionamenduaren zailtasunak) jasoko dugun arreta edo produktuaren ezaugarriei loturiko arreta.

## 5. ARDATZA. Sozializazioa

Gizakia, jaiotzen denetik, izaki soziala da, gizartean elkarri eragiten eta parte hartzen duena. Gazteak definitzen dituzten ezaugarrien artean konpromisoa dago, partaidetzaren bidez gauzatu eta aurreko ardatzean berariaz jasotzen dena, baina baita gazteek denbora librea eta aisialdia kudeatzeko duten modua ere. Gaur egun, aukera-sorta zabala dago, kulturatik hasita kiroleraino. Aisialdi «konstruktiboan» denbora librearen erabilera sustatzea da ardatz honetan jasotzen diren jardueren helburu nagusia.

**Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak garatzeko interesa indartzea**

Kultura, bere adierazpide guztietan (ohiturak, adierazpen artistikoak, etab.), ezinbestekoa da gizakiarentzat. Kultura ez da bere kabuz sortzen; kulturak sozializazioa behar du, eta prozesu horretan, gazte-kolektiboak funtzio garrantzitsua betetzen du: alde batetik, adierazpide gisa balio duelako, eta bestetik, kulturaren kontsumoaren ikuspegitik, aisialdirako espazio gisa.

Testuinguru horretan, hainbat ildo estrategiko egituratzen dira, bai, gazte-kolektiboari zuzendutako jarduerak sustatzeko, aukera-eskaintza zabala izaten jarrai dezan, bai, zehazki, irakurtzeko ohitura sustatzeko, egungo tasak egokiak diren arren, hobetzeko asko baitago oraindik:

1. **Gazteentzako kultura-jardueren sustapena:** Kultura Ondarea Saria nabarmentzen da: horren helburua da hezkuntza-jardunean ekimena, berrikuntza, ekintzailetzarako gaitasuna, sormena eta gizarte-garapena bultzatzea, euskal kultura-ondarea edozein formatan ezagutzeko eta baloratzeko (ondare materiala zein immateriala). Horretarako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako 3. eta 4. Mailetako, batxilergoko lehen mailako eta erdi-mailako heziketa zikloetako lehen mailako ikasleek EAEko kultura-ondarea ezagutarazteko egindako bideo onenak saritzen dira. Ekimen hauek ere nabarmendu behar dira:

    a. Euskal Herriko Gazte Orkestra: lanean ari da, ibilbide profesionala musikan garatu nahi duten gazteei lehen aukera emateko, lanean hasi aurretik.

    b. Era berean, euskarazko filmen kontsumoa errazteko eta haur- eta gazte-populazioaren baitan publiko berri horiek sortzeko lan handia egiten da, bi programa hauen bitartez, funtsean: ZINEMA EUSKARAZ eta TINKO.

    c. Elkarteen-ehun sektorialaren bitartez hainbat programa lantzen da, honetarako laguntzen dutenak: i) gazteen artean kultura ezagutarazteko; ii) kulturaren kontsumoa normalizatzeko eta iii) publiko berriak sortzeko. Horren adibide dira, besteak beste, proiektu hauek: ABAO Txiki (opera haurrei gerturatzeko programa), Idazleak Ikastetxeetan programa (idazleak eskoletara eramateko) eta Euskadiko ahots gazteen abesbatzaren proiektua.

2. **Teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak:** Gazteek osatzen dutenez egunerokotasunean teknologia berriak naturaltasun handienaz erabiltzen duen gizarte-kolektiboa, ildo honek hainbat ekimen garatu nahi ditu teknologiaren bidez kultura eskuratzeko modu berriak eskaintzeko. Hala, ekimen nagusi hauek identifikatu dira:

    a. Teknologia berrien ezarpena eta/edo garapena Irakurketa Sarearen baitako liburutegi publikoetan. Diru-laguntzetarako deialdien bitartez, udal liburutegi publikoetan informazio-teknologiak ezartzeko eta garatzeko jarduerak sustatu nahi dira, kontuan hartuz azpiegitura horien funtzio nagusia zein den, hiritarrei ezagutza eta informazioa eskura jartzea, alegia.

b. e-Liburutegia, mailegu digitala: e-bookak irakurtzeko plataforma, streaming bidez, ordenagailuan edo gailu mugikorretan. Gailu mugikorrentzako Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien aplikazioa.

**3. Irakurtzeko ohitura sustatzea:** Euskal gazteen erdiak, gaur egun, irakurtzeko ohitura duen arren, beharrezkotzat jotzen da egungo tasa handitzea helburu duen ildo hau indartzea. Horretarako, lehentasunezko ekimen hauek landuko dira:

a. Euskadiko Irakurketa Sare Publikoko liburutegietako funtsa handitzea eta berriztatzea. Diru-laguntzen bidez, liburutegi sortu berrientzako liburu-funtsak erosi eta lehendik dauden liburutegietako funtsak berritu nahi dira. Horretarako, kontuan hartu behar da, irakurketa-materialaren eskaintza erabiltzaileei erakargarria iruditzuz gero, liburutegietako mailegu-kopuruak gora egiten duela eta liburutegiak bazkide gehiago lortzen dituela.

b. Gazteen artean irakurketa sustatzea. Horretarako, besteak beste, literatura-lehiaketak eta erakusketa bibliografikoak antolatuko dira eta irakurketa-jarduera osagarriak sustatuko dira (ipuinaren ordua, irakurketa-tailerrak, etab.). Irakurketa sustatzeko eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegi publikoak erabiltzeko diru-laguntzen deialdiaren bitartez gauzatzen da ekimen hau.

c. Ikasle gazteen kolektiboan irakurketa sendotzea: Ikastetxeek Irakurketa Plan bat garatu beharko dute irakurketa sendotzeko. Horretarako, gida bat sortu da, aipatutako planean txerta daitezkeen hainbat ekimen bideratzeko, besteak beste, hauek: irakasgai bakoitzean astean ordu erdiz irakurtzea, literaturaren inguruko solasaldiak antolatzea, liburutegietako liburu-kopurua handitzea, idazleekin topaketak egitea eta ipuin-kontalarien saioak antolatzea.

**Kirola maila guztietan sustatzea**

Kirola egitea da gazteei onura gehien dakarzkion jardueretako bat. Egoera fisikoa ez ezik, emozionala ere hobetzen laguntzen du. Kirolaren munduak garrantzi handia du gazteentzat, horren bitartez gizarteratzen baitira era askean. Hori dela-eta, helburu-estrategiko hau sortu da, bi lan-ildoren bidez:

**1. Kirola sustatzea:** Kontuan hartuz gaur egun euskal gazteen ia erdiak aldizka kirolen bat egiten duela, eta kirolaren ohiko praktika mutilengan askoz arruntagoa dela neskengan baino, lehentasunezko ekimen hauek identifikatzen dira, kirola sustatze aldera:

a. Eskolarteko eta Unibertsitatearteko Kirol Jokoak: horiek antolatzeko laguntza, kirola eskolan zein unibertsitatean sustatzeko. Ikasturtean zehar ikasle gazteek burututako kirol ekintzak azken ekitaldi honetan amaitzen dira, kirolari lotutako helburuaz gain, parte-hartzaileen adinerako egokia den lehiaketan ondo pasatzea eta euskara sustatzea ere helburu direlarik.

b. Kirolaren Euskal Eskola: kirolarekin loturiko pertsonei eta entitateei prestakuntza emateko helburua du, baita pertsona-kolektibo zabal bati interesatzen zaizkion prestakuntza-jardueren berri emateko xedea ere. Gazteek hainbat onura jasotzen dituzte, zuzenean (prestakuntzan modu aktiboan parte hartzen dutenean) zein zeharka (eskolan prestatu diren pertsonekin entrenatzen dutenean).

c. Kirol-federazioak laguntzen jarraitzea, EAEn kirola antolatzen eta sustatzen duten instituzio gisa.

d. Kirolari gazteak kontzientziatzea eta sentsibilizatzea, dopinari eta horren inguruko kontrolak areagotzeko beharrari dagokienez. Jardunaldiak eta hitzaldiak garatuko dira, modu espezifikoan edo beste prestakuntza baten edo informazio orokorragoaren baitan, kirol osasungarriaren praktikak duen garrantzia gazte-kolektiboan hedatzeko. Helburu horietarako, Dopinaren aurkako Euskal Agentziarekin lankidetzan aritu ahal izango da.

e. Kirolean indarkeriazko jarrerak eta jokabide desegokiak errotik kentzeko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa.

**2. Kiroleko talentu gazteen aintzatespena:** Kiroleko talentu gazteen babesa eta aintzatespena lehentasunezko ekimen hauetan oinarrituko da:

a. Bat Basque Team Fundazioaren babesa: euskal kirolari ez-profesionalei baliabideak ematea du helburu; hartara, nazioarteko goi-mailako lehiaketetan parte hartzea errazteko. Bere xede orokorra zera da: ez-profesionala, goi mailakoa eta goi errendimendukoa den euskal kirola sustatzea, Nazioarteko Batzorde Olinpiarrak onartutako modalitate guztietan. Lankidetza publiko-pribatuaren bitartez, euskal kirolarien parte-hartze handiagoa lortu nahi du goi lehiaketako kirolean, eta kirol-emaitzak hobetu lehiaketa horietan. Kirolariei babesa emateaz gain, gainontzeko euskal gazteei irudi eredugarria ematen laguntzen du.

b. Fadurako Hobekuntza Teknikorako Zentroa: goi-mailako kirolariei zuzentzen zaie, baita federazioek zuzendutako eta Kirolen Zuzendaritzak onetsitako kirol-proiektuetan parte hartzen duten pertsonei ere.

**Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea**

Diagnostikoan jaso den bezala, zenbat eta gazteago izan, orduan eta euskalduntze-maila altuagoak erregistratzen dira. Hala ere, hizkuntzen ezagutza eta erabilera ez dira beti modu berean hazten. Euskara osasuntsu egon arren, erabilera da erronka nagusienetako bat, hizkuntzen suspertze-prozesu guztietan gertatzen den bezala. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzaren legealdi honetako erronketako bat da euskararen erabilera aisialdirako esparruetara eta inguru ez-formaletara eramatea.

**1. Euskararen erabilera aisialdirako esparruetan sustatzea:** Euskararen ezagutzari buruzko datuak ez datoz bat erabilerari lotutako datuekin; izan ere, familia-esparruan, euskara ezagutzen duten gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok gaztelania erabiltzen du bere harremanetan, edo euskara baino gaztelania gehiago. Ehuneko horrek behera egiten du komunikazioa lagunekin gertatzen denean.

a. Programen edo jardueren garapenean zehar euskararen erabilera kontuan izatea, gazteriaren alorrean diru-laguntzak ematerakoan.

b. Gazte-elkarteen jardueretan euskararen erabilera sustatzea.

c. «Euskalgintza» diru-laguntzaren deialdia: euskararen presentzia giro informaletan sendotzeko eta areagotzeko eta haurren zein gazteen aisialdian euskararen erabilera sustatzeko.

d. IKT diru-laguntzaren deialdia: IKTetan euskararen erabilera sustatzeko, aisialdiari eta gazteriari

zuzendutako web-orriei eta aplikazioei lehentasun berezia emanez.

e. «Hedabideen Laguntza» deialdia, nerabeei eta gazteei zuzendutako euskarazko argitalpenak sustatzeko.

f. Euskararen Aholku Batzordearen parte hartzea Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan (EGK), gazteen artean lan-esparruak aztertzeko eta proposatzeko.

g. Inguru euskaldunean bizi diren pertsona erdaldunen bizikidetzarako proiektu pilotua: populazio orokorrari zuzentzen zaioen arren, gehienbat gazteek parte hartzen dute horretan.

**Kulturaren, aisialdiaren eta kirolaren arloko jarraipenerako eta ebaluaziorako adierazleen proposamena**

| HELBURU ESTRATEGIKOA | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta kultur jardueren garapenarekiko interesa indartzea** | - EJk babestutako edo programatutako kultur jardueretan parte hartu duten gazteen kopurua (jardueraren arabera zehaztuta: Kultura Ondarea Saria, ZINEMA EUSKARAZ, TINKO, etab.) |
| **Kirola maila guztietan sustatzea** | - Eskolarteko eta Unibertsitatearteko Kirol Jokoetan parte hartu duten gazteen kopurua<br>- Bat Basque Team eta Fadurako Zentrora atxikitako kirolari gazteen kopurua |
| **Aisialdia eta euskara** | - Euskara sustatzeko eta bultzatzeko ekimenen onurak jaso dituzten gazteen kopurua |

# #05

## Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren gobernantza, ebaluazioa eta jarraipena



# 5. Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren gobernantza, ebaluazioa eta jarraipena

## Planaren indarraldia

2020rako IV. Gazte Planaren indarraldiak 2018ko ekitalditik 2021era arte irauten du. 2020rako Gazte Planaren indarraldia 2021. urtera arte (hori barne) luzatzea erabaki da, Eusko Jaurlaritzaren aurreko Gazte Planaren esperientziaren ondorioz; hartara, datorren legealdirako dokumentu berriaren lanketa ahalbidetzen da, egitura organikoen aldaketetara egokitu dadin, baita gazteriarekin lotura duten Eusko Jaurlaritzako sektore-esparruen planifikazio berrira ere.

## Sailen arteko kudeaketarako eta koordinaziorako eredua

Eusko Jaurlaritzaren 2018-2021rako IV. Gazte Plana zuzentzeko ardura Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari dagokio.

Gainera, planak zeharkako izaera duenez eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen zuzendaritza askok parte hartzen dutenez, jasotako ekimen guztiak behar bezala kudeatzeko eta koordinatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren Sail arteko Batzordea sortu da, koordinaziorako organo gisa, gazteriaren arloko esku-hartzeen garapena eta aplikazio eraginkorra bermatze aldera, eta aldi berean, esku-hartze horiek sustatzeko organo gisa.

Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren Sail arteko Batzordea Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitzen zaio, funtzio hauek gauzatzeko:

a) Eusko Jaurlaritzaren gazte-politika integralaren garapena bultzatzea.

b) Legealdiko plan estrategiko honetan jasotzen diren ekintzen programazioa, jarraipena eta ebaluazioa baliozkotzea.

c) Elkarlanerako eta koordinaziorako formulak ezartzea Eusko Jaurlaritzaren gazte-politika integralarekin zerikusia duten sailen artean.

Sailburuordeak edo plan honek jasotzen dituen arlo guztietan eskumena duen antzeko karguren batek edo hark eskuordetzen duen pertsonak –baldin eta, gutxienez, zuzendari-kategoria edo parekoa badu– osatuko du Batzordea. Batzordeko kideren batek arlo batean baino gehiagotan eskumena izanez gero, bakarrean hartuko du parte Batzordean, ondore guztietarako. Gainera, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea edo berak eskuordetzen duen pertsona gonbidatuko da Batzordearen saio eta zeregin guztietara, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Enplegu eta Gazteria Sailburuordetzari dagokio Batzordearen presidentzia, edo horrek eskuordetzen duenari. Idazkaritza, berriz, Gazteria saileko zuzendariari dagokio, edo berak eskuordetzen duenari.

Mahaiak, komisio teknikoak edo sektorialak, lantaldeak eta sail arteko koordinaziorako gainontzeko bide organiko eta funtzionalak eratu ahal izango dira.

Batzordearen baitako Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak dagozkion solaskide- eta ordezkari-funtzioak betetzen dituela bermatuko du Eusko Jaurlaritzaren Gazteriaren Sail arteko Batzordearen aurrean, politikaren zein teknikaren esparruan.

## 2020ko IV. Gazte Planaren ekintza garrantzitsuez arduratzen diren Eusko Jaurlaritzako Sailak eta Zuzendaritzak

Jarraian, IV. Gazte Planean jasotzen diren ekintzen garapenean parte hartzen duten sailburuordetzak zerrendatzen dira, sail bakoitzaren arabera:

**Lehendakaritza**

- Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia
- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
- Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia
- Emakunderen Zuzendaritza

**Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saila**

- Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza
- Industria Sailburuordetza
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetza
- Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza

**Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila**

- Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza
- Gizarte Politiketako Sailburuordetza
- Lanbideren Zuzendaritza Nagusia

**Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila**

- Ingurumen Sailburuordetza
- Etxebizitza Sailburuordetza

**Hezkuntza Saila**

- Hezkuntza Sailburuordetza
- Lanbide Heziketako Sailburuordetza
- Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza

**Osasun Saila**

- Osasun Sailburuordetza
- Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusia

**Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila**

Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza

**Kultura eta Hizkuntza Politika Saila**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Kultura Sailburuordetza

**Segurtasun Saila**

Segurtasun Sailburuordetza
Ertzaintzaren Zuzendaritza

**Lan eta Justizia Saila**

Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuordetza
Justizia Sailburuordetza
Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Zuzendaritza Nagusia

Jarraian, IV. Gazte Planean jasotzen diren ekintzen garapenean parte hartzen duten zuzendaritzak zerrendatzen dira, sail bakoitzaren arabera:

**Lehendakaritza**

Europako Gaietarako Zuzendaritza
Gobernu Irekiko Zuzendaritza
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Zuzendaritza
Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendaritza
Emakunderen Zuzendaritza
Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritza

**Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saila**

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza
Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza
Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europako Politiketako Zuzendaritza
Ekintzailetzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza
HAZIren Zuzendaritza
Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza
Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza
Teknologia eta Estrategia Zuzendaritza
SPRIren Zuzendaritza Nagusia
Nazioartekotze Zuzendaritza
Garraio Plangintzaren Zuzendaritza

**Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila**

Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
Lanbideren Zuzendaritza Nagusia
Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza

**Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila**

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza
Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza

**Hezkuntza Saila**

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza
Lanbide Heziketako Zuzendaritza
Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza
Ikerketa Zuzendaritza
Planifikaziorako eta Antolaketarako Zuzendaritza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza

**Osasun Saila**

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusia

**Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila**

Merkataritza Zuzendaritza
Kontsumobideren Zuzendaritza
Turismo eta Ostalaritzako Zuzendaritza

**Kultura eta Hizkuntza Politika Saila**

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza

**Segurtasun Saila**

Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza
Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza
Ertzaintzaren Zuzendaritza
Trafiko Zuzendaritza

**Lan eta Justizia Saila**

Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza
Justizia Zuzendaritza
Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Zuzendaritza

## Urteko programazioaren eta ebaluazioaren zikloa




Urte bakoitzaren hasieran, urtean zehar garatuko diren jarduerak zehaztuko dituzte planean parte hartzeen duten eta Sail arteko Batzordea osatzen duten Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzek. Gazteriaren arloko ekintza positiboaren politiken urteko programazio hori Gazteria Zuzendaritzak koordinatuko du eta Sail arteko Batzordean aurkeztuko da. Ekintzen programak, jardueren zerrenda edukitzeaz gain, honako hauek jasoko ditu: jarduerak gauzatzeaz arduratzen diren entitateak, aurreikusitako finantzaketa (aurrekontuaren eskuragarritasuna eta aurrekontuari dagozkion irizpideak kontuan hartu beharko ditu), Gazte Planarekin bat datozen helburuak, pertsona edo entitate hartzaileak, eta urteko ebaluaziorako adierazle espezifikoen hautaketa, IV. Plan honetan proposatzen diren adierazleetan oinarrituz (hautaketa hori, funtsean, jatorrizko plan eta estrategietan proposatutako adierazleak kontuan hartuz osatu da).

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren eragin ekonomikoari dagokionez, aurreko gazte planetan bezala, ez da beharrezkoa aparteko aurrekontu-zuzkidurarik izatea; izan ere, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak programatutako jardueren finantzaketa saileko edo jarduerak gauzatzeko eskumena duen organismoko aurrekontu arruntetatik ordainduko da. Sail arteko Batzordeak bilerak egingo ditu sailekin edo Jaurlaritzarekin batera, ekimenen aurrerapenak eta, besteak beste, adierazleen jarraipena egiteko planifikazioan edo informazioaren bilketan egin beharko liratekeen aldaketak partekatzeko.

Batzordean, gainera, urteko programazioan sartu beharreko ekimenak identifikatzeko eta zehazteko lan egingo da, IV. Gazte Plan hau egin bitartean Eusko Jaurlaritza lantzen ari den plan estrategiko berrietatik edo aurreikusita dauden planetatik erator daitezkeenak.

Ekitaldi bakoitza amaitu ondoren, Sail arteko Batzordean parte hartzen duten sailek igorritako informazioan oinarrituz, burututako jardueren jarraipen-txostena egingo du Gazteria Zuzendaritzak. Bertan, egindako jarduerez gain, gauzatu ezin izan direnak, atzeratu egin direnak edo bertan behera utzitakoak jasoko dira, eta horren arrazoia azalduko da. Sail arteko Batzordeak baliozkotuko du txosten hori.

## Amaierako ebaluazioa

IV. Gazte Plana amaitzean, ebaluazio oso bat egingo da lorpenen ikuspegi globala izateko. Definitutako adierazleen arabera egingo da ebaluazioa, adierazleen tipologia guztiak kontuan hartuz (prozesua, emaitza edo eragina).

Amaierako ebaluazio-txostena Sail arteko Batzordean aurkeztuko da.

## Erakunde arteko koordinazioa

Amaierako ebaluazio-txostena EAEko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaio, gazteriaren arloko politikak bultzatzen eta garatzen dituen instituzioen arteko koordinazio- eta lankidetza-organoa baita.

Gainera, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren programazioaren eta ebaluazioaren berri emango zaie Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeko partaideei, lankidetzarako esparruak identifikatu ahal izateko.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako IV. Gazte Planaren lanketan foru-aldundiekin, euskal hiriburuetako udalekin, EUDELekin eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lan egin den bezala, hau da, modu partekatu eta koordinatuan, Zuzendaritza Batzordean parte hartzen duten pertsonei galdegin ahal izango zaie gazteriaren arloko jardueren inguruan.

# #06

## Gazteria-arloko 2020rako euskal estrategiaren adierazleen taulari egindako ekarpena



# 6. Gazteria-arloko 2020rako euskal estrategiaren adierazleen taulari egindako ekarpena

Gazteria-arloko 2020rako euskal estrategiak gazteriarekin lotura duten adierazleen taula definitzen du, taularen diseinuan parte hartu duten instituzio guztien artean landutakoa. Taula 29 adierazlek osatzen dute, eta 2020an bete beharreko hainbat xede-balio ezarri ziren horietarako.

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plan honen ekintzek adierazle bakoitzean ezarritako xedeak betetzera laguntzen dutela erakutsi nahi da modu kualitatiboan. Horretarako, esparru-estrategian jasotako adierazleekin lotu da IV. Plan honen egitura estrategikoa.

Jarraian, xedeen eta adierazleen arteko lotura jasotzen da, IV. Gazte Planaren egitura estrategikoa osatzen duten 24 helburuekin. Honela egin da lotura kualitatiboa:

- Kolore laranjaz adierazitako kasuetan, helburu estrategikoak modu argi eta zuzenean laguntzen du adierazitako xedeak lortzera.
- Kolore horiak helburu estrategikoek xedeei modu zuzenean egindako ekarpenak identifikatzen ditu.

Hartara, arlo bakoitzak xedeei eta adierazleei zer motatako ekarpena egiten dien ikus daiteke.


Emantzipazioa eta autonomia
Ongizatea eta bizitza osasungarria
Berdintasuna eta gizarteratzea
Gizarte-partaidetza eta -konpromisoa
Sozializazioa
Enplegua
Etxebizitza
Hezkuntza
Osasuna
Gizarte-ekintza eta berdintasuna
Partaidetza
Kontsumoa
Kultura
Kirola
Aisialdia
Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza- eta lan-arloaren trantsituan
Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago
Gazteriaren lan-baldintzak hobetzea
Gazte ekintzaile gehiago
Baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteak laneratzea
Etxebizitza bat eskuratzeko aukera gehiago gazte-kolektiboarentzat
Balioetan oinarritutako hezkuntza
Euskal gazte eleaniztun gehiago
Aukera-berdintasuna hezkuntza-sisteman
Gazte ikertzaile gehiago
Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea
Haurren gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea
Gazteei sexu-bizitza osasungarria izaten laguntzea
Gazteen portaera arriskutsuak eta/edo adikzioak (sustantziarekin edo gabe) prebenitzea
Baztertuta geratzeko arrisku-egoerak prebenitzea
Nortasun desberdinen arteko berdintasunean aurrera egitea
Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea
Tratu txar mota berriak prebenitzea
Komunikazioa, partaidetza eta elkarren ezagutza bultzatzea
Kontsumo arduratsua egiten duen gazte gehiago
Kulturaren kontsumoa bultzatzea eta gazteei zuzendutako zein gazteek sortutako kultura-jarduerak garatzeko interesa indartzea
Kirola maila guztietan sustatzea
Aisialdiko eremuetan euskararen erabilera sustatzea
Xedea
Adierazlea
Emantzipazioa eta autonomia
Orokorra
Emantzipatutako gazteen kopurua handitzea
Emantzipazio-tasa
Emantzipazio-adina aurreratzea
Batez besteko emantzipazio-adina
Hezkuntza
Eskola-uzte goiztiarra murriztea
Eskola-uzte goiztiarraren tasa
Derrigorrezko eskolaldiaren maila handitzea
Graduazio-tasa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko mailetan
Gazte hirueledunen kopurua handitzea
Hirueletasun-tasa
Goi-mailako ikasketen bolumenari eustea
Goi-mailako ikasketetako prestakuntza-ehunekoa
Enplegua
Gazteen langabezia murriztea
Gazteen langabezia-tasa
Gazte-enpleguan aldi baterakotasuna murriztea
Behin-behinekotasun tasa
Gazte-ekintzailetza areagotzea
Norberaren konturako enpleguaren tasa
Gazteen lan-istripuen kopurua murriztea
Lan-istripuen indizea
Etxebizitza
Etxebizitza alokatzeko ahalegin ekonomikoa txikitzea
Alokairuko etxebizitza-merkatura sartzearen kostua
Alokairu-araubidean bizi den gazte kopurua handitzea
Emantzipazioa alokairu-araubidean
Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa
Orokorra
Gazteriaren bizi-kalitatea hobetzea
Norberaren poztasun-indizea
Osasuna
Trafikoaren ondoriozko heriotza-tasa murriztea gizon gazteen artean
Trafikoaren ondoriozko heriotza-tasa gizonen artean
Gazteen sedentarismoa eta obesitatea murriztea
Obesitate-tasa
Gazteen sedentarismoa eta obesitatea murriztea
Jarduera fisikoa
Drogen kontsumoa murriztea (tabakoa, alkohola eta kalamua)
Tabakoaren kontsumoa
Drogen kontsumoa murriztea (tabakoa, alkohola eta kalamua)
Gehiegizko eta arriskuzko kontsumoa asteburuetan
Drogen kontsumoa murriztea (tabakoa, alkohola eta kalamua)
Ohiko kalamu-kontsumoa
Nerabeen haurdunaldiak gutxitzea
Nerabeen haurdunaldi-tasa
Gizarte-ekintza
Gazteen etxeetan pobrezia-arriskua murriztea
Pobrezia-arriskua
Generoen arteko desoreka murriztea etxeko lanen banaketan
Generoen arteko desoreka etxeko lanetan
Kultura
Gazteek jarduera artistikoetan parte-hartze handiagoa izatea
Jarduera artistikoetan parte hartzea
Gazteen artean irakurtzeko ohitura handitzea
Irakurtzeko ohitura
Gazteen artean irakurtzeko ohitura handitzea
Euskaraz irakurtzeko ohitura
Aisialdia
Gazteek aisialdian euskara gehiago erabiltzea
Lagunartean euskara erabiltzea
Gazteen asoziazionismoa handitzea
Asoziazionismo-tasa
Kontsumoa
Gazteen artean kontsumo jasangarria areagotzea
Kontsumo jasangarria
Mugikortasun jasangarria
Gazteen artean garraio publiko kolektiboaren erabilera handitzea
Garraio publiko kolektiboaren erabilera

# #07

## Eranskinak



# Eranskinak

## I. eranskina: Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planak GJHei egindako ekarpena. 2030 Agendako xedeekin bat etortzea

Jarraian, planarekin harreman zuzena duten GJHak, Nazio Batuek horien inguruan ematen duten definizioa eta lotura zuzenena duten xedeak jasotzen dira:




Pobrezia-agerpenen barruan hauek sartzen dira: gosea, malnutrizioa, etxebizitza duinen falta eta oinarrizko beste zerbitzu batzuen eskuragarritasun mugatua, besteak beste, hezkuntzarena edo osasunarena. Diskriminazioa eta gizarte-bazterkeria ere sartzen dira. Pobreziarekin amaitzeko helburua gauzatzeko, ekonomiaren hazkuntzak inklusiboa izan behar du, enplegu jasangarriak sortzeko eta berdintasuna sustatze aldera.

**Harremana duten xedeak**

- 1.2 2030. Urterako, definizio nazionalen arabera pobrezian, bere dimentsio guztietan, bizi diren gizon, emakume eta adin guztietako haurren proportzioa erdira behintzat jaistea.
- 1.3 Nazio-mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, 2030erako, pertsona pobre eta ahulen babes zabala lortzea.
- 1.5 2030erako, pobreen eta ahultasun-egoeretan dauden pertsonen erresilientzia sustatzea eta klimarekin eta beste asaldura eta hondamen ekonomiko, sozial eta ingurumeneko batzuekin lotutako muturreko fenomenoen eraginpean egotea eta ondoriozko ahultasuna murriztea.
- 1.b Nazio-, eskualde- eta nazioarte-mailan araudi-esparru sendoak sortzea, pobreen aldeko garapen-estrategien oinarriaren gainean, genero-kontuak aintzat hartzen dituztenak, pobreziarekin amaitzeko neurrietan inbertsio bizkortua bultzatzeko.




Elikaduraren eta nekazaritzaren sektoreek garapenerako giltzarri diren konponbideak eskaintzen dituzte, gosea eta pobrezia deuseztatzeko ezinbestekoak. Ondo gauzatuz gero, nekazaritzak, basogintzak eta akuikulturak janari nutritiboz horni dezakete planeta osoa. Horrez gain, diru-sarrera egokiak sor ditzakete, landako jendearen garapenari lagun diezaiokete eta ingurumena babes dezakete.

**Harremana duten xedeak**

- 2.1 2030erako gosearekin amaitzea eta pertsona guztiek, bereziki pobrezia- eta kalteberatasun-egoeran daudenek, edoskitzaroan dauden haurrak barne, urte osoan elikadura osasungarria, nutritiboa eta nahikoa eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea.

- 2.2 2030erako, malnutrizioaren modu guztiekin amaitzea, eta, beranduenez 2025ean, nazioartean hazkundearen atzerapenaren eta 5 urtetik beherako umeen ahultasunaren gainean hitzartutako erronkak lortzea, eta nerabeen, haurdun daudenen eta bular-emaile diren emakumeen eta adineko pertsonen nutrizio-beharrei erantzutea.

Azken hamarkadetan aurrerapen handiak lortu dira bizi-itxaropenaren inguruan, hori luzatu baita eta heriotzaren kausa arruntenetako batzuk murriztu baitira, haurren eta amen hilkortasunarekin loturikoak. Era berean, ur garbiaren eskuragarritasunean eta saneamenduan hobekuntzak lortu, eta malaria, tuberkulosi, poliomelitis eta GIB/HIESaren kasuak murriztu dira. Hala ere, askoz ekimen gehiago behar dira hainbeste gaixotasun deuseztatzeko eta osasunarekin lotura duten eta suspertzen ari diren hainbat gai iraunkorri aurre egiteko.

**Harremana duten xedeak**

- 3.3 2030erako, HIESaren, tuberkulosiaren eta malariaren izurriekin eta aintzat hartu ez diren beste gaixotasun tropikal batzuekin amaitzea eta hepatitisari, uraren bidez transmititutako gaixotasunei eta transmiti daitezkeen beste gaixotasun batzuei aurre egitea.

- 3.4 2030erako, heren batera murriztea transmititu ezin diren gaixotasunen ondoriozko heriotza-tasa goiztiarra, prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea.

- 3.5 Mendekotasuna sortzen duten substantzien prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupefazienteen erabilera desegokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne.

- 3.7 2030erako, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, familia-plangintzakoak, informaziokoak eta hezkuntzakoak barne, eta ugalketa-osasuna sartzea estrategia eta programa nazionaletan.

Kalitatezko hezkuntza bat lortzea da pertsonen bizitza hobetzeko eta garapen jasangarrirako oinarria. Aurrerapen handiak lortu dira hezkuntzaren eskuragarritasunaren hobekuntzari –maila guztietan– eta eskolatze-tasen areagotzeari dagokienez, batez ere, emakumeen eta nesken kasuan. Gutxieneko alfabetatze-maila neurri handian areagotu da, baina ahalegin gehiago egin behar da hezkuntza unibertsalaren helburuen lorpenean aurrerapen handiagoak lortzeko. Adibidez, nesken eta mutilen arteko berdintasuna lortu da munduko haur-hezkuntzan, baina herrialde gutxi dira helburu hori hezkuntzaren maila guztietan lortu dutenak.

**Harremana duten xedeak**

- 4.1 Hemendik 2030era bitarte, haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza amaitzen dutela ziurtatzea; doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izan behar du, eta ikaskuntza-emaitza egokiak eta eraginkorrak ekarri behar ditu.

- 4.2 Hemendik 2030era bitarte, haur guztiek lehen haurtzaroan eta aurre eskolako hezkuntzan arretarako eta garapenerako kalitatezko zerbitzuak eskura ditzaketela ziurtatzea, lehen hezkuntzarako prest egon daitezen.

- 4.3 Hemendik 2030era bitarte, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela ziurtatzea, unibertsitate-irakaskuntza barne.

- 4.4 Hemendik 2030era bitarte, nabarmen areagotzea enplegua eta lan duina eskuratzeko eta ekintzailetzarako beharrezko gaitasunak, batez ere teknikoak eta lanbidekoak, dituzten gazte eta helduen kopurua.

- 4.5 Hemendik 2030era bitarte, genero-desberdintasunak ezabatzea hezkuntzan, eta berdintasunean oinarritzen den sarbidea ematea irakaskuntzako maila guztietan eta lanbide-prestakuntzan pertsona ahulenei, desgaitasunen bat duten pertsonei, herri indigenei eta ahultasun-egoeran dauden haurrei barne.

- 4.6 Hemendik 2030era bitarte, gazte guztiak eta helduen proportzio handi bat, bai gizonak bai emakumeak, alfabetatuta daudela eta aritmetikako oinarrizko ezagutzak dituztela ziurtatzea.

- 4.7 Hemendik 2030era bitarte, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako, giza eskubideetarako, genero-berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzeko, munduko herritartasunerako eta kultura-aniztasuna baloratzeko eta kulturak garapen jasangarriari laguntzeko, hezkuntzaren bidez.

- 4.a Haurren eta desgaitasunen bat duten pertsonen beharrak eta genero-desberdintasunak kontuan dituzten eta ikaskuntza-ingurune seguruak, indarkeria gabeak, inklusiboak eta guztiontzako eraginkorrak eskaintzen dituzten hezkuntzako instalazioak eraikitzea eta egokitzea.

- 4.b Hemendik 2020ra bitarte, nabarmen areagotzea, mundu-mailan, garapen-bidean dauden herrialdeetarako eskuragarri dagoen beka-kopurua, zehazki, aurrerapen txikieneko herrialdeetarako, garapen-bidean dauden uharte-estatuetarako eta Afrikako herrialdeetarako daudenak, bertako ikasleak herrialde garatuetako edo garapen-bidean dauden beste herrialde batzuetako goi-mailako irakaskuntza-programetan matrikulatu ahal izateko, lanbide-prestakuntzako programak eta programa teknikoak, zientifikoak, ingeniaritzakoak eta informazioaren eta komunikazioen teknologiari buruzko programak barne.




Generoen arteko berdintasuna ez da soilik funtsezko giza-eskubide bat, baizik eta mundu baketsua, oparoa eta jasangarria lortzeko beharrezko oinarria. Emakumeei eta neskei berdintasuna bermatuz gero hezkuntzarako, arreta medikorako, lan egokirako eta politikaren zein ekonomiaren arloko erabakiak hartzeko prozesuetara sartzean, ekonomia jasangarriak bultzatuko dira eta gizarteari eta gizateriari, oro har, on egingo zaio.

**Harremana duten xedeak**

- 5.1 Mundu guztian emakume eta neskatoen aurkako diskriminazio modu guztiekin amaitzea.
- 5.2 Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria modu guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-ustiapena eta beste ustiapen mota batzuk barne
- 5.4 Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera.
- 5.6 Sexu- eta ugalketa-osasunerako sarbide unibertsala ziurtatzea, baita ugalketa-eskubideak ere, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren Ekintza Programarekin, Pekineko Ekintza Plataformarekin eta aztertzeko konferentzien azken dokumentuekin bat adostutakoaren arabera.
- 5.a Emakumeei baliabide ekonomikoetarako eskubide-berdintasuna eta lurraren jabetza eta kontrolerako eta ondasunak, finantza-zerbitzuak, herentzia eta natura-baliabideak eduki ahal izateko eskubide-berdintasuna ematen dieten erreformei ekitea, lege nazionalekin bat etorriz.
- 5.b Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiarena, emakumeen ahalduntzea sustatzeko.
- 5.c Politika zuzenak eta genero-berdintasuna sustatzeko lege aplikagarriak onestea eta indartzea, emakume eta neskato guztien genero-berdintasuna eta ahalduntzea sustatzeko, maila guztietan.




Taxuzko lana lortzeko aukerarik eza, inbertsio aski eza eta kontsumo baxuak direla eta, gizarte demokratikoen azpian dagoen oinarrizko kontratu soziala higatzen ari da: hain zuzen, guztiok aurrerapena partekatzeko dugun eskubidea. Garapen ekonomiko jasangarria lortzeko, gizarteek baldintza egokiak sortu beharko dituzte pertsonek kalitatezko enpleguak eskura ditzaten, ekonomia sustatuz eta ingurumena kaltetu gabe. Lan egiteko adinean dagoen populazio osoarentzat ere lan-aukerak egon beharko dira, lan-baldintza duinekin.

**Harremana duten xedeak**

- 8.3 Garapenera bideratutako politikak sustatzea, honako alderdi hauei babesa emango dietenak: ekoizpen-jarduerak, lanpostu egokien sorrera, ekintzailetza, sormena eta berrikuntza; eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatzea, baina finantza-zerbitzuak eskuratzearen bidez ere.
- 8.5 Hemendik 2030era bitarte, enplegu osoa eta produktiboa eta taxuzko lana lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik ordainsari berdina eman dadila lortzea.
- 8.6 Hemendik 2020era bitarte, nabarmen murriztea enplegurik ez duten eta ikasten edo gaitzen ari ez diren gazteen proportzioa.
- 8.7 Berehalako neurri eraginkorrak hartzea lan bortxatuarekin amaitzeko, amaiera ematea egungo esklabotasun-moduei eta pertsonen salerosketari, eta haurren lanaren forma okerrenak (errekrutatzea eta haur soldaduak barne) debekatu eta kenduko direla bermatzea; eta, hemendik 2025era, amaiera ematea haurren lanari, bere forma guztietan.
- 8.8 Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea langile guztientzat, migratzaileak barne, eta, bereziki, emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituztenentzat.
- 8.b Hemendik 2020ra bitarte, gazte-enplegurako mundu-mailako estrategia bat garatzea eta martxan jartzea, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Enplegurako Munduko Ituna aplikatzea.

10 DESBERDINTASUNEN MURRIZKETA

Diru-sarrerei dagokienez, herrialdeen arteko desberdintasunak murriztu dira, baina herrialdeen barnean handitu egin dira. Gero eta adostasun handiagoa dago ekonomiaren hazkundea ez dela nahikoa pobrezia murrizteko, ez bada inklusiboa eta ez baditu kontuan hartzen garapen jasangarriaren hiru dimentsioak; hau da, ekonomia, gizartea eta ingurumena. Desberdintasunak murrizteko asmoz, gomendatu da populazio babesgabe eta baztertuen beharrei arreta berezia jartzen dioten politika unibertsalak aplikatzea.

**Harremana duten xedeak**

- 10.2 Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztien gizarte-, ekonomia- eta politika-inklusioa indartzea eta sustatzea, beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edozein dela ere.
- 10.3 Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, baita horretarako diskriminaziozko legeak, politikak eta praktikak kendu egin behar badira ere, alde horretatik egokiak diren legeak, politikak eta neurriak ezartzeko.

- 10.4 Politikak ezartzea (bereziki, zergei, soldatei eta gizarte-babesari lotutakoak), eta pixkanaka gero eta berdintasun handiagoa lortzea.

Asko dira hiriak mantentzeko arazoak, lurraren eta baliabideen gainean presiorik egin gabe enpleguak eta oparotasuna sortzen jarraitu nahi baldin bada. Hirien arazo arruntak honakoak dira: pilaketa, oinarrizko zerbitzuak emateko funtsen gabezia, etxebizitza egokien urritasuna eta azpiegituren narriadura.

**Harremana duten xedeak**

- 11.1 Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea.

- 11.2 Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea, batez ere, garraio publikoa areagotuz eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen beharrei arreta berezia eskainiz (emakumeak, haurrak, desgaitasunen bat dutenak eta adineko pertsonak).

- 11.7 Hemendik 2030era bitarte, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat.

Kontsumo eta ekoizpen jasangarria egiteko, baliabideen erabilera eraginkorra, eraginkortasun energetikoa eta azpiegitura jasangarriak sustatu behar dira, eta oinarrizko zerbitzuen eskuragarritasuna, enplegu ekologiko eta egokiak eta guztiontzako bizi-kalitate hobea erraztu behar dira. Horren aplikazioak laguntza ematen du garapenerako plan orokorrak lortzeko, ekonomiari, ingurumenari eta gizarteari loturiko etorkizuneko kostuak murrizteko, lehiakortasun ekonomikoa areagotzeko eta pobrezia murrizteko.

**Harremana duten xedeak**

- 12.2 Hemendik 2030era bitarte, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra egin dadila lortzea.

- 12.3 Hemendik 2030era bitarte, erdira murriztea txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean alferrik galtzen diren per capita elikagaien kopurua, eta ekoizpen eta hornikuntzako kateetan elikagai-galerak murriztea, uztaren ondorengo galerak barne.

- 12.5 Hemendik 2030era bitarte, nabarmen murriztea hondakinen sorrera, prebenitu, murriztu, birziklatu eta berrerabiltzeko jardueren bitartez.

- 12.8 Hemendik 2030era bitarte, mundu osoko pertsonek beharrezko informazioa eta ezagutzak dituztela bermatzea, garapen jasangarrirako eta naturarekin bat datorren bizimodua izateko.

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

Helburu hau gizarte baketsu eta inklusiboen sustapenean oinarritzen da, garapen jasangarria, guztiontzako justizia eskuragarria eta maila guztietan arduratzen eta eraginkorrak diren instituzioen eraikuntza lortzeko. Gatazkaren bat jasaten duten herrialdeetan, Lehen Hezkuntzan eskola uzten duten haurren tasa % 50 izan zen 2011an, hau da, 28,5 milioi haurrek utzi zuten eskola.

**Harremana duten xedeak**

- 16.1 Nabarmen murriztea indarkeria-mota guztiak, eta horiei lotutako heriotza-tasak, mundu guztian.
- 16.2 Amaiera ematea haurren kontrako tratu txarrei, esplotazioari eta indarkeria- eta tortura-mota guztiei.
- 16.9 Hemendik 2030era bitarte, denok nortasun juridikoa izan dezagula ahalbidetzea, batez ere, jaiotzen erregistroaren bidez.

## III. Eranskina: Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planaren (2014-2016) egitura estrategikoa

Jarraian, Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Planaren (2014-2016) egitura estrategikoa jasotzen da. Bi ardatz estrategikotan egituratzen da, eta horien inguruan 30 helburu estrategiko eta 91 jarduketa-ildo definitu dira.

### 1. ardatza: Emantzipazioa eta autonomia

Helburuak eta ildo estrategikoak:

HEZKUNTZA

- Ikerkuntza eta espezializazioko ikasketak sustatzea.
  - 1.6.1- Bertan nahiz atzerrian espezializazioko ikasketak egiteko diru-laguntzen zuzkidura sustatzea.
  - 1.6.2.- Ikerkuntza sustatzeko programak bultzatzea.
- Gazteen mugikortasuna handitzea, esperientzien trukea, eleaniztasuna eta kulturartekotasuna laguntzeko, gazteak prest egon daitezen gaur egungo gizarte global eta elkarlotuan moldatzeko.
  - 1.5.1.- Gazteek Europako mugikortasun-baliabideak gehiago erabil ditzatela sustatzea.
- Gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetzea, bai EAEko bi hizkuntza ofizialetan bai gutxienez atzerriko hizkuntza batean.
  - 1.4.1.- Diru-laguntzak antolatzea gazteek atzerrian hizkuntza-ikastaroak egiteko.
  - 1.4.2.- Gazteek EBko herrialdeekin trukea izatea sustatzea.
  - 1.4.3.- Euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzea hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuetan; bereziki, proportzioan euskararen presentzia eta ezagutza txikiagoa den lurraldeetan.
- Balioetan oinarritutako hezkuntza hobetzea hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuetan.
  - 1.2.1.- Eskolako eta eskolatik kanpoko jarduera guztietan balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea, eta jarraibideak ezartzea ikastetxearen urteko planean hezkuntza mota hori sartzeko.
  - 1.2.3.- Belaunaldi arteko esperientzia-trukea ahalbidetzeko jarduerak edo programak sustatzea.
- Gizarte eta hezkuntzako eragile guztiak hezkuntza-politika bateratuan txerta daitezela sustatzea.
  - 1.3.1.- Ikasleek ikastetxeetan parte hartzea sustatuko duten estrategiak garatzea.
  - 1.3.2.- Ikastetxeek udalarekin eta gizarte-eragileekin lankidetza-hitzarmenak egin ditzaten bultzatzea, elkarrekin jarduerak egin ahal izateko, eta denen intereseko guneak erabili ahal izateko.
  - 1.3.3.- Kontuan hartzea eragileon erantzunkidetasuna, familiak eragile aktibo gisa duen eginkizuna sustatzea, eta sendotzea eta aintzat hartzea sare sozialen eta hezkuntza-elkarteen gaitasun estrategikoa eta koordinazioa eta sareko lana.
  - 1.3.5.- Ikastetxearen curriculum-proiektuan hurbileko errealitatea nahiz Europako ingurune soziokulturalaren errealitatea sartu ahal izatea sustatzea eta erraztea.
  - 1.3.6.- Ikasleei komunikatzeko gaitasunak (linguistikoak, teknologikoak eta harremanenak) garatzen lagunduko dieten programak areagotzea, ingurunearekin harreman hobea izan dezaten.
- Gizartearen eta generoaren alorreko berdintasunik ezaren eragina eta erreprodukzioa murriztea hezkuntza-sisteman.
  - 1.1.1.- Erraztasunak ematea ikasketetan sartzeko, mantentzeko eta horiek amaitzeko, batez ere, derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketetan, diru-laguntzen eta lanarekin bateragarriak diren ikasketa-planen bidez.
  - 1.1.2.- Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea, eta erantzuna ematea haien jatorria, kultura edo izan ditzaketen desgaitasunak direla-eta izan ditzaketen behar desberdinei.
  - 1.1.5.- Genero-estereotipoei aurka egitea.
  - 1.1.7.- Ikastetxeak emigrazioaren errealitatera egokitzea, zentro horiei baliabide egokiak emanda.

ENPLEGUA

- Espiritu ekintzailea handitzea, gaitasun ekintzaileak hasierako etapetatik bultzatzeko asmoa duen politika koordinatu baten bitartez.
  - 2.4.1.- Gazteen artean espiritu berritzaile eta ekintzailea sortu eta sustatzea.
  - 2.4.2.- Politika koordinatua garatzea, gazteek autoenplegua eta enpresak sortzea sustatze aldera, kooperatibismoaren eta beste formula batzuen bitartez.
  - 2.4.3.- Nekazaritzaren sektorean sartu nahi duten gazteei prestakuntza ematea.
- Hezkuntzaren eta lan-merkatuaren arteko lotura handiagoari bide ematea, jasotako prestakuntza eta enplegu-aukerak hobeto egokitzen direla bermatzeko.
  - 2.2.1.- Berariazko prestakuntza azpimarratzea gazteak laneratzeko estrategia gisa, haien lan-ibilbideak garatzeko tresna gisa.
  - 2.2.2.- Lanbide-prestakuntza eta aurretiaz lan-eskarmentua izateko bide ematea, eskuratu diren ezagutza teorikoak gauzatzeko moduan.
  - 2.2.3.- Unibertsitateko ikasleei lan-merkatuan sartzeko behar dituzten gaitasunak ematea.
  - 2.2.4.- Ikaskuntza arautuen eta ez-arautuen ikasleei beste aukera bat eskaintzea, aisialdiaren eta sorkuntzaren eremuan.
  - 2.2.5.- Prestakuntzako eskaintza lan-merkatuaren benetako premietara egokitzea.
  - 2.2.6.- Ikastetxeek aholkularia izatea gazteei prestakuntza-ibilbideari eta enplegu-bilaketari buruzko aholkuak emateko, lan-merkatuari buruzko informazioa barne (enplegagarritasun-mailak eta ordainsariak).
- Gazteen laneratzea hobetzea, politika koordinatua sustatuz enplegua sortu eta mantentzeari begira, baita haren kalitatea hobetzeko ere, diskriminazio anizkoitzeko egoeran izan litezken pertsonak azpimarratuz.
  - 2.3.1.- Gizarte-bazterketako arriskuan dauden gazteak laneratzeko bide ematea.
  - 2.3.2.- Gazteei enplegu-politikei buruzko informazioa, orientazioa eta laguntza ematea.
  - 2.3.3.- Politika koordinatua sustatzea, gazteentzako lanpostuak sortzeko eta haiei eusteko, eta, horretarako, ekintza positiboko neurriak hartzea eta zerga-abantailak aplikatzea, kontratazioaren arloan enpresen konpromisoa sustatzeko.
  - 2.3.5.- Tokiko korporazioen parte-hartzea handitzea enplegua sortzeko programetan.
  - 2.3.7.- Gazteen istripu-tasa murriztea, generoen arteko desberdintasunei erreparatuz.
- Etengabeko prestakuntza eta bizialdi osoko ikaskuntza sendotzea.
  - 2.1.1. - Gazte langileei lanbide-gaitasunak eskuratzeko erraztasunak ematea.

ETXEBIZITZA

- Bizileku-eredu berrien garapena sustatzea, gazte-tipologia desberdinei eta haien premiei erantzuteko.
  - 3.2.1. Babestutako alokairu-etxebizitzen eraikuntza sustatzea, emantzipatu nahi duten gazteen beharretara bereziki egokitutako eraikuntza-ezaugarriekin eta araubide ekonomikoarekin.
  - 3.2.2. Gazteen artean ezagutzera ematea Etxebizitza Sailak abian jarritako webgunearen bidez babes ofizialeko etxebizitzak trukatzeko mekanismoa, eta haren erabilera sustatzea.
- Zailtasun funtsean ekonomikoak dituzten gazteek etxebizitza eskuratzeko aukerak hobetzea, etxebizitzen eskaintza handituz eta alokairua lehenetsiz.
  - 3.1.2.- Etxebizitza hutsa mobilizatzea, babestutako alokairu-merkatuan sar dadila ahalbidetuz, Etxebide Zerbitzuan izena eman duten eskatzaileentzat, bereziki erreparatuta zailtasun funtsean ekonomikoak dituzten gazteei, eta genero-indarkeriaren emakumezko biktima gazteei eta/edo gizarte-bazterketako arriskuan daudenei.
  - 3.1.3.- Pisu eta eraikin hutsak mobilizatzea, babestutako alokairu-merkatuan sar daitezela ahalbidetuz, Etxebide Zerbitzuan izena eman duten eskatzaileentzat, bereziki erreparatuta gazteei eta genero-indarkeriaren emakumezko biktima gazteei eta/edo gizarte-bazterketako arriskuan daudenei.
  - 3.1.4.- Gazteei informazioa, orientazioa eta laguntza ematea etxebizitza eskuratzeko neurri publikoen eskaintzari buruz.

## 2. ardatza: Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa

Helburuak eta ildo estrategikoak:

GIZARTE-EKINTZA

Aurrera egitea emakume eta gizon gazteen arteko harremanetan benetako berdintasuna lortzeko, bai eremu pertsonalean bai lanekoan.
- 5.2.1.- Gizon gazteen erantzunkidetasuna azpimarratzea.

Arrisku edo gizarte-bazterketako egoeran dauden gazteentzako arreta soziala hobetzea.
- 5.1.1.- Prebentzioa eta esku hartze soziala gazteen bazterketaren alorrean, aniztasunari eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei erreparatuta.
- 5.1.2.- Diru-sarrerak bermatzeko politika gazteen beharretara egokitzeko aukera ematen duten neurriak antolatzea.

Jokabide bortitzen prebentzioa hobetzea. a) Azterlanak eta ikerketak egitea gazteen arteko genero-indarkeriaren arazoari buruz. b) Komunikazio-kanal eraginkorrak sortzea gazteen artean jokabide bortitzak prebenitu ahal izateko
- 5.5.1.- Azterlanak eta ikerketak egitea gazteen arteko genero-indarkeriaren arazoari buruz.
- 5.5.2.- Komunikazio-kanal eraginkorrak sortzea gazteen artean jokabide bortitzak prebenitu ahal izateko.

Genero indarkeriaren emakumezko biktima gazteei arreta osoa ematen saiatzea.
- 5.3.1.- Genero-indarkeriaren emakumezko biktima gazteei emandako arreta eta informazioa hobetzea.
- 5.3.2.- Formulak bilatzea edonolako genero-indarkeria sufritu duten emakume gazteen arretan hautemandako gabeziak betetzeko.
- 5.3.3.- Emakume gazteen aurkako indarkeria kasuen detekzio goiztiarra handitzea.

Gazteria genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzea, lehen mailako gizarte-arazo gisa.
- 5.4.1.- Genero-indarkeriaren aurkako «zero tolerantzia» sustatzea gazteen artean.
- 5.4.2. Emakumeen aurkako indarkeria iraunarazten duten irudi eta edukiak ezabatzea.
- 5.4.3.- Herritar gazteenek genero-indarkeriako agerpenei buruz duten pertzepzioa areagotzea, batez ere, indarkeria mota sotilenei dagokienez (mikroindarkeriak).

KONTSUMOA

Gazteen ekimena handitzea eta sustatzea, hala banakakoa nola taldekakoa.
- 8.1.1.- Gazteen artean sentsibilizazio-ekintzak gauzatzea, arduratsuak eta ingurumenari dagokionez jasangarriak diren kontsumo-ohitura eta -jarreretan aurrera egiteko.

Aisiazko jardueretan euskararen erabilera sustatzea.
- 8.1.1.- Gazteen artean sentsibilizazio-ekintzak gauzatzea, arduratsuak eta ingurumenari dagokionez jasangarriak diren kontsumo-ohitura eta -jarreretan aurrera egiteko.

Kontsumo arrazional arduratsu eta jasangarriko ohiturak eta jarrerak sustatzea, genero-ikuspegi batetik.
- 8.1.1.- Gazteen artean sentsibilizazio-ekintzak gauzatzea, arduratsuak eta ingurumenari dagokionez jasangarriak diren kontsumo-ohitura eta -jarreretan aurrera egiteko.
- 8.1.2.- Publizitateak kontsumoan duen eragina lantzea, hari buruzko ikuspegi kritikoaz jabetzeko.
- 8.1.3.- Kontsumo eta erabilera arduratsua eta segurua egiteko heztea eta prestatzea, hainbat esparrutan: elikadura, aisialdia eta teknologia berriak.

KULTURA

Kulturaren ekoizpen eta kontsumoan hizkuntza- eta kultura-aniztasunari erreparatzea.
- 6.3.1.- Euskararen erabilera sustatzea gazteriarentzako jarduera kulturalen eskaintzan.
- 6.3.3.- Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako estrategia-ildoak garatzea.
- 6.3.4. - Euskal gizartearen errealitate kulturaniztuna erakustea eta kulturarteko harremanak sustatzea.

Gazteek kultura eskuratzeko dituzten aukerak handitzea, emakume eta gizon gazteek aukera berdinak dituztela bermatuz.
- 6.1.1.- Kultura kontsumitzeko ohiturak sortzea, gazteei askotariko diziplina artistiko eta kulturalak eskuratzen lagunduz, emakume eta gizon gazteek aukera berdinak izatea saiatuz.
- 6.1.2.- Kultura-eskaintza gazteentzako eskuragarriagoa bihurtzea.

Gazteen kultura-sorkuntza eta -ekoizpena sustatzea, eta emakume gazteak nabarmentzea presentzia txikiagoa duten edo behar bezain ikusgai ez dauden eremuetan.
- 6.2.1.- Euskal artista gazteak, baita beste jatorrikoak ere, erakarriko dituzten kultura-sorkuntzako eremuak sustatzea.
- 6.2.2.- Sortzaile gazteei behar besteko prestakuntza eta baliabideak ematea haien sormena garatzeko eta haien lanak zabaltzeko.
- 6.2.4.- Sortzaile gazteen artean IKTen erabilera sustatzea, sorkuntza eta ekoizpenerako tresna gisa.

MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Bestelako mugikortasun-ereduen erabilera bultzatzea, garraio pribatu motordunaren ordez, sentsibilizatuz eta kontzientzia harraraziz.
- 9.2.1.- Garraio pribatu motordunaren ordezko garraiobideen erabileraren inguruan kontzientziatzeko/sentsibilizatzeko jarduerak egitea, asteburuan gaueko garraio publikoa erabiltzeari, aisialdiko eremuetan garraio publikoa erabiltzeari eta bizikleta erabiltzeari dagokionez, bereziki azpimarratuz halakoak gutxien erabiltzen dituzten taldea

Zerikusia duten azpiegiturak, ekipamenduak eta beste alderdi batzuk hobetzea, garraio pribatu motordunaren ordezko garraiobideekin lotura badute.
- 9.1.1.- Gazteen mugikortasun-premiekin bat datorren garraio-sare publikoa sustatzea, asteburuan gaueko garraio publikoa erabiltzeari, aisialdiko eremuetan garraio publikoa erabiltzeari eta bizikleta erabiltzeari dagokionez, bereziki azpimarratuz halakoak gutxien erabiltzen dituzten lurralde historikoak.
- 9.1.2.- Oinezkoen mugikortasuna eta bizikletaren erabilera ahalbidetu eta errazteko azpiegiturak sortu eta/edo egokitzea.

## 2. ardatza: Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa (jarraipena)

Helburuak eta ildo estrategikoak:

AISIALDIA

Gazteen astialdirako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza zabaldu eta hobetzea.
- 7.2.1.- Toki-erakundeei laguntzak ematea aisialdi alternatiboko jarduerak antolatzeko, baita gazteek erabiltzeko ekipamenduak hobetzeko ere.
- 7.2.2.- Animazio soziokulturalaren arloko bitartekariak prestatzea.
- 7.2.3.- Ikus-entzunezkoekin, informatikarekin eta teknologia berriekin lotutako aisialdi-programa publikoak egitea.
- 7.2.4.- Lehendik ere bazeuden ekipamenduen erabilera optimizatzea eta kultura- eta kirol-ekipamenduaren alorreko premia berriak identifikatzea, genero-ikuspegiak kontuan harturik.

Gazteen artean kirola egitea sustatzea, maila guztietan, arreta berezia jarriz oinarriko kirolari, sozializatzeko tresna gisa eta aisialdi osasungarrirako modu gisa.
- 7.1.1.- Txiki-txikitatik kirolaniztasuna sustatzea, diziplina anitzeko eskaintza garatuz.
- 7.1.2.- Gazteek aisialdia eta astialdia aprobetxatzeko kirola egitea sustatzea, ohitura kaltegarriagoen ordezko aukera gisa, batik bat emakume gazteengan jarriz arreta.
- 7.1.3.- Kirolaren bitartez gizartean balioak ezartzeko bide ematea, kirol-erakundeen, kluben, kiroleko profesionalen eta hedabideetako profesionalen arteko hezkuntza-prozesuak antolatuz, nahita eta jakinaren gainean.

Gazteen ekimena handitzea eta sustatzea, hala banakakoa nola taldekakoa.
- 7.3.1.- Euskal udalerrietako aisialdiaren egoera aztertzea eta aisialdiko ikuspegi berriak zehaztea.
- 7.3.2.- Asoziazionismoa sustatzea.
- 7.3.3.- Gazteen, gazte kolektiboen eta administrazioaren arteko elkarrizketa- eta kudeaketa-guneak ezagutu, indartu eta ezartzea.
- 7.3.5.- Parte hartzeko modu berriak sustatu eta ezagutzea.
- 7.3.6.- Gazteek tokiko mailan parte har dezatela sustatzea.
- 7.3.7.- Gazteen boluntariotza-programak garatzea hainbat alorretan: larrialdiak, immigrazioa, gizartea, hezkuntza, ingurumena, eta gizonek boluntariotza-programa horietan parte har dezatela sustatzea.

Aisiazko jardueretan euskararen erabilera sustatzea.
- 7.4.1.- Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako estrategia-ildoak garatzea.

OSASUNA

Gazteek ezagutza, ohitura eta jokabide osasungarri gehiago berenganatzea.
- 4.2.1.- Gazteei ohitura eta jokabide osasungarriak ezagutarazi eta horiei buruz sentsibilizatzea, hizkera, kanal eta eragile aproposen bidez.
- 4.2.2.- Osasunerako hezkuntza sustatzea hezkuntza-maila guztietan.
- 4.2.3.- Gazteen osasunarekin lotutako esku-hartzeen koordinazioa sustatzea.
- 4.2.4.- Arrisku-jokabideen prebentziorako prestakuntza eta baliabideak ematea aisialdiarekin, astialdi hezigarriarekin, kulturarekin eta jarduera fisikoarekin zerikusia duten eragileei.

Errepideetan gazteen mugikortasunaren ondorioz izaten diren istripuen tasa murriztea.
- 4.4.2.- Errepideetako istripu-tasa eta ingurumen-inpaktua murrizteko arduraz gidatzeko beharrari buruz sentsibilizatzea, generoen arteko desberdintasunak kontuan hartuta.

Osasunarekin lotutako arrisku-jokabideak murriztea, gazteei eragiten dieten eremu guztietan.
- 4.3.2.- Prebentziozko jarduera garatzea osasun-arazo nagusiei aurka egiteko: trafiko-istripuei, mendekotasun-jokabideei, hiesari, sexu bidez transmititzen diren gaixotasunei, nahi gabeko haurdunaldiei, elikadura-nahasmenduei, jarduera fisikorik ezari eta jokabide sedentarioan denbora handia emateari, nahasmendu mentalei eta laneko segurtasuna
- 4.3.3.- Hezkuntzaren eremutik prebenitzea pertsonen osasunean eragin kaltegarria duten arrisku-jokabide nagusiak.
- 4.3.4.- Alkoholaren eta substantzia berrien kontsumoa murriztera zuzendutako neurriak indartzea.
- 4.3.5.- Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunen kontrol eta prebentziorako ohiturak sortzea.
- 4.3.6.- Neurriak sustatzea bizimodu aktiboari bide emateko, garraiobide aktiboak erabiltzeko eta ariketa eta kirola egiteko aukera inklusiboak baliatu ahal izateko, gazteak sozializatzeko bide gisa.
- 4.3.7.- Gazteen osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen fenomeno, patologia eta jokabide berrien agerpena hautematea, zerbitzuak egokitu edo dagozkion ekintzak gauzatu ahal izateko.
- 4.3.8.- Jokabide osasungarriak sustatzeko prestakuntza eta baliabideak ematea aisialdiarekin, astialdi hezigarriarekin, kulturarekin eta jarduera fisikoarekin zerikusia duten eragileei.
- 4.3.9.- Pobrezia, eskola-porrota nahiz familia-arazoak direla-eta arrisku- eta kalteberatasun-egoera handienean dauden talde edo kolektiboei zuzendutako esku-hartze prebentiboak sustatzea eta/edo horiekin elkarlanean aritzea, Adikzioen VI. Planarekin sinergian.

Gazteen artean osasun-programa eta -zerbitzuen ezagutza, balorazioa eta erabilera ona indartzea.
- 4.1.1.- Gazteentzako osasun-programak ezagutaraztea, eta gazteen hizkera, eremu eta kanalak erabiltzea horien ezagutza eta erabilera handitzeko, halakoak ezagutu eta erabiltzea eragotz dezaketen oztopo objektibo eta subjektiboak saiheste aldera.